

Goienkaria

2009ko urriaren 30a > Egubakoitza > IX. urtea > 395. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Earen borondatea ez da izatea ezker abertzalekoen hurrengo siglak"

Pello Urizar
Eako idazkari nagusia > 08-09



G2a

Eguraldi kontuak ulergarri, Pello Zabalaekin > 37

ARRASATE

Urbanoak geltoki gehiago izango du, behar berrietara egokitzeko > 14

OÑATI

San Martin Egoitzako beheko solairu berria inauguratu dute > 27

KIROLA

Ehunka lagun bihar, zapatua, Soraluez-Bergara lasterketan > 34

AZPIEGITURAK > BRT (BUS RAPID TRANSIT)

Bus azkarra egiteko plana 2010ean egon daiteke gertu

AZTERKETA Foru Aldundiak ekainean jasoko ditu azterketa baten emaitzak, ikusteko bailaran egin daitekeen autobusa

LOTURA Bailarako herri guztiak lotuko dituen garraio publiko azkar eta garbia izan nahi du BRTk > 02-03

DEBAGOIENA > ZERBITZUAK

Bailarako zaharren egoitza berria inauguratuta

Eguaztenez egin zuten Aretxabaletako GSR Debagoiena zaharren egoitzaren inaugurazio ofiziala. Ekitaldian izan ziren Aldundiko, Mondragon taldeko eta Aretxabaletako Udaleko ordezkariak. Egoitza berria Debagoieneko edadetuak zerbitzu emateko eraiki dute. 170 plaza espezializatu daude eta eguneko zentroan beste 30. Gaur egun 95 egoiliar daude eta eguneko zentroan, inor ez. > 04

DEBAGOIENA > INGURUMENA

Beste 200 konpostagailu banatuko dituzte

Etxean konposta egiteko lagarren kanpaina abiarazi du Mankomunitateak. Horretarako, 400 litroko 200 konpostagailu banatuko ditu. Eskariak dagoeneko egin daitezke, azaroaren 6ra arte, Mankomunitatera deituta (943 79 33 99). Konpostagailuok doan banatuko dituzte, baina eskatzeko, derrigorrezkoa da etxean lorategia edo baratzea izatea; baita erabiltzen ikasteko ikastaroa egitea ere. > 05

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-06
Elkarrizketa > 08-09
Iritzia > 10
Gutunak > 12
Herriak > 13-33
Kirola > 34-36
Kultura > 38-39
Sailkatuak > 40
Gazteak > 42
Telebista-Irratia > 43
Zerbitzuak > 44
Berri-zakua > 45
Non-zer > 46-47

OSASUNA > KANPAINA

Dentibusa Bergaran izango da asteon

Ahoko minbizia prebenitzeko kanpainaren barruan doako errebisioak egingo dituzte > 05



Uretara!

Domekan igeriketa maratona egingo dute Oñatin eta batutako dirua burmuin elbarritasuna duten kirolariendako izango da. > 27

Oñatiko neskatxo taldea kiroldegiko igerikeluan baloiekin jolas egiten aurkitu genituen eguaztenez.

MIREIA BIKUÑA

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Debagoieneko herri guztiak modu bizkorrean, eraginkorrean eta ekologikoan lotuko lituzkeen garraio publikoa, autobus azkarrak (BRT, ingeleseko Bus Rapid Transit izenetik), errealitate izaten has daiteke datorren urtean. "Alde guztiak ados badaude, finantzaketa badago... hipotetikoki, baietz esan genezake, datorren urtean posible izan daitekeela martxan jartzea", dio Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa-foru diputatuak, Arantza Tapiak. Ez da amets hutsa: hala, egunotan da formaltzekoa BRT Debagoiengan ezar daitekeen aztertze proiektuaren esleipena. Esleipen hori adostuta dago Aldundiaren eta egingo duen UTE-aren artean, eta sinatzea bakarrik falta da. Azterketaren emaitzak ekainean jasoko ditu Aldundiak.

Arantza Tapiak azaltzen digu azterketa hori zertan datzan: "Alde batetik, hitz egingo dute Foru Aldundiarekin, jasotzeko gure asmoak eta ideiak zeintzuk diren; eta, bestetik, Debagoieneko udal guztiaren egongo dira, Mankomunitatearen bidez edo eurek ikusten duten beste modu baten, eta udalen interesak jakin go dituzte. Beste alde batetik, baldintza teknikoak aztertuko dituzte: BRT nondik nora, nola... egin daitekeen, eta zelako sistema izango litzatekeen; eta baldintza ekonomikoak: zenbat kostatuko litzatekeen, ze baliabide izango genituzkeen, eta abar". Txosten hori ekainerako jasoko du Mugikortasun Sailak.

TRANBIAREN ETA BUSAREN SEME

Baina zer da BRT, bus azkarrak? Izatez, autobusa da, baina izenak despistatu egin gaitzake; izan ere, teknologia eta funtzionaltasun aldetik, metro eta tranbia moduko garraio sistemen eta ohiko autobusaren arteko hibrido bat da. Gainera, ez dago definizio bakar bat: munduko hiri eta zona askok dute BRT, eta nork bere egoerara moldatu du garraio publiko sare hori. Baina, oro har, bere erraila izaten du BRTk -nahiz eta, kasuaren arabera, ohiko bideetatik ere ibil daitekeen, beharra izanez gero-, eta baita bere egiturak ere: hala, bere geltokiak ditu, eta autobusera sartu aurretik ordaintzen da, horrela dena azkarragoa izan dadin. Gainera, geltokia eta autobusa maila berean daudenez, erabiltzailea ez da autobusera igo-tzen, geltokitik zuzenean sartu baizik.

Gure kasuan ere, Debagoieneko garraio aukerak eta azpiegiturak aprobetxatuta egin nahi da BRT: "AP-1 ireki zenetik, aukera bat dago Debagoieneko herri guztiak hobeto lotzeko, dagoen ohiko errepidea erabilita", esaten du Arantza Tapiak. Bailararen kasuan, BRTk bere errail propioa izango luke, eta hauxe dio diputatuak: "Ikusi beharko genuke ea bakarrik autobusarendako erabiliko genukeen errail hori, edo, beste herrialde batzuetan egiten den moduan, edukiera handiko autoendako ere bai: bi edo hiru lagun edo gehiago doazen autoe-



AZPIEGITURAK > AUTOBUS AZKARRA

Debagoien

AZTERKETA Aldundiak egunotan esleituko du bus azkarrak (BRT) bailaran egin daitekeen aztertze lana



tan, erabilera handiko errepide gisa". Dena dela, "horiek guztiak udalekin aztertu behar ditugu, eta aukera teknikoak ere mahai gai-

nean ipini; hori da hasierako helburua", dio Arantza Tapiak.

Mugikortasuneko diputatuak gaineratzen duenez, "udalerrri

bakoitzaren interesa eta ikuspuntua kontuan hartuko da, eta ez da ezer egingo inoren interesaren ginetik". Edozein modu-

tan, ziur daukate "inor" ez dela geratuko saretik kanpo: "Orografia ez du proiektua baldintzatuko, eta beste faktore batzuk

TXARTEL BATERATUA

> ESPARRUA, GERO ETA HANDIAGOA

Lurraldebus txartelak bi urte bete ditu eta gero eta handiagoa da erabilera-eremua: hala, Lurraldebus sareko autobusez gain, Irungo, Hernaniko eta Donostiako udalen bus zerbitzuetan erabil daiteke, eta Renferen eta Euskotrenen ibilgailuetan ere erabili ahal izateko bidean dago. Baita, bestalde, Bizkaibusen A-3912 linean ere, PSE-EEren ekimenez.

> BAILARAKO HERRI AUTOBUSAK

Arrasate eta Bergaran ere badago herri autobusa. Arantza Tapiak diputatuaren esanetan, "udalerrri bakoitzaren erabakia" da txartel bateratuan sartzea.

> TAXIAK

Gipuzkoako taxiak ere txartel bateratuarekin ordaintzeko eguna gertuago dago: "Urte bukaerarako egin ahalko dela uste dugu", dio Tapiak.

> GOIKO MUGA JO DU

Lurraldebusen erabiltzaileen %70ek erabiltzen dute txartel bateratua. "Hori hobetzea oso zaila da; 2-3 puntu igo daiteke, gehiago ez".



Lurraldebus txartela.

TRANBIA

Arrasateko alkateak ondo ikusten du BTR, "behin-behineko" irtenbide moduan

Mugikortasuneko diputatuak dagoeneko jakinarazi die Debagoieneko alkateei Bus Rapid Transit-en asmoa. Arrasateko alkate Ino Galparsorok *Asteleheneko Goienkaria*-n esan zuenez, ez du txarto ikusten, baina behin-behineko irtenbide moduan; haren apustua tranbiaren aldekoa da: "Hemen, trenik ez dugun eskualde bakarrean, zer gutxiago tranbia jartzea baino", esan zuen Galparsorok; eta ez da iritzi hori duen Debagoieneko alkate bakarra.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ere behin eta berriz errepikatu du Debagoieneko tranbiaren alde egiten duela, baina hori ez dela bere eskumena. Jaurlaritzarena da eskumena, eta, momentu honetan, Debagoieneko tranbia ez dago Jaurlaritzaren lehentasunen artean.

EUSKO JAURLARITZARI PREMIA SARTU DIOTE

Irail bukaeran, Batzar Nagusiek Alternatibak aurkeztutako mozio bat onartu zuten, EAJ, Hamaikabat, PP eta Aralarren aldeko botoekin, Eusko Jaurlaritzari premia sartzeko tranbia "lehentasun" moduan har zezan.

PSE-EE abstenitu egin zen bozketa hartan, eta esan zuen tranbiaren proiektuak "erantzun asko jaso" zituela eta "oso polemikoa" zela. Euren esanetan, tranbiaren proiektuak 400 alegaziotik gora jaso zuen, eta esan zuten Aldundiaren "zalantzak Debagoieneko garraio publikoaren gainean" zirela beste faktore bat; baina Aldundiak tranbia babesten du.



Argazkiotan, munduko hainbat herrialdetako Bus Rapid Transit; tartean, erabiltzen dituzten errail bereziak eta geltokiak ikusten dira.



a ote?

AURREKARI Errail berezian ibiltzen den autobusa da eta tranbiaren aurrekari izan daiteke



de, autobusak oso geldialdi gutxi egingo lituzke, eta ez litzateke auto-ilaretan harrapatuta geratuko.

Gerorako utziko du Foru Aldundiak Debabarrenarekiko lotura ere, komunikabideetan aipatu izan dena: "Oraingoz, Debagoienarako landuko dugu. Debabarreneko herri batzuek badaukate tren, eta bailara hori bigarren fase baterako utziko dugu. Orain, tranbiarekin zerbitzatuta izango liratekeen herriak eta Leintz Gatzaga, tranbian sartzen ez zena, aztertuko ditugu".

"BTR DA ZERBAIT AURRERATZEA"

Tranbia aipatuta, lozorro luze eta sakonean dagoen egitasmo horretan sinisten jarraitzen du Foru Aldundiak -nahiz eta gogoratu behar den tranbia Eusko Jaurlaritzaren eskumena dela. Baina BTRk lagun egin diezaiolke: "Niretako, BTR tranbiaren aurrekaria da. Interesa dugu tranbiarekin, baina horren zain egon barik beste alternatiba bat jarri nahi izan dugu mahai gainean. BTR ondo badabil, errail berberak erabilia tranbia jar daiteke gero", esaten du Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako diputatuak. Horregatik, "BTR da zerbait aurreratzea tranbiari begira, ez gastua bikoiztea", argitzen du Arantza Tapiak. Asmoa litzateke BTRren azpiegitura osoa tranbiara erabiltzea.

Arantza Tapiak onartzen du "tranbia erakargarriagoa" dela, baina "BTR bezalako zerbitzu bat ipintzeak ere garrantzia ematen dio herriari eta inguruari".

40.000 BIDAIRI ORDUKO

BRT edukiera eta ahalmen handiko garraio publikoa da: adibide batzuk jartzearen, Brasilgo Curitiba hiriko BRTk orduko 22.500 bidaiari garraiatzen ditu; Bogotako TransMilenio lineak, aitzindariak, du errekorra, orduko 40.000 bidaiari eramateko gai da-eta. Bogotako alkateak mar txan jarri zuen, garraio publikoa behar zuelako baina metroa jartzeko diru nahikorik ez zuelako. Gaur egun, arrakasta eta prestigio handiko garraio mota bat da. BRT duten edo egiten dabilzan leku batzuk hauek dira: Johannesburgo, Mexiko Hiria, Lima, Boston, San Frantzisko, Denver, Calgary, Ottawa, Vancouver, Pekin, Shanghai, Helsinki, Nancy, Nantes, Niza, Grenoble, Stockholm, Brisbane, eta beste asko.

hartuko dira kontuan: zenbat bidaiari izango lituzkeen, zelako interesa dagoen udalerrri bakoitzean... Hala, Leintz Gatzaga apur bat gorago dagoela esatea, adibidez, ez litzateke arrazoia izango hara ez eramateko. Herri guztietara ailegatuko litzateke".

LURRALDEBUSEN EREDUA

Aukera guztiak zabalik daude; baita zerbitzuaren kudeaketari dagozkionak ere; baina Lurraldebus moduko eredu bat gustuko du Mugikortasuneko diputa-

tuak: "Lurraldebusak autobus arruntak erabiltzen ditu, baina kudeaketa berbera edo oso antzekoa izan daiteke. Lurraldebus da sistema bateratu bat, txartel bakarra darabilena, tarifa bereziak dituena... Hori ezar daiteke BRTn? Bai".

Erabiliko diren autobusei dagokienez, aukera oso zabala da: "Erabil daitezke autobus elektrikoak, kontsumo txikikoak... denetarik. Ez du zertan izan ohiko autobusa. Ingurumena kontuan hartuta, jar daitezke auto-

bus bereziak, teknologia bereziak darabiltzatenak", esaten du Tapiak diputatuak. Ingurumena zaintzea da helburuetako bat; ez

bakarrrik autobus motarengatik, baizik eta automobil partikularrez dabilzanan kopurua murriztu egingo litzatekeelako. Bestal-


ESANAK

"Udalerrri bakoitzaren interesa eta ikuspuntua kontuan hartuko da"

Arantza Tapiak > Mugikortasuneko foru diputatua

"Gure asmoa da autobus azkarra bailarako herri guztietara ailegatzea"

Japoniako teknologia aurreratuena



Sasi-garbitzeko makinak, basorako eta bizkarrean eramatekoak

Informazio gehiagorako:

943 76 31 52



comercial BRUNET

Telleria 2, Altos Hornos BERGARA Tel.: 943 76 31 52 - Faxa: 943 76 70 12
brunett@telefonica.net • www.comercialbrunet.com

GIZARTEA > ARETXABALETAKO GSR DEBAGOIENA

Gizarte zerbitzuen beharrak asetu behar direla azpimarratu dute

Eguaztenean ordezkari politikoez inauguratutako zaharren egoitzak 95 egoiliar ditu dagoeneko

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

Eguazten eguerdian Aretxabaleako GSR Debagoiena egoitzaren inaugurazio ekitaldia egin zuten. Gipuzkoako diputatu Markel Olano eta Ezinduen eta Babesgabeen Laguntzako zuzendari Juan Ramon Larrañagarekin batera, Aretxabaleako alkate Inaxio Garro, Mondragon Taldeko presidente Jose Mari Aldekoa eta LKSk zuzendari nagusi Alberto Gorroñogoitia egon ziren.

Egoitzako atarian ohorezko aureskua dantatu eta zinta moztu ondoren, zentroko egoiliarren gana joan ziren ordezkariak. Are-

txabaleako alkateak hartu zuen hitza. Inaugurazioa krisi garaian egin bada ere, zerbitzu sozialak ez daudela krisian esan zuen: "Are gehiago, orain baino modu ausartagoan jokatu beharra dago zirkunstantziei aurre egin ahal izateko. Hortaz, jarrai dezagun gizarte zerbitzuen erronkei aurre egiten".

ERAIKINAREN EZAUGARRIAK

Jarraian, Larrañagak eraikinarren hainbat datu eskaini zituen: LKSk eta Mondragon Taldeak bultzatutako egoitza berriak 12 milioi euro balio du. Aldundia-

ren plaza publikoak eta pribatuak ditu. Eraikina hiru modulutan zatituta dago eta, besteak beste, bi unitate psikogeriatriko, atsedeen gelak, liburutegia, informatika gela eta ile-apaindegia ditu.

Bestalde, Aldekoak adierazi zuen Aretxabaleako lehenengo

proiektua bada ere, etorkizuneko aktibitate berrietan sartzeko asmoa dutela. Markel Olanok, azkenik, esan zuenez, "behar handien dituztenekin konpromisoa adierazi behar dugu guztiok". Amaitu aurretik, egoiliarrek kan- tu bat abestu zuten.

DATUA

170

PLAZA

Egoitzan 170 plaza espezializatu daude eta eguneko zentroan beste 30 plaza. Gaur egun, 95 egoiliar daude; eguneko zentroan, inor ez.

ESANAK

"Orain baino modu ausartagoan jokatu beharra dago zirkunstantziei aurre egin ahal izateko"

Inaxio Garro > Alkatea



Eraikin ondoko terrazan hitza hartu zuten ordezkari politikoez, egoiliarrek aurrean zituztela.

MIRIAN BITERI

NEKAZARITZA > ZUBILLAGAKO HILTEGIA

Bertako okela kontsumi dezagun, eredu berria

Mankomunitateak baserritarrei eta harakinei zerbitzu zuzena ematen jarraituko du, eta Euskal Herriko haragiaren aldeko apustua egin

M.B. > BERGARA

Debagoieneko Mankomunitateak Zubillagako hiltzeari eredu berria du. Hango arduradun Pedro Iturbek azaldu duenez, zerbitzu publikoa den heinean, base-

rritarrei eta harakinei zerbitzu zuzena eskaintzen jarraituko du; hain justu ere, animaliei probak egitea eta emaitzak onak irten ezker, abereak akabatzea. Baina, aldi berean, baserritarrek ekoiz-

teko dituzten arazoei irtenbidea ematen saiatuko direla dio. Bestalde, okelaren salmentari dago-kionez, harakinek, gizartearen kontsumoaren ondorioz, baserritarrei abelburuak erosteko hainbat traba dituztela gogorarazi du: "Haiei laguntzea da koska".

KONTSUMO OHITURAK ALDATU

Kontsumitzaileengana ere iritsi nahi dutela esan du. Aipatu du kontsumo ohiturak moldatu eta bertako okela exijitzeko eta kontsumitzeko pausoa eman beharra dagoela. Iturberen esanetan, "engainaturik kontsumitzen dugu; orain arteko instituzioek indartu eta bultzatu dituzte ezjakintasun horiek".

Gogorarazi du egun kontsumitzen dugun %20 bakarrik dela bertakoa. Horren harira, aipatu du %100ean kontsumitzen den

okela ekoizteko aukera ez bada ere, portzentaje hori asko hobe daitekeela, baserritarrei euren lana "duintasunez" ordainduz eta harakinek bitartez kontsumitzaileari kalitatezko bertako okela salduz.

AURKEZPENAK

Makomunitateak dagoeneko kudeaketa eredu berria aurkeztu die balarako 80 harakin ingururi. Eguaztenean bildu zen Iturbe harakinekin Arrasateko kulturaren. Ez da aurkezpen bakarra izango. Debagoieneko zein Debagoienetik kanpoko 500 abeltzainek inguruk erabiltzen dute hiltzeari eta haiek ere eredu berriaren gaineko bilera egongo da eguaztenean, azaroak 4, Arrasateko Amaia antzokian, 20:30ean. Hiltzeari Bizirik plataformak bilkurara joateko dei egin du.

> AHT

Azterketa juridikoa, Bergarako trazatua aldatu ahal izateko

Abiadura Handiko Trenaren harira, Eusko Jaurlaritzak azterketa juridikoa eskatu du, Bergara-Bergara trazatua aldatzearen bideragarritasunaren gainekoa. Eta aipatutako azterketa kabinete independente bati eskatzeko espedientea dagoeneko hasi dutela jakinarazi dute.

Garraio eta Herri Lan sailburuorde Ernesto Gascok hartu zuen joan den astean konpromiso hori, Lamiategi elkartearekin bildu ostean. Ibilbide zehatz horretako kalitetuek osatzen dute elkarte hori. Sailburuordearekin izandako batzarrean, Bergararik igarotzen den trazatuaren aldaketa eskatu zioten, inpaktua txikitzeko.

> EKONOMIA

Bigarren eskuko arropa denda irekiko dute bihar Arrasaten

Bihar, zapatua, Emaus fundazioak eskualdean bigarren eskuko arropa salduko duen lehen denda zabalduko du. Saltoxia Nafarroa etorbideko 23. zenbakian dagoen herri-administrazioaren lokal batean kokatuko da. Arrasateko Udalen Enplegu eta Garapen Ekonomia Sailaren eta Emaus fundazioaren arteko lankidetzak akordioaren ondotik dator.

Berrerabiliz apaindu lelopean egingo dute festa, 10:00etatik 19:00etara. Tarte horretan, dendara sartzen direnek eskaintza garrantzitsuak jaso ahal izango dituzte; ekintza bereziak ere egongo dira. Hain zuzen ere, Emausek Gipuzkoan duen bosgarren salmenta-puntua izango da Arrasatekoa.

> GARRAIOA

Arantzazuko autobusa neguko ordutegiarekin hasiko da domekan

Arantzazuko autobusaren ordutegia murriztu egingo dute domekatik aurrera. Aldaketen arabera, Oñatiko lehen autobusa 08:30ean abiatuko da Arantzazura –orain arte baino ordubete geroago–. Goizeko azken autobusa 14:00etan irtengo da Arantzazutik. 17:30era arte ez dute zerbitzurik emango. Azkeneko autobusak 18:30ean eta 19:00etan irtengo dira Oñatik eta Arantzazutik, hurrenez hurren.

Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak 2007an jarri zuen martxan zerbitzu hori; urteotan, erabiltzaile kopuruak gora egin du. 2009ko urtarriletik abuztura arte 3.000 bidaiarik erabili dute.

OSASUNA

Dentibusa Bergaran izango da asteon

Ahoko minbizia prebenitzeko kanpainaren barruan etorriko da

M.B. > BERGARA

Ahoko minbiziaren hautemate goiztiarraren kanpainaren barruan Dentibusa izango da Bergaran azaroaren 5ean eta 6an, 10:30-13:30 eta 15:30-20:00 orduetartean, Fraiskozurin.

Estatu mailako kanpaina da eta helburua da herritarrek jabeazte errebisioen garrantziaz, horixe baita prebentzio goiztiarrerako bidea. Hori horrela, Dentibusean doako errebisio eta diagnostikoko egingo dizkiete gura duten herritarrei. Bestalde, San Martin, Mariaren Lagundia eta Aranzadi ikastetxeetara ere joango dira dentistak egun horietan, errebisioen garrantziaz eta ahoko minbiziaren berba egiteko.

HITZALDI INFORMATIBOA

Azaroaren 3an (martitzena) hitzaldia egongo da Miguel Altuna institutuan, ahoko minbiziaren eta prebentzioaren. Alberto Gorosabel dentistak egingo du, 19:30ean.

DATUA

14

KASU URTEAN EAE-N

EAE da Estatuan kasu gehien izaten den lekua. 100.000 biztanleko 14 kasu izaten dira; eta Estatuan, 8.



Mankomunitateko Ingurumen arduradunak konpostagailua erakusten. TXOMIN MADINA

INGURUMENA > MANKOMUNITATEA

Beste 200 konpostagailu banatuko dituzte

Azaroaren 6ra arte dago konpostagailuak eskatzeko, doan, Mankomunitateko egoitzan

GOIENKARIA > BERGARA

Etxean konposta egiteko laugarren kanpaina abiarazi du Mankomunitateak. Horretarako, 400 litroko 200 konpostagailu banatuko ditu. Eskariak dagoeneko egin daitezke, azaroaren 6ra arte, Mankomunitatera deituta (943 79 33 99) 08:30-12:00 orduetartean.

Konpostagailuok doan banatuko dituzte, baina eskatzeko, derrigorrezkoa da etxean lorategia edo baratzea izatea. Bestalde, izena ematen dutenek konposta nola egin ikasteko ikastaroa egin beharko dute. Ikastarook bost herritan egingo dituzte.

34.000 KILO KONPOST URTEAN

2005ean egin zen lehen aldiz bialaran halako kanpaina bat, eta ordutik hona, 566 konpostagailu banatu dira. Mankomunitateko datuen arabera, konpostagailu horiekin urtean 137.000 kilo materia organiko konpostatu dira, eta horietatik laurden bat, 34.000 kilo inguru, konpost irten dira, baratzeetan erabiltzeko.

Horrez guztiaz gain, jakinarazi zuten Foru Aldundiak Gipuzkoako Konpostagileen Sarea sortu duela, konpostagailua duten familien artean harremana eta elkarri laguntzea bultzatzeko.

etxeko leihotik



Goiatz Arana > 'goarana@goiena.com'

Gure gonbidatuei esker, posible da!

Urriak 21, eguaztena, 17:00 inguru. ETB2 kateko *Pásal*o saioa ari naiz ikusten, etxeko tabernan, eta adineko bezero bat hasi zait mar-mar: "Telebixon zenbat milloi ote dabilte bueltaka! Baten bat serioa azalduko balitz! Horrek ze enteitzen ote do! Hilan bukaeran kobrau eta kitto. Dana lapurretea dau hemen, hoi da oingo relijioa. Eta horik -Adela Gonzalez eta Iñaki Lopezi buruz-? Onak izango die; eunero hor ai die bazkaldu ezkeo. Ala? Eak igual lapurrik haundinak!..."

Irribarre eginez begiratzen nion nik, esaten zituenak entzun ahala, gure telebistaz -GOITBz- pentsatzen nuen bitartean. Gu ere egunero sartzen gara debagoiendarren etxetan; ez dakit profesional "onak" garen, baina hilaren bukaeran poltsikoak neurrian betetzen ditugula, bai; hori esan dezaket. Eta gure gonbidatuak? Guk emandako ordainsariarekin poltsikoan koskorrik ez zaie ateratzen, behintzat! Guri saioa aurrera ateratzen lagundu, esker onak jaso eta etxera! 2008ko urrian hasi ginen *Magazinea*-rekin. Erronka handi samarra zen guretzat: egunero, ordubetez, zuzenean, interesgarri jotzen genituen gaiei buruz hitz egingo liguketen pertsonekin... eta euskaraz! Zalan-tza batzuekin, baina abiatu ginen eta zera ikusi genuen: posible dela! Makina bat jende pasa da gure erakusleihotik eta aurrerantzean ere pasako ahal da. Eskerririk asko!

"Saioa aurrera ateratzen lagundu, esker onak jaso eta etxera"

> **Jokaera zintzoaren adibideak ere badira: bezero haren ondotik beste bat etorri zen; aurreko baten zerbitzariak bi euro utzi zizkiola eta bueltatzera. Txanponak ez du askorik balio; ekintzak, izugarri!**

> **Diruaz ari garela: astelehenetik aurrera, Magazinea-n, poltsikoari eskainitako tarte berri bat estreinatuko dugu. Ez dira garai errazak eta saiaturako gara arnasbideak badaudela erakusten.**

POLITIKA > ATXILOKETA

Zuhaitz Errasti aretxabaletarra Parisera eroan dute

IKASTAROAK

- **MINTZAPRAKTIKA INGELESEZ**
Goi-mailako ezagupena dutenentzako.
Hasiera: Azaroaren 4an.
- **INGELES HIZKUNTZARA SARRERA**
Hasiera: Azaroaren 6an.

Informazio gehiagorako:
Tel.: 943 76 90 33
info@bergara.uned.es

Beranduenik gaur deklaratu beharko du inkomunikazioa, gehienez, 96 ordukoa da-eta

MIREIA BIKUÑA > ARETXABALETA
Zuhaitz Errasti aretxabaletarra Pariseko poliziaren esku dago. Astelehenean Frantziako Poliziak Vienne hiriko mendate batean atxilotu zuen, besteak beste, 30 kilo aluminio hauts, errebolber bat eta matrikulak faltatzeko materialarekin.

Le Progres egunkariaren arabera Lyonon egon den bitartean Errastik uko egin dio polizien galderei erantzuteari. Beranduenik gaur deklaratu beharko du Pariseko epailearen aurrean, Frantziako Legediaren arabera, inkomunikazioak gehienez 96 ordu iraun dezake-eta.

Atxiloketaren harira martitzen Guardia Zibilak Errastiren gurasoen eta osaba-izeben etxeak miatu zituen Zumaian eta Aretxabaletan, hurrenez hurren. Tarte horretan, Aretxabaletako Gorbeia kalea itxita eta zaintzapean egon zen. Atxiloketak eta miaketak salatzeke eguazten arratsal-

dean elkarretaratzea egin zuten 25 bat lagunek Aretxabaletako plazan.

BILATZEKO EUROAGINDUA

2005eko uztailean Brive la Gaillard (Frantzia) atxilotu zuten Errasti. Helburu terroristak dituen gaizkile taldeko kide iza-tegatik lau urteko kartzela zigorra jarri zion Pariseko Auzitegiak. Kartzelan hiru urte egin eta 2008ko azaroan estraditatu zuten. Auzitegi Nazionalak baldintzapean aske utzi zuen, baina auzi saio batera ez agertzearen bilatzeko eta atxilotzeko euroagindua zabaldu zuen.

Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Urriko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!

Tel.: 943 08 10 50

harpidetza@goiena.com

Kuota: 20 euro

XABIER LETE IKUSTEKO SARRERAK



Bidali AG ESPALOIA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



LIBURUA



Bidali AG ATXAGA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



KAMISETA



Bidali AG KAMISETA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



MP3 BAT



Bidali AG EROSKI
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



SARI NAGUSIA

IRAILA-AZAROA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



AHTEC NETBOOK LUG N011
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270
Diamondville (533Mhz/512Kb).
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3
Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik



- Partikular eta enpresei laguntza tekniko
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotuan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

Rafael Uribarren > Landa Ingurunearen Garapenerako diputatua

"Putreak beharrezkoak dira, baina daukaten janariaren neurrian ugaltu behar dute"

ARRITXU BARRUSO-LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE
Putreak babestuta daude, ugaltu egin dira, eta Urbia inguruan bizirik zeuden ardiei eraso egin diete putreek egunotan. Horretaz hitz egin du Landa Ingurunearen Garapenerako foru diputatu Rafael Uribarrenek asteon GOITBn.

Ze animalia mota da putrea edo saia?


Harraparia da, tamaina handikoa: hegoak zabalik duela, 2,80 metro ditu, metro bat garai da eta 7-9 kilo pisatzen du; hortaz, inpresionatu egiten du. Gure mendietatik nahiko desagertua zegoen, baina orain, egin den lanari esker, ugaltu egin da.

Larregi ugaltu da?

Ez nuke larregi esango, baina ailegatu dela neurri batzuk hartzeko momentua. Azken hamarkadotan lan handia egin da, Foru Aldunditik, bereziki, eta babestua egon da, ehiztariak ez dira haren etsaiak, abeltzaintza izan da hegaztiok jateko modu bat, eta horrek guztiak lagundu egin die hazkunde hau izaten; baina arazoak sortzen hasi dira. Batetik, ardiei eraso horiek izan dira. Bestetik, azken bolada honetan Beasainen denda baten sartu zen bat; Ordizian, umeen parke baten; Amara auzoan, etxe bateko balkoian bat azaldu zen...

Behi eroen gaitzarekin, baserriarrek hildako ganadua batu egin behar zuten.

Behi eroen garaian egin zen debekuak gosea ekarri zuen, eta animalion DNAn ez zegoen zerbait azaldu zen: gosearen poderioz, animalia ahulenei eraso egin hasi ziren putreak.



Rafael Uribarren.

GOIENKARIA

"Arabian eta Nafarroan jantokiak jarri dizkiete, baina gu ez gara horren aldekoak"

"Behi eroen' gaitzak gosea ekarri zien, eta erasoak hasi ziren"

Baina orain arrazoia ez litza-teke hori izan behar...

Ez, baina Arabian, Nafarroan... jantokiak jarri dizkiete, animaliei ez diezaieten eraso, eta horrek eta espezie babestua izateak dakar ugalketa are handiago izatea. Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundian neurri batzuk hartu ditugu: batetik, jantokirik ez jartzea, eta bestetik, mendian hiltzen den ganadua bertan uztea. Horrela, espeziea modu naturalean erregulatuko dela uste dugu, eta gure biologoek ere hala uste dute. Bi urte daraguru jarrerara honekin. Uste dugu

espezieak bere tamaina naturala izan behar duela; saia animalia beharrezkoa da, babestua dago; baina, aldi berean, bere tamainan egon behar dute, daukaten janariaren neurrian.

Neurri horien ondorioak noiz hasiko gara ikusten?

Gu oraindik ez gara hasi eragina igartzen. Izan ere, hegaztiok 100 kilometroko bueltan mugitzeko gaitasuna dute: adibidez, oso erraza dute Arabian jatea eta hemen lo egitea, eta alderantziz. Baina inguruan animaliak ikusten badituzte, haiei eraso egiteko gaitasuna dute oraindik. Gu hasi gara gure diskurtsoa zabaltzen inguruko lurraldeetara, eta uste dugu inguruko administrazioek ere berdin egin dezaketela: jantokiak kendu eta espeziea modu naturalean erregula dadila.

Artzainek jasoko dute konpentsaziorik galdutako ardiengatik?

Kalte ekonomikoa ez da hain larria izaten. Artzainari min ematen dio ardia galtzeak, ardiak maite dituelako, baina ekonomikoki ez da horrenbesteko galera. Beraz, ez dugu kalte-ordainik erabakita, baina horrek ez du esan nahi etorkizunean ez dugunik zerbait egingo; momentu honetan, oraindik ez; nekazariak ez du bere ondarea oso murriztua ikusten horregatik.

Herritarrok kezkatu egin behar dugu putre bat gertu ikusten badugu?

Guk dakigula, ez dute sekula inor erasotu, baina kasu horietan, egin behar dena da Udalarri abisatu eta ahalik eta azkarren egin dezatela euren lana.

EKONOMIA > PROMOZIOA

Altzariak erostean %25eko deskontua lor dezakete Euskadiko Kutxako bezeroek

Urte bukaerara arte indarrean dago Remueble Plana, eta ibarrean lau saltoki daude atxikita

L.K. > ARRASATE

Abenduaren 31ra arte, Euskadiko Kutxako bezeroek %25eko deskontua lortu ahal izango dute saltoki jakin batzuetan erositako altzarien gainean, aurrezki entitate horrek, Danona Altzariak eta Fagor Altzariak egindako Remueble Planaren bitartez. Deskontuok lortzeko baldintza bakarra da Gipuzkoan, Bizkaian

edo Arabian Euskadiko Kutxako bezero izatea eta altzariak Euskadiko Kutxan eskatutako maileru bidez ordaintzea.

ETXERAKO ETA SUKALDERAKO

Eskaintza berezi hori bi adarretan egiten da: batetik, Danona Altzariak, Mondragon Korporazioak altzari taldearen logelarako edo salarako altzariak eroste-

ko aukera dago, sustapenari atxikita dauden dendetan. EAEn dozena bat saltzaile daude atxikita; Gipuzkoan, bost, eta horietatik bi Debagoienera: Aretxabaletan eta Arrasaten, hain zuzen.

Beste alde batetik, Fagor Altzariak ekoiztutako sukaldarako altzariak eros daitezke, eta deskontu berbera lortu. Horretara atxikita daude bost saltoki Gipuzkoan, eta horietatik hiru bailarako hiru herritan daude: Arrasaten, Aretxabaletan eta Oñatin.

Deskontua egiten da altzaria erosten den unean. Ez dago mugarik artikularen prezio aldetik, ez eta norberak deskontutan lor dezakeen kopuruaren aldetik ere.

Euskadiko Kutxak postaz dihardu bere bezeroak sustapenez informatzen, eta telefono zenbaki bat ipini du horretarako: 901 333 444.

ALDEKO
AURREZKIA
ALDEAN




Aurrezkiak Mahaian

Hartu aurrea eta prestatu jakirik goxoenak zeure aurrezkien interesaz. kutxak mahaian ipiniko dizu imajina dezakezun tresneriarik praktikoena eta modernoena. Aukeratu zeure interesa ohiko bulegoan, Telekutxa-ren 901 333 555 telefonora deituz, www.kutxa.net-en edo kutxaren kutxa-zainetan.



Zuk aukeratu zer eraman.

Laberako 2 azpil, 2 zartagin edo sukaldeko ontziteria ere eraman dezakezu. Aztertu baldintzak.



zer nahi duzu bihar?

Ekaineko kongresutik alderdia indartuta atera dela dio EAko idazkari nagusiak, Pello Urizar arrasatearrak: "Orain mezua baka-

rra eta argiagoa da" dio, nahiz eta onartzen duen alderdia ahulago dagoela kargu publiko gehienak Hamaikabatera joan direlako. Bes-

talde, Urizarrek garbi laga nahi izan du EA ez dela ezker abertzalekoen hurrengo hauteskundeetarako marka izango.

Pello Urizar > EAko idazkari nagusia

"EAren borondatea ez da izatea ezker abertzalekoen hurrengo siglak"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

San Juan jaien bezperan aukeratu zuten EAko idazkari nagusi, alderdiaren unerik zailenetakoan: hauteskundeetako porrotten eta alderdiaren zatiketaren ostean. Baina itxaropentsu dago eta alderdia indarberitu egin dela dio. Pello Urizar (Arrasate, 1968) 18 urte zituenetik da EAko kide. Gazte Abertzaleak erakundeko idazkari nagusi izandakoa da eta zinegotzi da Arrasaten.

Zelan balorazten duzu Otegi, Diez Usabiaga eta haien atxiloteta?

Txarto. Gatazka konpontzeko modu baten aurka egin dute. Daukagun informazioagatik, ezker abertzaleak egiten diharduen hausnarketa benetakoa da, kanpoko esku-sartzerik eta biolentziarik barik, prozesua aurrera eroatearen aldekoa. Hori horrela, Espainiako Estatuak urduri jarri da, kontrolaezina iruditu zaiolako prozesua, eta prozesu hori sustraieratik eten gura izan du. Oraingo egoeran dago eroso Estatuak.

Eta sindikatu abertzaleek deituta Donostian egin zen manifestazioa?

Positiboki. Gatazkaren konpontetarako alderdiek erantzukizun handia dute, baina sindikatuek, jendarte eragileek eta jendarteak berak ere izan behar dute parte. Gainera, azkar eta sendo erantzun dugu denok eta hori izan da nabarmentzekoa.

Ares eta Rubalcaba haserretu egin ziren urriaren 17ko manifestazioa dela-eta.

Haien kalkuletatik eta kontrolatik kanpo geratzen zen, ezker abertzaleko esparru hori baztertu gura dutelako eta, ezker abertzalea baztertuta, bermatu egiten dutelako gehiengo ez abertzalea erakundeetan.

EAJ manifestazioan egon izana?

Positiboki baloratzen dugu. Hala ere, EAJren betiko bi irizpide horiek azaleratu ziren manifestazioaren bezperan, eta barne zatiketaren itxurarik ez ematearren erabaki zuten manifestaziora joatea.

Lizarra-Garazi posible da gaur egun?

Prozesu guztietatik ikasten da zerbait. Eta ez dakit posible izango litzatekeen Lizarra-Garazi errepikatzea, baina argi daukat hura izan zela bake-prozesu guztietatik emankorra. Ez zen izan negoziazio ahalegin hutsa, baizik eta euskal eragileen arteko elkarlanetik sortutako prozesua, eta horrek ekarri zuen jendarte mugiaraztea eta eragileen atzetik, ondoan, joatea. Hori da bidea.

Zerk egin zuen hutsa?

Horrelako prozesuetan eragile politikook egon behar dugu mahaiaren bueltan eta hartu behar ditugu erabakiak, jendar-

tearen ordezkari garen heinean. ETA ez da eragile politikoa eta ez dauka zer esaterik gatazka politikoa konpontzeko prozesuan, nahiz eta beti gura izan bermatzaile izan. Biolentziak baldintzatzen du gatazkaren konponketa, ze Espainiako Estatuak ez digu emango-eta gura duguna. Ez dugu inozoak izan behar, Estatuak ez du ezer irabazten eskatzen duguna emanda. Zentzu horretan, abertzaleok bat izan behar dugu, gehiengo lortu behar dugu, eta horrekin kontuak eskatu Estatuari. Horretarako, ETAK desagertu egin behar du, eragile politikoei hartu behar dugu iniziatiba eta jendarte ondoan izan behar dugu.

Urte eta erdi geratzen da udalak eta foru aldundiak beritzeko hauteskundeetarako. Ikusitakoak ikusita, litekeena da ezker abertzalekoak ezin aurkeztea... Ze ondorio ekar dezake horrek?

Hori da sozialistek eta popularrak, Espainiako Gobernuare-

kin batera, gura dutena. Azken hauteskundeetako emaitzak ikusita, foru aldundiak dituzte orain jomuga eta, horretarako, hautesle zati bat kanpoan behar dute. Hedabideetan atera da ezker abertzalea zebilela alderdi politikoa berria sortu guran eta abar. Ez dakigu ze puntutaraino den hori ETAK egindako hausnarketa eta ze puntutaraino den ezker abertzale politikoa konpartitzen duena. Edozelan ere, zail izango da, ze Rubalcabak esan baitzuen udan, biolentzia gaitzetsita ere ezingo zirela aurkeztu, ETAK dirauen bitartean. Esparru abertzale guztiek onartzeko moduko proposamenak egin behar dira eta, horretarako, ezker abertzaleak berak egin behar du lehen urratsa. Lan-kidetzarako prest gaude alderdi abertzale batzuk, sindikatuak...

EA bihur daiteke ezker abertzalekoendako aukera?

Garzonen epai-autoan 14 bider agertzen da EA eta, hori ikusita, kezkatzen has gaitzake apur bat, baina argi daukagu sigla edo alderdi konkretu bat baino askoz ere zabalagoa den zerbait sortu behar dela. EAren borondatea ez da, inondik inora, ezker abertzalekoen hurrengo siglak izatea hauteskundeetarako. Hori ez dugu ikusiko.

Arrasatek lehen alkate sozialista izan dezake?

Garzonek dio guztia dela ETA, eta Aritz Arrietak dio bera izango dela hurrengo Arrasateko alkatea. Esango dute gura dutena, baina, zorionez, Arrasateko herriari dagokio erabakitzea zein izango den 2011tik aurrera hurrengo alkatea.

Posible ikusten duzu, hala ere?

Ez dut gura, eta Arrasateko herriaren gehiengo ez dago horren alde.

EZKER ABERTZALEA

"Ezker abertzalearen hausnarketa benetakoa da, kanpoko esku-sartzerik eta biolentziarik barik"

HAUTESKUNDEAK

"Sozialistek foru aldundiak dituzte orain jomuga eta, horretarako, hautesle zati bat kanpoan behar dute"

ALKATE SOZIALISTA

"Ez dut gura sozialista bat Arrasateko alkate, eta Arrasateko herriaren gehiengo ez dago horren alde"

ESTATUTUA

"Erreminta moduan, ona izan da, baina onartu zena ez dute bete, ez espirituari ezta letrari dagokionez ere"



Pello Urizar, Arrasateko udaletxe aurrean.

Nahiz eta azken hauteskundeetan sozialistak izan lehen edo bigarren indarra Arrasaten?

Egoera ezohiko eta anormalan gaude, baina arrasatearren gehiengoak eta profil abertzalea dutenak askoz ere gehiago bozkatzeko dute udal edo Batzar Nagusietako hauteskundeetan. Emaitza ezberdinak izaten dira Espainiako Kongresuko edo udal hauteskundeetan.



ENEKO AZKARATE

herri honi. Baina onartu zena ez dute bete, ez espirituari ezta letrari dagokionez ere. Batzuek, Jaur-laritzan daudenek, esaterako, uste dute garrantzitsuena Madril-en erabaki behar dela; guk beste ikuspegi bat daukagu.

Egon zinen Lehendakariaren ospakizun ekitaldietan?

Ez ninduten gonbidatu. Lehengo esan genuen ez ginela joango eta, agian horregatik, ez gintuen gonbidatu. Gure alderdiko erakundeetako ordezkariak gonbidatu zituzten. Egun hartan Amurrion izan nintzen, ikurriaren aldeko ekitaldi batean.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan oso emaitza eskasak lortu zituen EAk. Zer-gatik?

Azken bi legealdietan EAJrekin batera aurkeztu gara hauteskundeetara. Eta bi legealdi horietan, erabakitze ahalmenaren kontua eta herri galdeketa izan da baldintza ezinbestekoa elkarrekin aurkezteko. Ibarretzek egin zituen ahaleginak hori lortzeko, baina Estatuak atzera bota zituen ekimenok. Hori ikusita, Estatuarekin aurrez aurreko norgehiagoka plantatu genion EAJri, baina hori ez zenez egin, ikusi genuen EAJrekin ezingo genuela aurrera egin. Hor amaitu genuen lankidetzara. Hori horrela, zela saldu herriaren aurrean, 8 urtetan koalizioan joan ostean, aurrerantzean banatuta aurkeztuko ginela? Ez genuen jakin hori saltzen eta jende askok Ibarretxeri eman zion botoa. EAJren boto asko eta asko Ibarretxeri berari emandakoak izan ziren; horietako batzuk, gainera, gure ohiko boto emaileak. Bestalde, azken urteetan alderdian izan ditugun barruko liskarren ondorioz, jende asko urruntzen joan da. Hauteskunde kanpainan ere ez genuen asmatu...

Zatiketa ostean, EA indartuta ala ahulduta ater da?

Irakurketa bi egin daitezke: batetik, kargu publiko asko galdu ditugu, Hamaikabatera joan direlako, eta horrek ahuldu egin du alderdia. Baina, alderdi moduan, indartuta aterara gara, ikusten delako bat garelako eta jendeak gurekin jarraitzen duela. Gainera, azken kongresutik denok aterara gara konbentzituta kongresuak onartutakoa denok onartutakoa dela eta denok errespetatuko dugula. Horrek asko errazten du nire lana, ze denok baikoaz ildo berean, eta ez dut egon behar egun batean bai eta hurrengoan ere bai, suak itzungen. Orain EAren mezua bakarra eta argiagoa da, nahiz eta nik ez esan ezer ezberdinik Unai Ziarretak esaten zuenaren aldean.

Diozue Hamaikabatek iraungitze data duela.

Bai, bai, bai. Esaterako, hor dago ondare-zergarekin gertatu dena. Joan den urtean, sozietateen zerga lantzen ibili zirenean, Pello Gonzalez Ogasuneko diputatuak EAren batzar nazionalaren aurrean azaldu zuen ondare-zergari eutsi egin behar zitzaio-

la, aurrerakoia zelako... Kendu egin dute jada, EAJk eta PSE-EEk hala gura zutelako, eta Hamaikabatek ez du txintik esan. 2011n batera aurkeztuko dira EAJ eta Hamaikabat. Baina ze indar dauka Hamaikabatek kargu publiko ez gain?

Debagoienean zein da egoera: zatiketaren ostean, non daude militante eta zinegotzi gehienak?

Oro har, militante gehienek EA jarraitzen dute. Oso gutxi pasatu dira bestera Euskal Herrian, eta Debagoienean ere hala da. Zinegotziei dagokionez, Arrasate, Aretxabaleta eta Bergarakoak geratu gara EA; Oñati, Eskoriatza eta Elgetakoak Hamaikabatera pasatu dira.

Zer balorazio egiten duzu Patxi Lopezen Jaur-laritzaz?

Esan dudan moduan, lehen, identitatearen kontua ez zen garrantzitsua eta, orain, horri ematen diote lehentasuna. Bestalde, ekonomia kontuetan Madriler begira daude uneoro. Han markatzen dituzte lehentasunak eta hori txarra da guretako, Madriler begira egon beharrik ez daukagulako. Guk Europara begiratu behar dugu. Pedro Luis Uriarte Innobasqueko burua izan zena erretiratuta zegoen, baina kargua hartu zuen Ibarretxeren garaian konpromiso batzuekin. Orain, kargua laga du, konpromiso horiei ez dielako eutsi gura Lopezek. Berrikuntzaren kontuak Madriler markatzen ditu orain. Hori ez da ona. Lopez da Espainiako Gobernuaren benetako ordezkaria Euskadin. Eta, gero, bestalde, PP dauka bizkarrean etengabe.

Luze iraungo du PPren eta PSE-EEren arteko akordioak?

Gutxienez, 2011ra arte. Izan ere, PSE-EEren hurrengo jomuga dira foru aldundiak eta horretarako beharrezkoa du PPren laguntza. Jakina, PSE-EEk gidatu gura ditu foru aldundiak eta horregatik ez du gura Araban zentsura moziarik EAJ kargurik kendu eta PP jartzeko. Azken hauteskundeetan, Araban, PSE-EEk irabazi dio PPri eta sozialistei ez datorkie ondo PPri ematea boterea Araban. Hala ere, jakin badakigu sozialista batzuk ez

daudela gustura PPkoekin eta gurago dutela akordioak egitea EAJkoekin.

Eta EAJk eta Hamaikabatek osatutako Gipuzkoako foru gobernua zelan dihardu?

Lehenbizi, esan gura dut ez zaigula batere ondo iruditu EAJk izan duen jokabidea EAko karguak Hamaikabatera joan ostean. Batzarkide eta diputatu iheslariak onartu ditu, iheslarien kontrako itun bat sinatuta eduki arren. Osterantzean, Gipuzkoako Foru Aldundian, sozialistekin lehentasuneko harremana izan gura du EAJk, batez ere aurrekontuen harira, eta Hamaikabat dago atzetik, ez dauka nor-tasunik. Esan daiteke EAJ dagoela bakarrik gobernatzen Foru Aldundian.

Arrasateko Udal Gobernu zelan dabil?

Motel. Berez da motela udal-letzeko funtzionamendua. Horri gehitzen badiogu egoera ekonomiko txarra eta giro politikoa, behin eta berriro zapuztu guran dabilzala kanpotik Udal Gobernuaren lana... kontuak aterara! Gainera, Udal Gobernuak askorekin ondo geratu gura izateak are eta gehiago moteltzen du Udalaren jarduna.

Ze jarrera izan du orain arte EAk Arrasateko Udalean?

Azkeneko urte bietan onartu dugu aurrekontua, erreal samarra iruditzen zitzaigulako. Orain, ikusten dugu arazo larri bat Arrasaten eta da mugikortasunarena. Inguruko herririk okerrera da trafikoari dagokionez. Eta, esaterako, datorren urterako konpromiso bat eskatu diot Udal Gobernuari urbano zerbitzua hobetzeko eta mugikortasunaren kontua modu globalean aztertzeko, baina erantzunaren zain nago. Garraio publikoa bultzatu behar dugu serio eta jendeak jakin behar du herri barrura hurbiltzeko garraio publiko erabili behar duela edo, bestela, autoa aparkaleku publikoetan utzi eta ordaindu behar duela, espaloietan-eta apartatu barik. Bestalde, datorren urteko aurrekontua ez digute aurkeztu oraindik eta gure onarpena gura badute, mugikortasunaren arazori irtenbideak aurkeztu beharko dizkigute.

Estatutuak 30 urte bete berri ditu. Ze iritzi daukazu joan den domekan Jaur-laritzak antolatutako ekitaldiaren inguruan?

Alderdi sozialistak zerbait egiteko beharra zeukan... Bestalde, diote Gernikako Autonomia Estatutua dela, orain arte, demokrazian, alderdion arteko adostasun mailarik zabalena lortu duena. Eta Estatutua urtero-urte-

ro ospatu beharrekoa dela. Kurioso da: aurreko agintaldi osoan, Patxi Lopez ibili zen esaten identitatearen kontuak ez zeukala garrantzirik, hiritarren ongizatea zela lehentasuna. Orain ikusten dugu kontrakoa.

Ez dago zer ospatzerik, hortaz?

Bada, ez! Estatutua, erreminta moduan, ona izan da, aurrerapauso handiak sorrarazi dizkio

HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK

"Azken urteetan alderdian izan ditugun barruko liskarren ondorioz, jende asko urruntzen joan da"

AZKEN KONGRESUA

"Alderdia indartuta ater da, ikusten delako bat garelako; orain, EAren mezua bakarra eta argiagoa da"

HAMAIKABAT

"Ze indar dauka Hamaikabatek kargu publikoek gain? 2011n batera aurkeztuko dira EAJ eta Hamaikabat"

EAJ

"Batzarkide eta diputatu iheslariak onartu ditu EAJk, iheslarien kontrako itun bat sinatuta eduki arren"



zabalik

Oskar Elizburu

Irisgarritasuna?

Herritar guztion irisgarritasuna dela, autoen abiadura handiegia izaten dela; gure herriak zebrabide altuz eta, horien ezean, gomazko bandaz josita ditugu. Badakit abiadura moteltzeko eraginkorrak direna (beharko gutxitu abiadura, autoa bertan apurtzerik gura ez badugu!). Helburua istripu kopurua jaistea eta gurpildunei (aulkidunei, ume txikien karradunei...) irisgarritasuna hobetzea da; honaino denok ados.

Dena dela, zebrabide horiek guztiak jartzerakoan, nahi den onura lortzeko beste batzuei traba jartzen ote zaien hausnartu al da?

Gerriko eta bizkarrezurreko gaixotasunak hain ohiko ditugun garai honetan, zenbat jenderi egiten ari zaio kalte? Zenbat dira, oztopo horiek direla eta, kotxea erabiltzeko moduan ez direnak?

Gaur egun 3 motatako zebrabideak ditugu gure herrietan:

a) Zebrabide altueradun egoikiak; igarotzeko metro edo metro eta erdi luze inguruko ranpadunak (poliki pasatu behar da, baina ez dute autoan kolpe handirik jotzen).

b) Zebrabide altueradun desegokiak; igarotzeko metro erdi edo gutxiagoko ranpadunak (ia gertatu beharra dago demaseko kolpea jotzen diotelako autoari, eta gidariaren gerriari!).

c) Zebrabide baxuak, goma bandekin aurretik eta atzetik. (Hauek ere kolpe sikua jotzen diote autoari eta, gainera, motzak izatean, autoak salto bikoitza egiten du).

Onura ekarri eta kalterik ez dakarten bakarrak lehenbizikokak direla argi daukat neuk eta, hainbat laguni kalte egiten dieten neurrian, beste bi motatakoak aldatzea da eskatzen dudana.

Badakit egun batetik bestera ezingo dela egin, baina irisgarritasuna denondako aldarrikatu beharra dago.

"Zebrabideak jartzerakoan nahi den onura lortzeko beste batzuei traba jartzen ote zaien hausnartu al da?"

usteak uste

Arritxu Barruso

Zorionak, Aramaioko Udalarari

Kontseiluak Hego Euskal Herriko ehunetik gora udalen hizkuntza politika neurtu du eta Aramaioko Udala bederatzigarren postuan geratu da; 9,10eko nota lortu du. Eskolan bikain bat izaten zen hori; notarik altuena. Otsailean, ordea, albiste txarra jaso zuten, kalean egindako neurketak zioen euskararen erabilerak behera egin duela nabarmen Aramaion. Beti esan da administrazioek eredu izan behar dutela; kasu honetan, badirudi Udala eredu bikaina dela. Zorionak!

marrazkiz

Unai Buturia



blog-top

Errefuxiatu klimatikoak

Garbiñe Ubeda
www.berria.info/blogak/begia

Ez dute estatus berezirik, ez lege babesik, ez koadro juridikorik, ezta defnizio zehatzik ere, galdetzen hasita. Baina izan badira, dagoeneko gehiegi, oraino krisi klimatiko larrienak heldu gabeak baldin badira ere.

Adituek esana baita, populazio akomodatuak basterik ez dute lurralde afektatua atzean uzteko gaitasuna. Pobreek, horretarako ere pobre, bertan egiten diote aurre datorkienari.

Berrogei bat urte barru milioika izango omen dira bizitokia eta bizimoldea behin betirako atzean utzita aldatu beharko direnak. Berotze globalak areagotuko dituen urakan nahiz uholdeek, desertizazioak, izotzen urteak, itsas mailaren igoerak eta enparauek lur eremu zabalak akitu edo urperatuko dituztelako. (...)

CO2ren murrizketaz gainera, plan estrategiko zehatzagoak, tokian tokiko

konpromiso arduratsuegoak, zifra global burutsuegoak behar genituzke usaindu Kopenhageko goi bilera klimatikoaren atariko honetan. (...)

Portero ala jokalaria

Elena Laka
www.eibar.org/blogak/elena

Semeak ikasbide berria dauka: Atzo afalorduan Oierrek ikaskide berria zeukatela kontatu zigun.

-Lagun berri bat etorri da gure gelara. Jonathan dauka izena.

-Ah, lagun berria, ze ondo! Eta nondik etorri da? (nagusiak pentsatzen du ikasturtea hasita datorren Jonathan bat kanpotik etorriko zela, umeei atentzioa emango ziela, edo auskalo)

-Nondik etorri den? Hori ez dotsagu galdetu. Galdetu dotsagu: zuk zer izan nahi dozu portero ala jokalarixa? Eta berak esan dau: "yo, jugador". Eta futboleant jolasten hasi gara, eta ez dotsagu eze be gehixago galdetu.

koplak

Xabier Igoa

Pepe

Tranpa eginik hasi karrera ta aldatz bat tente-tente ta aldatz hori igo ezinik aurkitzen da orain PePe!

Madrilgo kutxan ezin / konpondu botere hori tarteko, lepo gainean daukaten kutxa konponduz gero hobeto!

Gürtel kasua eta trajeak diru pila baten truke. Baina gorbata oraingo / hontan larreiko estutu dute!

Txapapotea ere aspaldi izan zuten hauek fraude, baina oraindik ere guztiak kakaz leporaino daude!

Genovan duten sede / horretan daude hainbeste agindu jada bertatik kaioak ere aspaldi alde egin du!

Aldatza gora aldatza behera lehen egin naiz konfunditu aldatzean behera doa Pepe eta ezin da gelditu!

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailletako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Ixaso Bereizbar, Aintzane Muruamendiarrak **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Argutxane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaeta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaeta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaeta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria


LAGUNTZAILEAK

Eusko
JaurlaritzaGipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiko
UdalaAretxabaletako
UdalaEskoriatzako
UdalaAntzuolako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagako
Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



75 dendatik eta 200 produktutik gora.
merkatua.net Debagoieneko denda handiena. Etiket bertatik eskura.

 **MERKATUA.net** Debagoieneko denda



Aupa, 'Gontxa'!

Karlos Rodriguez
Arrasate

Mikel Gonzalez mondragoetarrak, nire herrikideak, luzatu egin du Realarekin zeukan kontratua. Ezustekorik ezean, gutxienez, 2013. urtera arte egongo da Realean. Eta lehena-go badoa Realetik, izan dadila fitxatu duelako talde handi batek eta Realari utzi diolako dirua salmentagatik.

Poztekoa da *Gontxa*-k Realean segituko duela jakitea. Batez ere, Realeko atzelaririk onena delako eta taldeko onenarikoa. Beti ematen du dena eta hainbat postutan joka dezake atzean: erdian edo hegaltietan. Eta, poztekoa da, era berean, nire herrikoa delako eta ez litzaidakeelako gustatuko beste talde batera joatea datorren urtean, Realarekin oraingo kontratua amaitu ostean; izan ere, galduko genuke jokalaria on bat eta ez genuke ezer irabaziko trukean. Eta galduko genuke pertsona on eta zintzo bat. Orain dela gutxi galdu dugu Zerio donostiarra. Probintziakoengatik izango ez balitz! Hor ditugu

Arantzabal, Rearte edota Aranbururen adibideak, bi debagoiendar eta urolar bat... Poztekoa da, hortaz, ikustea Zerio edo Castilok (gertueneko harrobiko bi jokalariren adibidea ipintzearen) erakutsitako jarrera ez duela erakutsi gure *Gontxa*-k. Haiek Bilbora joan ziren gehiago irabaztearren.

Gontxa-k ere izan du aukera Bilbora edo beste norabait joateko, gehiago irabazita. Baina zertarako? Hemen ere orain baino gehiago irabaziko du, izango da taldeko jokalaria garrantzitsuenetakoa, maitatua, errespetatua. Hori espero dut, behintzat, Anoelako zaleak ez dira-eta munduko onenak euren jokalariei animuak ematerakoan.

Beno, zorionak *Gontxa*, kontratua luzatu duzulako zure talde maitatuarekin eta gustura geratu zarelako eskaini dizutenarekin. Eta zoriontsuak gu, Realeko zaleak, *Gontxa*-k gurekin jarraituko duelako.

Orain dela gutxira arte, bere Kadet Opelean joaten zen entrenatzerara Zubietara *Gontxa*. Horrek erakusten du estimatzen eta baloratzen dituela

benetan merezi duten gauzak, materialen gaintik: konpromisoa, elkarlana, lagunak, apal izatea...

Gora, *Gontxa* eta gora, Real! Aurten bai gora, lehen mailara, merezi duen tokira!

Ze iraultza?

Jon Otero Urribarren
Arrasate

Isilik, lo, da herria. Daramagu 40 urte telebista etxe guzti guztietan sartu zela. Irratiarena antzinakoa da eta CD edo diskoa, eta orain mp4-a, txoko guztietan daude: etxeetan, diskotekan, tabernetan, tailer askotan eta fondoko musika moduan.

Gaur egun, orain dela 40 urtekoa konparatuz gero, jende askoz gutxiago ateratzen da kalera, denbora pasara lagunekin. Herri giroa nahastu dugu ahots elektronikoa giroarekin. Isiltasunari beldurra? Ez dut uste gailu horiek gabeko tabernetan gutxiago hitz egin edo kantatuko denik. Martxa? Herriak du martxa bere bihotzean, ez elektronikak. Inposatu egiten zaigu ahots

elektronikoa, beti dago norbait nahi duena hura, eta guk ezin diogu ukatu. Lau gailu hauen oinarria edo funtsa kaltegarria da. Eta abusatzen denez, are gehiago. Erljioaz idaztea bezala da lau gailu hauen aurka azalpenak ematea. Ez da abusatuta behar, eta herria ez da kontrolatzen.

Egunean hiru ordu eta erdi kontsumitzen da telebista. Sedentario bihurtzen gaitu horrek, morboa da hau. Eta herri sedentario eta morboak ukitutakoa ez da osasuntsua. Horrela daramagu 40 urte, erabateko lana zer den jakin gabe. Giro artifizialak ahuleria psikikoa dakar eta hori herriarendako ez da ona.

Iraultza da bide bakarra. Zure osasuna axola zaidalako niri, eta ni ere mendekoa naizelako behar da iraultza. Ez dakit noiz egingo den, baina lau gailu hauek merkatutik desagertu eta debekatu behar dira. Herriaren osasuna axola zaigulako denoi.

Isiltasuna, herri giroa, saltsa, nortasuna, identitatea ez doaz bizio elektronikoaekin. 40 urte eta gehiagoko gizakiaren hanka sartzea. Gizadia lo da! Kontuz!

Non aparkatu!

Maite Arantzabal
Bergara

Udalen joera da herri barruetan oinezkoek izatea gero eta protagonismo handiagoa, lehentasuna auto eta bestelako ibilgailuen aurrean. Iruditzen zait ondo: gero eta oinezkoendako gune gehiago egon behar dira eta ibilgailuak atera behar dira herrikanpora. Hori oso polita da eta badauzka bere alde onak: herrietako alde zahar historikoak duintzea eta dotoretzea, esaterako. Baina oztopo asko sortzen ditu, batez ere ez bada ondo egiten mugikortasunaren planifikazioa.

Tapia Mugikortasuneko diputatuak esan zuen garraio publikoa bultzatu behar dutela Debagoienean. Zerbait behar dugu. Udalek ere egin beharko dute zerbait, dagokien neurrian. Izan ere, Bergaran, esaterako, non demontre aparka daiteke? Lurrazpiko aparkaleku publikoa ipin dezatela, sikiera, ordainduzkoa. Hala lekua izango dugu, behintzat, ordaindu nahi dugunok.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Berriz ere.

GOIENKARIA da hedabide irakurriena Debagoienean, berriz ere. CIESen 2009ko lehen neurketak horixe dio. Zuk eta beste 36.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero. Gipuzkoa osoan, 44.000 lagunek. Eskerrik asko irakurleoi eta publizitatea jartzen duzuen guztioi.

GOIENKARIA: 36.000 irakurle

El Diario Vasco: 21.000 irakurle

Gara: 4.000 irakurle

Noticias de Gipuzkoa: 3.000 irakurle

Berria: 2.000 irakurle

El País: 2.000 irakurle

Marca: 1.000 irakurle

Goienkaria

Herriak

Arrasate > 14-18 Bergara > 19-23 Aretxabaleta > 24-26 Oñati > 27
Eskoriatza > 28-29 Antzuola > 30 Elgeta > 31 Aramaio > 32 Gatzaga > 33



> **ARRASATE**
Hobekuntzak izango ditu herri busak; geltokietan, adibidez > 14



> **OÑATI**
San Martin egoitzako beheko solairu berritua zabalik dago > 27



> **ESKORIATZA**
Azaroaren 28an etorriko dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots > 29



> **ELGETA**
Kultura etxearen atzealdean aparkalekua egingo dute > 31

ARRASATE > HERRITARRAK

"Arrasateretikiko oso mundu desberdina da hau, baina polita da"

BIZILEKU ETA BIZIMODU

Nagore Etxebarriarteun arrasatearrak lau urte darama Arabako Errioxako upategi baten

BAILARAREKIN HARREMANA

Eguenero etortzen dira ardoa ekartzera, eta hemengo jende asko joaten da bisita antolatuan

AITZIBER ARANBURUZABALA-
LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Debagoienarra eta emakumezkoa izan, eta Arabako Errioxako upategi baten arduradun bukatzea ezohikoa da, nahiz eta bigarren zatia zalantzan jartzen duen istorio honetako protagonistak, Nagore Etxebarriarteun arrasatearrak ("Ez pentsa, gero eta emakume gehiago gabiltza sektore honetan"). Hark baldintza biak betetzen ditu. Lau urte darama Arabako Errioxako Paganos herriko Garcia de Olano upategian bizi izaten, haren jabe diren hiru anaietako batekin ezkondua eta administrazio lanetan.

Paganosek 40 biztanle inguru ditu eta bizimodua Arrasatekoarekiko oso-oso desberdina da: familia guztiak bizi dira ardogintzatik, batzuek ardoa ekoizten eta beste batzuek, mahatsa. Aldaketa hori "hasieran gogorra" egin zitzaioela esan du Nagore Etxebarriarteunek, Arrasate Irratiak egindako elkarrizketan: "Hasieran, ez nekien ia-ia ardoa zer zen ere!", onartzen du. Apurka-apurka moldatzen joan zen, Enologia ikasketak egin zituen eta, gaur egun, aditu peto-petoa da. Orain,

pozik dabil: "Mundu polita da", esaten du.

UZTA ONA

Orain dela bi bat aste batu zuten mahatsa Garcia de Olanon. "Uzta ona izan da. 125.000 kilo inguru batzen ditugu", esaten du Etxebarriarteunek. Horretan ibili ziren sasoiak 12 langile.

Adituaren jakintza eta naturaltasunez azaldu ditu Etxebarriarteunek Arrasate Irratian aurtengo uztaren nondik norakoak: "Irail hasieran, beldur ginen, uda bero eta ur bakoa egin zuelako eta mahatsa beltz eta graduazio txikikoa, hau da, azukre gutxikoa zelako. Baina orduan euria egin zuen, gero berriz beroa, eta mahatsak graduazio ona lortu zuen".

Behin mahatsa batuta, upategi bakoitzak bere moduak ditu. Garcia de Olanon, beratzeko karbonikoa izeneko prozesua jarraitzen dute: "Mahatsa bere makilatxo eta guzti sartzen da edukiontzian, bete arte; 25-28 graduko tenperatura lortzen duenean, ontzen hasten da: ardoak berez azkarria edo altxagarria dauka, CO2 ateratzen da eta horrek azu-



Nagore Etxebarriarteun, upategiko ardoak eta irabazitako sariak erakusten.

GOIENKARIA

ESANAK

"Hasieran, gogorra egin zitzaidan, baina moldatu egin nintzen, Enologia ikasi nuen..."

"Denetariko jendea etortzen zaigu bisitan; gazteak, gero eta gehiago"

Nagore Etxebarriarteun

krea alkohol bihurtzen du". Hasieran muztioa lortzen da eta bigarren ontze batekin, ardoa.

Horrenbestez, "abenduan dasta daiteke gure lehen ardoa", dio Nagore Etxebarriarteunek. "Dena dela, gure beratzeko ardoak apur bat gogorak dira, eta martxora arte ez gara hasten urteko ardo berria ateratzen". Hori lortu arte, eguneroko azterketa eta zainketa lana dago.

BISITA GIDATUAK

Bisita asko hartzen dituztela dio arrasatearrak: "Datozen taldeei upategia eta prozesua erakusten diegu, dastatzea eskaintzen diegu,

jateko zerbaite, eta hemen bazkalatzen dute. Denetariko jendea dator; gazteak, gero eta gehiago. Familiak eta despedidak ere bai". Haren gomendioa da udaberrian joatea, orduan dago-eta erakusteko gauza gehiago; udazkenean, lurpeko upategira ez dituzte eramaten bisitak, CO2 asko dagoelako.

Eurak ere Debagoienara eguenero etortzen dira ardoa ekartzera: "Arrasaten eta Aretxabaletan bezero asko ditugu", esaten du Nagore Etxebarriarteunek.

Arrasate Irratiko elkarrizketa entzuteko: goiena.net/arrasate/albisteak/garcia-de-olano-upategian-arrasatearra-lanean.



Garcia de Olano upategia, Paganosen.

GOIENKARIA



Upelen biltegiak 300 m2 ditu eta 1.000 upel har ditzake.

GOIENKARIA



Biltegien sotoak 800.000 litro har ditzake.

GOIENKARIA

ZERBITZUAK > BERRITASUNAK

Geltoki berriak izango ditu herriko autobus urbanoak

Herrian sortu diren bizitoki berrietatik ere pasako da herri barruko autobusa

Bestalde, urbanoaren ordutegiak iragartzeko zutabe berriak ipiniko dituzte geltokietan

UBANE MADERA > ARRASATE

Urteen eta, bereziki, obren eraginez Arrasate aldatzen joan den neurrian, herriko zerbitzuak ere badoaz egokitzen errealitate berrira. Arrasate barruko urbanoak, adibidez, laster ibilbide eta geraleku berriak estreinatuko ditu, nahiz eta oraindik datak zehaztu barik izan.

ZABALGUNEAN ETA GARAIAIN

Zabalgunean (Gelman), adibidez, dagoeneko ipini dute geraleku berri bat, markesina eta guzti. Urbanoa oraindik ez da handik pasatzen, baina aurreikusita dago Zabalgunea urbanoaren ibilbide berriaren barruan sartzea.

Bestalde, Legarreko geralekua ere lekuz aldatuko dute eta, seguru asko, orain dagoenaren parean ipiniko dute berria, baina oraindik zehazteko dute behin betiko kokalekua.

Eta, besteak beste, Udalak aurreikusita dauka, baita ere, Garaia inguruari zerbitzua ema-



Zabalgunean (Gelman) ipini dute autobus geralekua, markesina eta guzti; oraindik, baina, autobusa ez da handik pasatzen. U.M.

DOMU SANTURAKO ZERBITZU BEREZIAK

Urriaren 31ko eta azaroaren 1eko zerbitzuak

Bihar eta etzi (zapatu eta domeka), ezohiko ibilbide eta ordutegia izango du herri barruko autobus urbanoak. Domu Santu eguna dela-eta, San Kristobal hilerrira joan-etorria egiteko zerbitzu bereziak ipini ditu Udalak datozen bi egunotarako.

Biharkoari dagokionez, 10:00etan aterako da lehen autobusa Gorostizatik eta 18:00etan azkena. Ibilbidea honako hau da: Gorostiza-Erguin-Arimazubi (Bolintxo)-San Andres-Garibai-Maala-San Frantzisko biribilgunea-Legarre-Musakola-Joan Bengoa-Santa Teresa-Agarre-Obenerreka-Makatzena-hilerrira. Beheranzko ibilbidea gorakoaren alderantzizkoa izango da. Geraleku batetik bestera bost minutu inguruko aldea izango du eta autobusa orduro pasako da: hilerrira igotzeko puntuan eta jaisteko, erdian.

Domu Santu egunari berari dagokionez, berriz, 10:00etan hasiko da urbano zerbitzua, eta zapatuan baino maiztasun handiagoa izango du: ordu erdiro aterako da. Hilerrira igotzeko azkeneko zerbitzua 18:30ean aterako da, Gorostizatik; jaisteko azkeneko autobusa, berriz, 19:00etan da. Ibilbideari dagokionez, zapatuko ibilbide bera egingo du domekan.

teko handik pasaraztea autobus urbanoa; kasu horretan zehazteko dutena da zein ibilbide egingo duen urbanoak inguru hartaraino iristeko.

Autobus urbanoaren gaineko txostena egiten dihardute eta hortxe finkatuko dituzte urbanoaren zerbitzu eta ibilbide berriak.

INFORMAZIO ZUTABE BERRIAK

Horrez gainera, aurten ere berri-tingo egingo dituzte hainbat geralekutan dauden informazio zutabeak; urbanoaren ordutegia-eta dakarten zutabeak, alegia. Hala-ko hamar berri erosi ditu Udalak. Adibidez, Garibai etorbideko geralekuan ipiniko dute zutabe berri horietako bat.

OSPAKIZUNAK

Ikastolaren Eguna gaur eta bihar, Ferixalekuan

U.M. > ARRASATE

Bihar, zapatua, egingo ditu Arizmendik Ikastolaren Egune-ko ekitaldi gehienak, *Aisia buruan, ibili munduan* leloarekin. Hori baino lehen, baina, gaurko, egubakoitzerako, gaueko krosa antolatu dute lehenengo aldiz. 20:30ean Ferixalekutik atera eta bukatuko da krosa, zazpi kilometro egin ostean. Izena gaur ere eman daiteke, 10 euroan.

Biharko ekitaldiak, berriz, Ferixalekuan egingo dituzte. 11:00etan egingo diote ongietorria Argitxori, eta gero ikasleek ikuskizunak egingo dituzte; tailerrak eta puzgarriak izango dira eta antzerki saioa (12:00). Galizia, Andaluzia, Extremadura eta Euskal Herriko jaki eta edaridun txosnak ere ipiniko dituzte. Hori guztia, 14:00ak arte.

oharrak

KINTOAK

> 1955ean jaiotakoak

Azaroaren 28rako egin dute hitzordua 1955an jaiotakoendako. Baster-Alden bazkaria egitekotan geratu dira. Iragarri dute, gainera, autobusa izango dela hara joateko. Izena emateko azkeneko eguna da azaroaren 25a. 60 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako honako kontu korrontean: 3035 0202 75 2021035610.



U.M.

Oraindik ezin da estreinatu

Arrasateko neska-mutiko askoren begiradak Zerrajera-gunean eraikitzen dabilzan jolasparke berrian daude dagoeneko, zaburuak ipini dituzte-eta. Dena den, jolasparkea oraindik ezin da erabili. "Segurtasun zorua ipintzen bukatzea" falta da, eta "erremate lanak", azaldu dute obra-arduradunek; hori horrela, inguru hesituta dago.

GIZARTERATZEA > EMAUS

Bihar, zapatua, inauguratuko dute bigarren eskuko jantzien saltokia, festa handiarekin

'Berrerabiliz apaindu' izenarekin, hainbat ekitaldi antolatu dituzte, 10:00etan hasi eta 19:00etan amaituko direnak

U.M. > ARRASATE

Nafarroa etorbidearen 23. zenbakian zabalduko dute bigarren eskuko produktuen saltokia. Arrasateko Udalak emandako laguntza handiari esker, Gipuzkoan duen bosgarren salmenta puntua Arrasaten estreinatuko du Emausek. Eta festa handia iragarri dute estreinaldirako.

ESKAINZA BEREZIAK

10:00etan hasiko da *Berrerabiliz apaindu* inaugurazio festa. Adibidez, "eskaintza garrantzitsuak" eskuratu ahal izango dira festa horretan: "Hiru euroren truke, aukeratutako bost jantzi eraman ahal izango dituzte" saltokira doazenek. Hala azaldu du Marga Garmendiak, Udaleko Enplegu Saileko teknikariak. "Horrez gain, denda berrian 20 euro baino gehiagoko erosketa egiteagatik, *Sindesperdicio* markako berrerabilgarria den poltsa bat oparituko zaie", gaineratu du udal teknikariak.

Baina ekitaldiak ere antolatu dituzte festa horretarako. 11:30ean, esaterako, kontu kontalari batek jardungo du; eta baz-

kaltzeko etenaldiaren ostean, *clown*-en saioa eta etxeko gazte-txoenei zuzendutako lankidetzako jokoak iragarri dituzte (17:00). Bestalde, orokorrean, "egun guztian zehar musika giroa gozatzeko aukera izango da".

IKASLEAK BISITAN

Hori, egunari berari dagokionez. Baina oraingo astean dagoeneko askok izan dute aukera Emausen denda bera eta denda horretan saltzen dituzten produktuen ibilbidea ezagutzeko; bestela esanda, ehunen birziklatzea ikusteko. Izan ere, Bigarren Hezkuntzako Arrasate, Aretxabaleta eta Elgetako ehun ikasletik gora gonbidatu ditu Arrasateko Udalak saltoki berria bisitatzen.

EUSKALGINTZA > TOPAKIDE TXARTELA

Bazkideendako txartela, abantailaduna

Topakide txartelari esker, deskontuak eskuratu ahal izango dituzte euskalgintzako bazkideek

UBANE MADERA > ARRASATE

Hainbat berritasun iritsi dira Arrasateko euskara elkarteetik. Batetik, txartela bidaltzen dihardute Ekin-Emakumeak, Txatxilipurdi eta AED elkarteetako bazkideei: Topakide txartela. Oraingoz, 600 banatu dituzte Arrasaten; beste 200 bidaltzeko dituzte. Posta bidez jasoko dute bazkideek datozen egunotan.

Iragarri dutenez, txartel horrekin beherapenak eskuratuko ditugu euskara elkartearen ekitaldi eta ekimenetan: "Herri bakoitzeko elkarteek aterako dute agenda herri horretan egingo dituzten ekintzekin. Eta bai elkarte horretako kideek zein bestelako euskara elkarteok ere aukera izango dute beherapenak eskuratzeko ekintza horietan. Horrekin batera, baita gainontzeko euskara elkarte guztien ekintzetan ere",

azaldu du Markel Lopez de Bergarak, AEDko bazkideetza kanpainako arduradunak.

Izan ere, Arrasateko euskalgintzako elkarteak izan dira Topakide txartela bazkideen artean banatzen lehenak. Baina datozen hilabeteotan gure ibarreko gainontzeko euskara elkarteek ere banatuko dituzte halakoak; izan ere, Topaguneak, euskara elkarteak batzen dituen EAEko erakundeak bideratutako ekimena da Topakide txartela.

Zelako beherapenak eskura daitezkeen kontsultatzeko, berriz, honako webgunearen agenda atalean azalduko da informazioa: www.topagunea.com.

BAZKIDE KANPAINA, LASTER

Euskalgintzarekin lotutako beste berritasunetako bat da euren aldizkaria ATEA euskarri digi-



Itxaro Artola, AEDko idazkaria, bazkide txartela erakusten.

U.M.

DATUA

800

BAZKIDE

Orain 800 bazkide dituzte AED, Txatxilipurdi eta Ekin-Emakumeak elkarteek. Oso kopuru handia da hori: "Bestelako euskara elkarteetara begiratuta, kopuru handienetakoa dugu", azaldu du AEDk.

talean bidaltzen hasiko zaizkielela bazkideei. Haien datuak eguneratzen dabilta orain.

Eta azkenik, iragarri dute datozen hilabeteotan bazkide kanpaina abiarazi behar dutela: "Gura dugu apur bat gure elkarteari gaztetasuna eman, aspaldi ez dugulako egin bazkideetza kanpainarik (orain 11 urte); gura dugu herriko jendea gureganatu eta bazkide berriak sortu", azaldu du Lopez de Bergarak.

> DOKUMENTALA

Hausnarketa, emakumeen kontrako biolentziaren harira

Mundu osoko, kultura askotariko eta gizarte maila guztietako emakumeek gizonengandik jasaten duten biolentzia emango dute egunean, azaroaren 5ean, Kulturateko areto nagusian, 17:00etan. *Amazonas, mujeres indomables* da izenburua, 43 minutu ditu eta Emakume Txokoak ekarriko du Arrasatera. "Oso interesgarria da, bai dokumentala bera, baita dokumentalaren egilea ere. Inor ez da trankil geratuko dokumentala ikusi eta gero", azpimarratu du Esther Lizarralde, Emakume Txokoko dinamizatzaileak.

> ISTRIPUA

Joan den asteko harrapaketako lekuko beharrean dira

Euskadiko Kutzako biribilgunean joan den astean izandako harrapaketaren lekukoak eskatu dituzte. Autoak harrapatutako bi emakumeen familiek eskatu dituzte lekukoak. Hain zuzen ere, istripu hura ikusi zutenei Udaltzaingoarekin harremanetan ipintzeko eskatu gura diete (943 79 14 39).



ELKARLAGUNTZAKO ELKARTEA
Sociedad de Socorros Mutuos

www.sanfelipeapostol.com
fsanfelipe@telefonica.net

Gipuzkoa etorbidea 33 behea
Tel.: 943 79 16 82
Tel./Faxa: 943 77 30 22

ARDURADUNAK
Alberto Ojanguren Ugarte
Kontxi Bedia Madinabeitia

1. ERAKUNDEA SAN FELIPE APOSTOL etekinak lortzeko asmorik ez duen eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Segurantzaren eta Lan Departamentuko Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzaren izena emanda duen elkarte bat da, **1.898ko apirilaren 13an sortu zen eta 12.950 bazkide ditu.**

2. Eskaintako prestazioak

San Felipe Apostol elkarteak hildako bazkideari honoko gastu hauetan lagunduko dio:

- **Espaniako Estatu barruan** egin beharreko leku aldaketak; hau da, hileta gertatzen den tokitik hildakoa bizi zen edo erroldatua zegoen herrira eramatea
- Hildakoari lur emateko arka.
- Herrian zehar eskelak jartzea.
- Auzitegian egin beharrekoak. Medikuziurtagiria.
- Hildakoen jantze lanak.
- Auzitegian egin beharrekoak. Medikuziurtagiria
- **600 euroko diru-laguntza**, hildako bakoitzagatik

3. SARRERAKO KUOTAK

40 urtera arte sarrera doan	
41 etik 45 urtera arte	105 €
46 etik 50 urtera arte	160 €
51 etik 55 urtera arte	265 €
56 etik 60 urtera arte	370 €
61 etik 65 urtera arte	525 €
66 etik 70 urtera arte	840 €
70 urtetik gorakoak	1.260 €

4. URTEKO KUOTAK

Titularrak:	23 €
Ezkontideak:	23 €
Onuradunak:	11 €



SAN FELIPEKO ZUZENDARI BATZORDEA:

Eserita daudenak eta ezkerretik hasita: Joshe Elorza (idazkaria), Jesús Mari Heriz (Presidentea), Santiago Garai (Diruzaina), Iñaki Urrutia (Bokala). **Zutik ezkerretik eskumara:** Fernando San Miguel (Presidenteordea), Luis Iñarra (Bokala), Koldo Arnaiz (Bokala), Jose Felix Garcia (Bokala), Alberto Ojanguren (Maiorala). **Azaltzen ez direnak:** Enrike Dolara eta Roberto Bolinaga

**INFORMATU
ETA EGIN
BAZKIDE**

MUSIKA > ABESBATZA

Goikobaluren urteurren ospakizunak

Gaur, egubakoitza, Zarauz Txiki abesbatzak kontzertua eskainiko du, 20:00etan hasita

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
Goikobalu abesbatza ospakizunetan murgilduta dabil. Aurten 20. urteurrena bete du Goikobaluk; eta Goikobalu Txikik, 15. urteu-

rrena. Horren harira, hainbat kontzertu antolatu dituzte. Joan den egubakoitzean izan zuten lehenengo ekitaldia: Hungariako abesbatza bat izan zen gurean.

Gaur, Zarauzko Zarauz Txiki abesbatzaren emanaldiak eman go die jarraipena ospakizunei. Kontzertua San Juan Bataiatzailea parrokiaren izango da, 20:00etan.

IBARREKO ABESLARIAK

Debagoieneko abeslariak ere izango dute tartea. Oñatiko Ganbara Gazte abesbatzak, esaterako, azaroaren 6an egingo du emanaldia. Ospakizunak amaitzeko, Goikobaluko talde guztiek kontzertua emango dute azaroaren 20an. Esan behar da Jagoba Astiazaran zestoar gazteak konposatutako *Bi begirada, zeru bat* kantua estreinatuko dutela, talde guztien parte-hartzearekin.

ERAKUSKETA HARRESI ARETOAN

Iturriotz kaleko Harresi aretoan Goikobaluk bere ibilbideari buruzko erakusketa antolatu du.

Egitaraua

Urriak 30, egubakoitza

20:00 Zarauz Txiki abesbatzak eskainiko du kontzertua San Juan Bataiatzailea elizan.

Azaroak 6, egubakoitza

20:00 Ganbara Gazte abesbatza San Juan Bataiatzailea elizan.

Azaroak 14, zapatua

20:00 Errenteriako Orereta abesbatza San Juan Bataiatzailearen elizan.

Azaroak 20, egubakoitza

20:00 Goikobalu abesbatza San Juan Bataiatzailea elizan.

Erakusketa egubakoitz eta zapatuetan zabalduko dute, azaroaren 20ra arte. Aretoko ateak 18:00etatik 20:00etara zabalduko dituzte ikusleendako.

bere ustez



Nerea Makazaga

Aterkiaz bi aldekoak

Gure etxeak bazituen bi katu. Bata gau beltzkoa, ikatza bezain iluna. Bestea kolore argikoa, aurrekusi zitekeen bizitza ilun baten kontrastatzeko beharrezko tonalitatez jantzia. Gure etxeak bazuen ere aterki berde bat, hiriari falta zaion zelaiaz gogoratzeko, formatu tolesgarria izatearen abantaila guztiekin. Eta lanpara izandako makilari gehitu zitzaion aterki berdea. Aterki berdeari gehitu zitzaion lanparak inoiz zuzendu ez zuen argia eta argiak

"Mikroklima euritsu bat sortuko genuen beldur-edo, aterkia beti izaten zen zabalik"

argitzen zuen beixa, katuairen beixa.

Mikroklima euritsu bat sortuko genuen beldur-edo, aterkia beti izaten zen zabalik eta katu beixa irudi estatiko horretan preso. Eta estatikotasun bera dimentsioaren beste aldera iristen zen, bi katuen begiradak gurutzatzen ziren uneetan. Orduak pasatzen zituen horrela katu beltzak, salako besaulkian zurrun eserita, hipnotizatu balute bezala.

Lehen euriak iritsi ziren egunetan, inork, ezer esan gabe, lanparatik askatu zuen aterkia, eta aterki berdea behin betiko desagertu zen guretik. Orduetik, eta gaur arte, gaez soilik azaltzen dira katuak gurean, biluztu genuen lanpara-argiak sortzen dituen itzalen zurruntasunean.

VICE-PRESIDENTES

'Bloodola' diskoaren doinuak Gure-Lekun

A.E. > ARRASATE

Vice-presidentes talde gasteiztarrek kontzertua eman go du bihar, zapatua, Gure-Lekun, 23:00etan. Gasteiztarrek *Bloodola* diskoa aurkeztuko dute arrasatearren aurrean.

Bloodola lan berezia da taldearentzat, hainbat arrazoi-rengatik: batetik, binilo formatuan egin duten aurreneko lana delako -7 hazbeteko binilo gorria, konkretuki-; eta bestetik, grabazioaren arduraduna Dorbu baxujotzailea izan delako eta entsegu lokalean bertan erregistratu dituelako doinuak. Taldeak bere benetako nortasuna berreskuratu du diskoan: sei abesti hamar minutuan.

GRINDCORE BASATIA

Gasteiztarrek grindcore basatia eta rock-and-rolla nahastea ez dutela ahaztu erakutsi dute, beste behin; gainera, thrash doinu gehiago gehitu dituzte lan horretan.



Diego Lorca eta Pako Merino dira antzezlaneko aktoreak.

GOIENKARIA

ANTZERKIA > 'EXITUS'

Heriotzari buruzko tragikomedia ekarriko dute Titzina Teatroko lagunek Amaia

Domekan izango da antzerkia, 19:30ean, espainolez; sarrerak 10 eurotan daude salgai

A.E. > ARRASATE

Heriotzari buruz jardungo dute Titzina antzerki taldekoek domekan Amaia antzokian. *Exitus* lana ekarriko dute; domekan izango da antzezlan, 19:30ean.

Ehorztetxeko langile bat, lan bila dabilen gizon bat, botika-laborategiko zuzendaria eta abokatu bat dira protagonistak. Laurrek heriotzaren aurrean jarrera ezberdina izango dute; eta horrek

dakarren nahasmenak barrea eragingo du ikusleengan.

TITZINA TEATROA

2001eko abuztuan sortu zuten Titzina antzerki taldea. Orduetik hona, zorakeria eta gerra gaiak landu dituzte; eta, orain, heriotzarekin datoz. Pako Merino eta Diego Lorca dira zuzendariak.



MUSAKOLA HAURRESKOLA

0 eta 2 urte artekoentzako eskola

Matrikulazio epea zabalik

NOIZ: Azaroaren 2tik 13ra.

NON: Arrasateko udalaren Hezkuntza Sailean (Kulturate). 11:00etatik 15:00etara.

Arrasateko Bedoñabe Haurreskolan.

(Alfontso VIII kalea, San Andres auzoa) 11:00etatik 13:00etara.

Harremanetarako zenbakia: 943 25 00 08 (Hezkuntza Saila)



Nuria Rodriguez > E-goitek kirol zerbitzuko kidea

"Pilatesa hastapenetik hasi behar da, oinarritzko ezagupenetatik"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Arrasateko kiroldegian E-goitek enpresa arduratzen da kirol zerbitzua eskaintzeaz, eta bertako kidea da Nuria Rodriguez (Eibar, 1970). Kirol eskaintza zabala dute, baina batez ere pilatesarekin dabiltza buru-belarri, hastapenetik hasi eta goi mailarainoko zerbitzua eskaintzen dute-eta.

Zeintzuk dira jendeak gehien eskatzen dituen kirol jarduerak?

Esango nuke spinningak eta pilatesak dutela arrakasta handien. Spinning saioen helburua kaloriak erretzea da, bizikleta estatikoetan ibiliz hankak indartzea, gehienbat. Pilatesean, berriz, bizkarra lantzen dugu gehien, bizkarra eta gerria. Horrek eusten dio gorputz osoari, eta abdominalak lantzeko ariketak, arnas-keta, luzapenak... denetarik egiten dugu. Horrenbestez, pilatesa eta spinninga tartekatzen dituen ederto dabil! [Barre]

Pilatesarekin, baina, ikastaroak emate hutsetik haratago joan nahi duzue, eskola moduko bat sortuz.

Bai. Pilates barruan hainbat maila daude, eta ez da posible pertsona bat lehenengo egunean pilatesa egiten hastea. Hau da, kome-ni da kirol horren gaineko gutxieneko ezagupen batzuk izatea, eta horregatik daukagu hastapeneko pilatesa, hasierako urratsa dena. Gero, hortik aurrera aurre-rapenak egin daitezke. Eta horrekin batera balorazio pertsonalak ere egiten ditugu.

Balorazio pertsonalak?

Esaterako, ariketa bat egiteko zailtasunak dituen pertsonaren jarraipena egiten dugu, aurre-rapenak egin ditzan.



Nuria Rodriguez, Musakolako kiroldegiko gimnasioetako batean. XABIER URTZELAI

Horrenbestez, bizkarreko mina duen jendearendako aproposa da pilatesa?

Edo eguneroko posturak zuzendu nahi dituenarendako, bizkarra indartu, kirola modu seguruan egin minik hartu gabe... Egia da gurean badaudela bizkarreko arazoak dituztenak, eta arazo asko egunero erabiltzen ditugun postura txarretatik datoz. Hala, batzuek esan digute

"Spinningeko eta pilateseko ikastaroek dute arrakasta handiena"

"Geroago eta garrantzia handiagoa ematen diogu kirolari, baina ez dugu horrenbeste egiten"

igartzen dutela alde; esaterako, masajistarengana horrenbeste joateari utzi diotela, eta poztu egiten dira hori ikusita. Baina inolako minik ez dutenak ere etortzen dira pilatesa egitera, noski.

Oraindik badago izena emate-rik?

Bai, pilatesean 15 laguneko taldeekin egiten dugu lan eta hainbat talde ditugu. Baina goizeko ikastaroetan eta arratsaldean 20:30eko ikastaroan lekua dago oraindik. Ikastaro horietan, baina, hilerio eman daiteke izena.

Ikastaro horiez gain, badira beste aukera batzuk: body pump, body jam, body balance... zer da bakoitza?

Body pump pisua hartuta egiten dugun kirol jarduerak da. Musikaren laguntzarekin gorputzeko atal ezberdinak lantzeko saioa da, eta taldean egiten dugu, modu dibertigarrian

Body balance, berriz, yoga, tai xia eta pilatesa bat eginik sortzen den saio berritzailea da; eta azkenik, body jam dantza ezberdinak lantzen dituen saio berritzailea da. Dantza horien artean daude groove, techno, kardio-funk, hip-hop, tribal house, erritmo latindar eta disko jazz moduko estiloak. Noski, dantza horiek egiten izugarri izerditzen da.

Orokorrean, uste duzu nahiko kirol egiten dugula?

Ez dakit, ba, nahikoa egiten dugun. Bai uste dudana da jendeak geroago eta garrantzi handiagoa ematen diola kirolari, badakigula kirola maiztasunez egitea osasunarekin lotuta dagoela. Baina uste dut orokorrean oraindik ez dugula behar beste kirol egiten, gehiago egin beharko genukeela, alegia.

SASKIBALOIA

Cafes Aitonaren bisita bihar Iturripen

Javi Zurbanok argi dauka MUK ezustekoa emateko gaitasuna duela

X.U. > ARRASATE

Javier Zurbanok irakurtzeko moduko artikulua idatzi du aste barruan Ointxeren webgunean (www.ointxe.com). *Gauza diferentekak I eta II* izenburupean (gazteleraz dago), Arrasateko entrenatzaileak MUREn senior mailako taldearen gaineko hausnarketa egiten du.

Hausnarketa, gaur egungo gazteek dituzten balioen gainean, eta baita kategoria horietan entrenatzaileek izaten dituzten lehentasunen gainean ere. Baina Arrasateko taldeko entrenatzaileak bi gauza ditu argi: gozamina dela jokalaria horiekin lan egitea, eta kategoriari eusteko behar duten fedea errekuperatuko dutela. Bihartik hasita (18:00), Cafes Aitonaren kontra.

> ARETO FUTBOLA

Oraingo asteburuan ez da Zaldibarko jardunaldirik egongo

Aurten Domu Santu eguna domeka bada ere, Zaldibarraren ohitura da zubietan jardunaldirik ez jartzea, eta aurreko urteotan asteburu hau atsedenerako erabili dutenez, aurten ere beste horrenbeste egingo dute. Hala, oraingo asteburuan ez da jardunaldirik egongo.

Bestalde, antolatzaileek ohartarazi nahi dute txapelketan jokatzearren ordaindu beharreko diru kopurua ordaindu ez duenak astebete izango duela horretarako. Hau da, hurrengo jardunaldia baino lehen ordainketak egin da egon beharko du.

XAKEA > ARRASATE HIRIA TORNEOA

Holden Hernandez eta Alejandro Franco aurrez aurre gaur

Txapelketa irabazteko bi hautagaiek elkarren kontra jokatu dute laugarren jardunaldian

X.U. > ARRASATE

Iritsi da Arrasate Hiria torneo-ko zeingehiagoka erakargarria. Erakargarria eta erabakigarria. Gaur, egubakoitza (19:00, Altamira), txapelketako bi faboritoak izango dira aurrez aurre,

Holden Hernandez kubatarra eta Alejandro Franco madrildarra, eta lehian nagusitzen denak aurrerapauso galanta egingo du txapelketa poltsikoratzeko, nahiz eta oraindik beste bi jardunaldi geratuko diren.

Jardunaldiko bigarren taulan lehiatuko dira aurten ezustea eman duen Juan Manuel Ruiz eta nazioarteko maisu Argandoña. Hirugarren taulan Aretxabaletako anaiak izango dira aurrez aurre, Andoni eta Fran Miguel anaiak, alegia. Eta laugarren taulan ere aipatzeko moduko partida jokatu dute Carlos Navak eta David Astasiok.

HIRUGARRENA, SUTSUA

Joan den egubakoitzean ikusle asko izan ziren hirugarren jardunaldia jarraitzen. Hernandez faborito nagusiak maila oneko kontrarioa izan zuen aurrean, FIDE maisu izendatu berri duten David Astasio, baina kubatarra ondo nagusitu zen. Bigarren taulan Alejandro Francok ere ez zuen hutsik egin Alain Prietoren aurre-

an. Eta Argandoñaren eta Navaren partida izan zen interesgarriena, baina, indarrak parean, berdinketa adostu zuten (tablak).

IAMAIAANTZOKIA
ARRASATE

Gaur urriak 30
00:00 etatik aurrera

Mario Simancas



txaloak eta txistuak



Okada, pasabidean.

J.B.

Zikinkeria nagusi Otaloratik Zarugalderako pasabidean



Irakurle batek jakinarazi digu Otalora eta Zarugalde lotzen dituen pasabidea oso zikin egoten dela, batez ere aste bukaeren ostean. Irakurleak dioenez, besteak beste, okadak, txiza arrastoak, txakur-kakak eta kristalak egoten dira bertan. Hala, dioenez, "nazka" ematen du pasabidea zeharkatzeak. Gainera, garbiketa ez dela ondo egiten salatu du inguruan bizi den arrasatearrak.

bote prontuen

Oxel Royo > Biosaski

"Esperientzia moduan ekin nion, 'ea zerbait irteten den' pentsaerarekin"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Produktu ekologikoak etxe etxe banatzea Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Bergaran. Hori izango da Oxel Royok (Arrasate, 1988) martxan jartzean duen Biosaski proiektuak eskainiko duena. Merkatura saltoa eman aurretik, biltegia hobetu eta eskaini gura duen zerbitzuan azken ukituak ematen ari da.

Nola bururatu zitzaizun zure kabuz halako proiektu bati ekitea?

Eraikuntzan goi mailako zikloa amaitu nuenean langabedian geratu nintzen. Hasieran, esperientzia moduan ekin nion Biosaski proiektuari, *ea zerbait irteten den* pentsaerarekin. Baina gutxinaka forma hartzen hasi zen; duela hilabete batzuk hasi nintzen Biosaskirekin eta orain azken ukituak falta dira: biltegi-ko produktuak hobetzea eta zerbitzua osatzea, hain zuzen.



Zer da Biosaski? Zein izango da zure zeinu bereizgarria?

Produktu ekologikoekin egiten dut lan; hau da, pestizida, plagizida, ongari kimiko eta hazi transgenikorik gabe ereindako produktuak dira salduko ditudanak. Produktu osasuntsu eta garbien aldeko apustua da. Etxez etxe egingo dut banaketa, eta, oraingoz, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoria-

tza eta Bergararaino egingo dut banaketa.

Jaso duzu laguntzarik?

Mankomunitateak lagundu dit lokalarekin: hilean 50 euro ordaintzen dut eta bertan dut biltegia. Gazte ekintzaileei ematen zaien 6.000 euroko dirulaguntza ere eskatu diot Jaurilaritzari, baina oraindik ez dut erantzunik jaso.

txutxu-mutxua



IKER ARANBURU



I.A.

Komando Alpagat onena pilota lehian

Komando Alpagat eta Goma2 koadriren arteko pilota *pika* izan zen joan den asteburuan Eltziegoko (Araba) Udal Pilotalekuan. Bigarren urtez elkartu ziren, eta, goiko irudian ikusten denez, ikuslerik ez zen falta izan. Finalean Gorka Zubizarreta eta Jon Lasagabaster lehiatu ziren; Zubizarreta nahiko erraz nagusitu zen -ezkerreko irudian- (22-12). Partiduaren ostean upeltegi batera joan ziren eta iluntze aldera heldu ziren Arrasatera, parranda bertan amaitzeko. Errebantxarako gogoak piztu dira Goma2-koen artean...

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE

arbolapeta



UDALA > OSOKO BILKURA

Ordenantza fiskal gehienek ez dute igoerarik izango 2010ean

Salbuespen batzuk dira ekonomia jardueren eta hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergak

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Ordenantza fiskal gehienek ez dute igoerarik izango 2010ean. Hala erabaki zuen asteleheneko osokoak, Udal Gobernu taldeko, EAJko, Aralarko eta EAKo zinegotzien aldeko 14 botoekin. PSE-EEko bi zinegotziek kontra bozkatu zuten. Salbuespenak izango dira estolderiaren gaineko zerga (%6,3 igoko dute), ekonomia jardueren gaineko zerga (%4) eta hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga (%4). Azken biak, hurrenez hurren, %7,5 eta %17 igotzea aurreikusten zuen Udal Gobernu Taldeak, baina, EAJren proposamena aintzat hartuta, igoera %4 izango da.

Bestalde, 2010erako ordenantza fiskaletan kutzazain automatikoei kobratuko dieten zerga

berria onartu zuten. Hala, fatxadetan dauden kutzazain automatikoenatik 266,40 euro ordaindu beharko dituzte. Bost kutzazain daude egoera horretan Bergaran: Banco Santander Central Hispano (Fraiskozuri 8), Banco Popular Español (Ibargarai 28), Bankoa SA (Ibargarai 3), Kutxa (Mintegi 5), eta Banco Español de Crédito (Irizar pasealekua 2).

KIROLDEGIA ETA PILOTALEKUA

Agorrosingo eta pilotalekuko tasak ez dituzte igoko 2010ean. Dena den, Bergaran erroldatuta ez daudenei edo txartel mankomunatu erabiltzen ez dutenei %50eko errekarua egingo diete kiroldegiko zerbitzuak eta pilotalekua erabiltzeagatik ordaindu beharreko tarifetan.



Fatxadan dauden kutzazainek tasa berria ordaindu beharko dute.

MIREIA BIKUÑA

bere ustez



Maite Plazaola

Globalizazioaren arma ezkutak

Herri bakoitzak bere kultura dauka, bere ohiturak, festa propioak... baita bizitzeko eta bizitza bera ulertzeko modu bat ere; horrela behar luke izan, behintzat. Ez dut esan nahi gainontzeko kulturak ezagutzea txarra denik, baina horrek norberarena ahaztea ekartzen duenean... Baina, triste den arren, hori bera gertatzen ari zaigu. Izan ere, urteko pasa ahala, globalizazioaren atzaparrak nabarmentzen dira egunero bizitzan, eta ohitura estatubatuarrak besarkatzen ari

"Ohitura estatubatuarrak besarkatzen ari gara ia ohartu ere egin gabe"

gara ia ohartu ere egin gabe.

Horren adibide da bihar, urriak 31, inguruko hainbat tabernatan Halloween gaua ospatuko dela. Anglosaxoiengantzat *All Hallow's Eve* edo guretzat Domu Santu Bezpera esan nahi du eta, sortzez, ohitura zeltarra den arren, estatubatuarrak egin dute ezagun. Festa honetan, hildakoak senitartekoengana itzultzen direla sinbolizatzen da, zeltarrek hori uste baitzuten.

Gurean ordea, Domu Santu Eguna dugu joan zaizkigun senitartekoak gogora ekartzeko. Beraz, zergatik ezarri kanpotik datorren ohitura bat, etxean funtzio berdina betetzen duen beste bat dagoenean? Gaur egungo globalizazioaren arma indartsuenak ez dira su-armak; telebista da.

> UDALA

Prebentzio Zerbitzuak gurasoendako hitzaldia antolatu du

Seme-alaben hazkuntzan, guraso guztiek ezagutu beharko lituzketen giltzarriak izenburupean antolatu du eta azaroaren 4an izango da, 18:30ean, kultura etxean. Hitzaldia egingo dute Etxadiko kideek, hau da, familiendako orientazio psikologikorako zerbitzua ematen duten profesionalek. Duela bi urte abiarazi zuten zerbitzu hori herrian, eta, hitzaldia bukatu eta gero, zerbitzuaren gaineko informazioa emango dute eta bi urteotan izan duen erabilera azaldu. Prebentzio Zerbitzuak aurreratu duenez, ikasturtean barrena beste bi hitzaldi egongo dira, betiere gurasoen artean kezka orokor diren gaiak aztertzeko asmoz.

JENDARTEA > GENERO BERTINTASUNA

Berdintasun Planaren bigarren faseko batzarrak azaroaren 4an hasiko dituzte

Irailean, plana osatzeko diagnostikoa egin zuten; eta azaroan, landu beharreko helburu eta ekintzak definitu nahi dituzte

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Plana lantzeko bidean bigarren faseari ekingo dio Udalak datorren astean, Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin.

Plana lantzeko, parte-hartze prozesua zabaldu zuten irailean, eta parte-hartze hori prozesuaren bi unetan egitea aurreikusi

Lantaldekako batzarrak

Enplegua eta lana

Azaroak 4, 09:00 eta 16:00.

Gizarteratzea

Azaroak 5, 18:00-20:00.

Hezkuntza

Azaroak 6, 10:00-12:00.

Kultura eta kirola

Azaroak 14, 09:30-11:30.

Hirigintza, garraioa eta ingurumena, enplegua eta lana

Azaroak 14, 11:30-13:30.

OHARRA: azaroaren 4ko batzarra sindikatuen egoitzetan izango da; gainerakoak, kultura etxean.

zuten: batetik, egoeraren diagnostikoa egiten laguntzeko; eta, bestetik, datozen urteetarako ekarpen eta proposamenak jasotzeko. Horretarako, irailean sei lantalde antolatu zituzten eta lantaldekako batzarrak ere egin zituzten; baita planerako diagnostikoa osatu ere.

HELBURUAK FINKATU

Aurrera begira landu beharreko helburu eta ekintzak definitu nahi dituzte orain, eta horretarako, bigarren batzar sorta egingo dute. Ondoko taulan ikus daiteke batzarren egutegia. Emakume/gizon taldeak deritzon lantaldeari dagokionez, zehazteke dago oraindik zein egunetan izango den batzarra.


IRISH PUB
GALWAYS



San Martin plaza z/g
BERGARA Tel.: 943 76 30 86

**HALLOWEEN
FESTA**

09 • 10 • 31



Zatoz bihar
Halloween festara!



Etorri eta dibertitu!

ONDAREA > JARDUNALDIA

Turismo erlijioso eta kulturala garatu nahi ditu Udalak

'Ignaziotar lurraldea' ekimenaren barruan jardunaldiak egingo dira Bergaran eta Azpeitian

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Ondarea eta turismoa oinarri duten jardunaldiak egingo dira Bergaran azaroaren 12an. Turis-

mo erlijiosoaren esparrua hazkunde-prozesuan dagoela eta, hori baliatu nahi dute Debagoieneko arduradunek Bergara eta,

era berean, bailara ezagutzera emateko. Horretarako, *Ignaziotar lurraldea* proiektuak eskaintzen duen aukera aprobetxatuko dute. Hain justu ere, proiektu horren helburua da Gipuzkoako barne turismoa pertsonaia unibertsal baten bidez sustatzea: Loiolako San Ignazioren bidez, hain zuzen. Horretarako, haurtzarora eta gaztaroa igaro zituen lekuak erakutsi nahi dituzte, eta baita hura bizi izan zen garaia ere, XVI. mendea, Urola Erdia, Urola Garaia eta Debagoiengan barrena ibiliz.

Testuinguru horretan, hausnarketarako, heziketarako eta elkartzeko eremua sortu nahi dute, turismo erlijioso eta kulturalaren sustapenarekin lotuta-



San Pedro parrokia.

GOIENKARIA

ko ezagutza eta esperientziak trukatzeke.

SAN PEDROKO ERRETAULA

Ezagutza eta esperientzia trukatzeko horretarako batuko dira ondare erlijiosoarekin lotutako turismo jardueretan parte hartzen duten profesionalak Azpeitian, azaroaren 11n, eta Bergaran, azaroaren 12an.

Azpeitian landuko dute, besteak beste, turismo erlijiosoaren eta kulturalaren gaur egungo egoera, eta gaiarekin lotutako produktuak ere aurkeztuko dituzte. Bergaran, XVI. mendeko erretablez arituko dira, eta San Pedro parrokiakoaren gaineko tailerra egingo dute.

oharrak

IKASTAROA

> Haur masaje ikastaroa antolatu du Aranzadi ikastolak

Azaroaren 18an eta 25ean eta abenduaren 2an, 9an eta 16an izango dira eskolak, 17:00-19:00 ordu-tegian, Aranzadin. Prezioa da 85 euro, eta irakaslea, Nerea Mendizabal. Izenematea zabalik dago Haurtxoan, azaroaren 12ra arte.

KINTADA

> 1966an jaiotakoaren afaria egingo dute Zumelagan

Azaroaren 21ean egingo dute. Elkartzeko hitzordua egin dute 19:30erako Ariznoan eta afaria

izango da 22:00etan. Izenematea da azaroaren 19ra arte, Ariznoan. Aurreratu behar dira 10 euro.

KINTADA

> 1943an jaiotakoek bazkaria egingo dute Azpeitxin

Azaroaren 22an egingo dute, 14:30ean. Izenematea da azaroaren 18ra arte, Comercio Zubietan (943 76 16 13) eta Tejidos Fernandez (943 76 53 22).

KINTADA

> 1933an jaiotakoek bazkaria egingo dute Azpeitxin

Azaroaren 22an egingo dute.

12:30ean meza izango da, San Pedron. Izenematea da 6 euro, Intxorta tabernan.

KINTADA

> 1967an jaiotakoek afaria egingo dute Tartufon

Azaroaren 21ean egingo dute, 22:00etan. 19:00etan batuko dira, Arrano eta Popi's tabernen aurrealdean. Izena emateko sartu behar dira 20 euro Euskadiko Kutxan: 3035 0009 19 0090084407.

KINTADA

> 1959an jaiotakoek kinto afaria egingo dute Tartufo jatetxean

Azaroaren 14an egingo dute. Hitzordua egin dute 20:00etarako Fraiskozurin. Izena emateko azken eguna da azaroaren 10a. Horretarako, sartu behar dira 70 euro Kutxako kontu zenbaki honetan: 2101 0070 81 0127058220.

KINTADA

> 1960an jaiotakoek kinto afaria egingo dute

Azaroaren 14an egingo dute, Lasa jatetxean. Izenematea da Igarza harategian edo Barrenkaleko estankotan. Izena emateko orduan 10 euro aurreratu behar dira.

KINTADA

> 1953an jaiotakoek afaria egingo dute Agorrosinen

Azaroaren 14an egingo dute. 21:00etan izango da eta dantzaldia ere egingo da. Izenematea da 15 euro, azaroaren 12a aurretik, Agorrosinen eta ONCEko kioskoan.

KINTADA

> 1934an jaiotakoek -55eko kintoak- bazkaria egingo dute Errekin

Azaroaren 21ean egingo dute. 14:00etan txikiteoa egingo dute eta 14:45ean izango da bazkaria. Izenematea da Errekin eta aurreratu behar dira 12 euro.

San Martin Agirre herri eskola

"Gaztainerre eguna"

Azaroaren 6an ospatuko dugu Eskolan

Arratsaldeko 4retan, ikasle eta irakasleok patioan elkartuko gara gaztainak jateko.

16:30ean, gure senitartekoek ere izango dute aukera gurekin gaztainak jateko.

> LEHIAKETA

Film laburrak: lanak jasotzeko epea, astelehenera arte

Bergarako Udalak film laburren lehiaketa deitu du laugarren urtez aurten, eta astelehenera arte, azaroaren 2ra arte izango da zabalik lanak jasotzeko epea.

Irabazleak 400 euro jasoko ditu, bigarren saria 350 eurokoa izango da eta, era berean, bergarar onenari 150 euroko saria emango diote, aurreneko bi sarietan bergararrik egon ezean. Iazko ekitaldian 14 film lehiatu ziren.

Esan bezala, astelehenera arte dago zabalik lanak jasotzeko epea. Edozein argibidetarako kultura etxera edo 943 77 91 60 telefono zenbakira jo dezakete interesatuek.

> ERRETIRATUAK

San Joxepekoen irteera Lizarrara azaroaren 26an

San Joxepe erretiratuen elkartekoek urteroko Lizarrara irteera iragarri dute azaroaren 26rako. Ohi bezala, hamarretakoa Iratxe hotelan egingo dute, ondoren bisita gidatua Lizarran eta bazkaltzeko Iratxe hotelera itzuliko dira berriz. Izenematea erretiratuen egoitzan (943 76 30 09) egin daiteke.

Bestalde, gaztetxoaren artean San Joxepe deitutako lehiaketaren sari banaketa egingo dute egoitzan gaur, egubakoitzea, 17:30ean.



Leitzako saioan, Ainhoa Agirreazaldegia kantuan; bigarren sailkatu zen elgetarra, Etxahun Lekuaren atzetik.

BERTSOZALE ELKARTEA

BERTSOAK > TXAPELKETA NAGUSIA, BERGARARA

Bertso txapelketako finalerdia, kiroldegian

Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi, Etxahun Lekue, Fredi Paia eta Jon Martin lehiatuko dira azaroaren 7ko lehen finalerdian

EDU MENDIBIL > BERGARA

Hurrengo zapatuan, azaroaren 7an, Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehen finalerdia jokatu da Bergaran. Udal Pilotalekuan egitekoa zen, baina ikusle gehiago jasotze aldera, Labegaraietako kiroldegian jardungo dute bertsolariek, 17:30ean. Aurretik finalerdietarako sailkatutako Aitor Mendiluze eta Maialen Lujanbioekin batera, honako hauek

lehiatuko dira: Beñat Gaztelumendi (669 puntu) eta Etxahun Lekue, Uztaritz eta Leitzako finalaurdenetako irabazleak, hurrenez hurren; eta puntuazioari esker sailkatu diren Fredi Paia (649) eta Jon Martin (639). Alaitz Rekondo izango da gai-jartzailea.

IKUSLE GEHIAGO KIROLDEGIAN

Bertsozale elkartetik zera adierazi dute Bergarako finalaurreko-

ren toki aldaketa dela-eta: "Udal Pilotalekuak baino jende gehiago jasotzeko aukera ematen du Labegaraietako kiroldegiak, eta hori izan da arrazoia. Ikusita finalaurdenetako saioak batez beste 800 ikuslek jarraitu dituztela, pilotalekua txiki geratzen zitzaigula ikusi genuen, gehienez 1.000 lagun inguru sartzeko aukera zuelako. Labegaraietako kiroldegian bertan, 634 paturekin."

SARRERAK, INTERNETEN

Dagoeneko salgai daude datorren zapatuko finalerdietarako sarrerak, Interneten, www.bertsosarrerak.eu atarian. Bergarako saiorako eguenean, azaroaren 5ean, gauerdian desaktibatuko dute Internet bidezko salmenta. Hortik aurrera leihatilan bakarrik erosi ahal izango dira. Leihaita zapatuan irekiko dute Labegaraietako kiroldegian bertan, 16:00etan.

Sarrera arruntek 12 euro balio dute eta Bertsozale elkarteko bazkide izanez gero, sei eurotan eskuratu ahal izango dira.

AGIRREAZALDEGI, TOLOSAN

Ainhoa Agirreazaldegia azaroaren 14ko finalerdian lehiatuko da, Tolosan. Igor Elortza, Sustrai Colina, Iker Zubeldia, Uxue Alberdi eta Iñaki Gurrutxaga izango ditu alboan. Agirreazaldegia bigarren sailkatu zen Leitzan, 634 paturekin.

EGURRA SALGAI

Pagoa eta haritza Prestatuta

699 86 16 19

SANTOS

TIEN 21

DESKONTUAK
Renove plana etxetresnetan

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

trinmer telecomunicaciones

Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.

TRINMER 20 urte antenatan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305 Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

Bergarako Udala

OHARRA
Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Ondorengo ordenantza fiskalak aldatzea:

1. Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duena.
2. Ekonomi jardueren gaineko zerga arautzen duena.
3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena.
4. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duena.
5. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena.
6. Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.
7. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituena.

Hori guztia, Udaltzatza Osoak 2009ko urriaren 26ko bileran hartutako erabakiari jarraituz egiten da. Erabaki hori behin-behineko bileratik, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, behin-behineko erabaki hau 30 lanegun jarriko da ikusgai jendaurrean Udalteko iragarki taulan, interesatuek espedienteaz aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal dituzten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinaraziko zaio jendeari, eta iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arazko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berririk hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2009ko urriak 28
Alkatea

ESKUBALOIA > DERBIA

Irabazi beharreko partidua etzi

Bergarako eta Aloña Mendiko senior mailako taldeek Labegaraietan jokatu dute 12:15ean

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Puntu garrantzitsuak dituzte jokoan domekan Soraluze BKEK eta Izarraitz Taberna Aloña Mendik. Gipuzkoako txapelketan diharduten bi taldeek derbia jokatuko dute Labegaraietan 12:15ean. "Sailkapeneko zulotik irteteko beharrezkoa dugu domekan irabaztea", esan digute bi taldeetako entrenatzaileek.

Biek ala biek oso gaizki hasi dute liga txapelketa: bergararrek bi puntu dituzte eta oñatiarrek ez dute punturik batu. Bi taldeen jokoak bera nahiko eskasa izan da.

Bergarako entrenatzaile Josetxo Muniategik azaldu dizkigu mahoneroen gabeziak: "Defentsan motel gabiltza eta erasoan oso irregularrak gara. Ez dugu partidu oso ondo jokatzen, gorabehe-



Gorka Ugalde jaurtiketa egiten Pulporen kontrako lehiari, iaz.

GOIENKARIA

ESANAK

"Defentsan motel gabiltza eta erasoan jokaldi garbiak egitea kosta egiten zaigu"

Josetxo Muniategi > Soraluze BKE

"Kanpoan irabaztea zaila da, baina Bergarako puntuak behar ditugu"

Francisco Benito > Aloña Mendi

ra asko izaten ditugu-eta". Iritzi berekoa da Aloñako entrenatzaile Francisco Benito oñatiarren jokoaz berba egiterakoan: "Taldea gaztea dugu, eta esperientzia falta zaigu. Bigarren territorial mailan partidu osoa kontzentratuta ez jokatu arren irabazi egiten genuen, baina lehen territoriallean ezinezkoa da. Erregularrak izan behar dugu".

DERBIAREN GAINEAN

Domekan Labegaraietan jokatuko duten derbiaren gainean galdetuta, biek diote norgehiagoka zaila izango dela. "Partidu gogorra izango da, etxetik kanpo irabaztea zaila delako, eta Bergaran, are zailago. Baina irabazi behar dugu. Lehen garaipena lortzen dugunean gora egingo dugu", esan digu Aloñako entrenatzaile-

leak. Mahoneroen entrenatzaileak garbi dauka irabazi beharreko partidua dela: "Jardunaldi gutxi jokatu ditugu eta, oraingoz, urte hasierako helburuak mantendu egiten ditugu, baina emaitzei buelta emateko hiru partiduko tartea dugu. Aloña talde gaztea da, baina ez digute erraztasunik emango. Gogorra eta intentsua izango da".

> MENDIA

Beteranoen mendi martxa egingo dute azaroaren 15ean

Pol-Pol mendi taldeak beteranoendako irteera antolatu du azaroaren 15erako. Hain zuzen ere, Zestoa eta Zumaia arteko ibilaldia egingo dute. Urteko azken irteera denez, bazkaria egingo dute Zumaian. Irteeran parte hartu nahi dutenek txartelak eros ditzakete Pol-Pol tabernan. Autobusa 08:00etan irtengo da pilotalekutik.

> PIRAGUISMOA

Eskolarteko piraguismo proba egingo dute azaroan

Beti Busti taldeak antolatuta eskolen arteko lehen piraguismo proba egingo dute azaroaren 14an. Antolatzaileek diote aldaketaren bat egon daitekeela uraren egoeraren arabera. Era berean, azaroan jokatuko dituzte Euskadiko piraguismo txapelketak, Orthezen (Frantzia).

SASKIBALOIA > SENIOR MAILA

Bigarren garaipena lortzeko jokatu dute bergararrek Hernanin

Unai Iñarraren senior mailako taldeak 18:00etan jokatuko dute bihar; puntuak beharrezkoak dituzte arnasa hartzeko

M.B. > BERGARA

Aurreko aste bukaeran galdutako partidua ahaztuta (55-72, Santo Tomas Lizeoaren kontra), Soraluze BKEko saskibaloia jokatuko du bihar Hernaniko kiroldegian, 18:00etan.

Unai Iñarraren taldeak puntuak behar ditu sailkapenean gora egiteko eta arnasa hartzeko. Une honetan hamaikagarren tokian daude bergararrak, sei punturekin.

SENIOR MAILAKO B TALDEA

Senior mailako B taldeak etxean jokatuko du domekan, denboraldiko lehen garaipena lortzeko asmoz. Hain zuzen ere, Labega-



Soraluze BKEko senior mailako B taldeak Gabi Jatetxearen kontra jokatuko du domekan Labegaraietan.

MARIAN MELLADO

raietan jokatuko dute, 18:30ean, Gabi Jatetxearen kontra. Bergararrak sailkapeneko azken tokian daude orain arteko bi partiduetan, eta puntu beharrezkoak daude.

KADETEAK ETA GAZTEAK

Begarako saskibaloia saileko beste bi taldeek etxean jokatuko dute bihar. Alde batetik, gazte mailako mutilen taldeak Easoren bisita jasoko du. Norghegiagoka Labe-

garaietako kiroldegian jokatuko dute, 12:15ean. Beste alde batetik, kadete mailako mutilen Mariaren Lagundia eskolako kantxan jokatuko dute Mutrikuren kontra, 10:15ean.

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

BERGARA
Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

hau be badaukogu!



KARMELE AGIRREGABIRIA

Wii banarekin bueltatu dira bi uberarrak 'Mihiluze' programatik

Joan den zapatuan, urriak 24, ETBko *Mihiluze haurrak* programan hartu zuten parte Uberako Amaia Elortzak eta Irati Lazpiurrek. Ederki ibili ziren eta, gainera, irabazi egin zuten lehiaketa. Wii eder bana hartuta bueltatu ziren etxera, Uberara.

Saria irabazteko, baina, hainbat proba gainditu behar izan zituzten: potokumeak, salabardoaz ikusleek botatako pilota hartu eta hitza osatzea eta hitz debekatuaren proba, besteak beste. Hitzen tribuan, berriz, takada baten asmatu zituen erantzun guztiak Amaiak, eta SMSko proban ez zuten esaldi bakarra ere asmatu, baina bai, ordea, erantzuna. Ezkutatuta zegoen pertsonaia Lisa Simpson zela igarri zuten bi gaztetxoek. Azken proban, *Zer da zer* proban, bi akats egin zituzten.

mingainari tiraka

Martha Silva eta Anita Burgos > Pintzeladak arte tailerra

"Margotzen, pintatzen eta buztina moldatzen irakatsi nahi dugu"

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Arte Ederretan lizentziadunak dira Martha Silva eta Anita Burgos kolonbiarrak, eta aspaldiko ametsa bete dute orain: marrazten eta pintatzen irakasteko lokal bat zabaltea. Telesforo Aranzadi kalean ireki dute Pintzeladak arte tailerra.

Zer ikastaro eskainiko dituzue arte tailerrean?

Margotzen, pintatzen eta buztinarekin lan egiten irakatsi nahi dugu, baina jendearen eskaerak betetzeko prest gaude.

Norendako eskolak dira?

Edozeinendako: bai inoiz margotu edo pintatu ez duenarendako, bai bere zaletasuna hobetu edo teknika berriak ikasi gura dituenarendako.

Badira margotzeko edo pintatzeko esku txarra dutela esaten dutenak ere.

Bai, baina askok probatu gabe esaten dute hori, eta guk herri-tar guztiak animatu gura ditugu arte tailerrera etorri eta teknika



bat edo beste bat probatzera. Margolari guztiak ez dira pintore bikainak, eta alderantziz. Terapia ona da margotzea, gainera.

Eskolak emateaz gain, enkar-guak ere egiten dituzue?

Bai. Duela egun batzuk, adibidez, neska bat etorri zen esatera laster izango duen umearen

gelan horma-pintura egin nahi duela. Zer-nolakoa nahi duen aztertu behar dugu orain.

Tailerrean dira eskolak?

Bai; eguerdian eta arratsaldeetan emango ditugu. Oinarrizko materiala geuk jartzen dugu. Izenematea urte guztian dago zabalik.

**BERRITU EGIN DUGU
GURE DENDA,
ZUGANDIK
HURBILAGO IZATEKO!**

Zatoz une gozo
bat igarotzera

**Aprobetxatu gure
irekiera-eskaintza!**

LG hauetako bat hartzen baduzu,
esku libreko bat doan



LG KP 500
0€-an

LG GM 310
0€-an

opari!
LG HFB500

Bluetooth esku libreko
kita, eguzki-argiaren
bidez kargatzekoa

Sustapen honek 09:10:30a baino lehen egindako kontratazioentzat balio du. Unika 30 Tarifa duen mugikor-linea berri bat kontratatzen duten Euskaltel Hautaketaren eta Leihorearen bezeroentzat balio du mugikorraren PSPak 18 hilabete irauteko konpromisoa. Muga: 20 ale.

Ibargarai, 20, Bergara
943 76 94 58



ZERBITZUAK > AUTOBUSA

Errekabarren kaleko geltokia lekuz aldatu dute

Geltokia plazan geratuko da astelehenetik aurrera autobusa, aurkako norabideko geltoki parean

Lurraldebus txartela herrian eskuratu ahal izango da orain: Zainduz gimnasioan eta kultura etxean

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Astelehenetik aurrera ez da geratuko autobusik Errekabarren kaleko geltokian. Lekuz aldatzea erabaki du Udalak, eta Geltokia plazan, hau da, Azbe lantegi parean utzi eta jasoko dituzte bidaia-riak Pesa konpainiako autobusek. Egunotan dabilta Amaral eraikuntza enpresako langileak geltoki berria gertatzen.

AUTOBUSA, HERRITIK KANPORA

Inaxio Garro alkatearen esanetan, bi arrazoi izan ditu Udalak erabaki hori hartzeko: "Bata, herriko erdigunetik astean zehar pasatzen diren 305 autobus saihestea; hortaz, horrek dakartzan kutsadura, zarata... eta, batez ere, arriskuak ekiditea". Eta bestea, Eibar-Gasteiz autobidetik

joaten diren autobusek Aretxabaletan geldialdia egitea, orain egiten ez dutena: "Linea horrek herrian geldialdia egiteko, ezinbesteko baldintza jarri zuen Pesa autobus konpainiak geltokia herriko gunetik kanpo jartzea; bestela, denbora luzea galduko litzatekeela zioen". Hortaz, astelehenetik aurrera bai Arrasate aldera, bai Gasteiz aldera joateko, Azbe lantegi parera jo behar dute herritarrek.

LURRALDEBUS TXARTELA, ESKURA

Bestalde, Udalak jakinarazi du datorren astetik aurrera herrian bertan eskuratu ahal izango dela Lurraldebus txartela: Zainduz gimnasioan eta Arkupe kultura etxean. Eskaera egin eta txartela bideratzeko ordutegia zehaztu



Azbe lantegi parean, Geltokia plazan, egiten dabilta autobus geltoki berria.

M.A.

dute: astegunetan, 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:00etara, eta zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara. Ordainketari dagokionez, Zainduzen txartel bidez ordaindu ahal izango da; Arkupe, ostera, dirua eskura eman behar dute. Gainera, txartela eskuratu bakarrik ez, gero kargatzeko aukera ere egongo da.

Bi urte pasatu dira Lurraldebusen txartel bakarra abian jarri zutenetik, eta, hasieran herrian bertan eskuratzeko modua egon bazen ere, azken hilabeteotan Arrasatera joan beharra zeukaten aretxabaletarrek. Txartel bakarra erabilia %40ko deskontua egiten dute autobuseko txartelaren prezioan, eta deskontu

hori %90 artekoa izan daiteke, hilabetean pilotutako bidaia kopuruaren arabera. Gainera, familia ugari kideek deskontu osagarriak dituzte.

Txartela eskuratzeko, eskuorria bete behar da eta bertan eskatutako agiri guztiak aurkeztu. Astebete inguru behar dute gero txartela bidaltzeko.

UDALA > OSOKO BILKURA

Iturrizar izena jarriko diote Deba ibaiaren beste aldean egiten dabilta plaza

Plaza horretan giza eskubideen aldeko eskultura jartzeko konpromisoa hartu zuen udalbatzak

M.A. > ARETXABALETA

Ezohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak astelehenean, hirigintzari dagokion hainbat kontu onartzeko.

Herriko iparraldeko sarrean dagoen Bergara, Jauregi, Resusta y Cia izeneko eraikinarren izendapena aldatzeko prozesua hasia onartu zuten. Tubos de Precision lantegiko bulegoak egon ziren eraikin horretan, eta orain hezkuntzarako eraikin izendatuko dute. Gero Huhezik erabiltzeko izango da.

Bestalde, baserriei dagokien arau bat aldatzea onartu zuten aho batez. Baserriak bi etxebizitzatan banatzea aurretik zegoen onartuta, baina orain arte jabetza banaezina zen; hau da, eskri-

turak jabe guztien izenean egin behar ziren. Hemendik aurrera, nork bere etxearen eskriturak bakarrik egin ahal izango ditu. Lurrak, ostera, ezingo dituzte banatu.

GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO IZENA

Deba ibaiaren beste aldean Ortuzal promotorea egiten dabilen etxebizitzaren artean egongo den plazaren izena erabaki zuten gero. Udal Gobernuak proposatu zuen Iturrizar izena jartzea, toponimia oinarri hartuta, eta gero giza eskubideen aldeko aipamena egiten duen plaka, monolito edo eskulturaren bat jartzea bertan. Gainerako alderdiak ez ziren bat etorri eta Ezker Batua-Berdeak taldeko Tomas Fernandezek gogo-

rarazi zuen iazko abenduan egindako osoko bilkura baten onartu zutela giza eskubideen aldeko izena jartzea plaza edo kaleren bati. Alderdi Sozialistako zinegotzia bat etorri zen horrekin: "Deslegitimatzeko lotuta dago kontua eta oso nabaria, guztien begi-bistakoa, izango litzateke hala izendatuz gero plaza".

Eztabaida luzearen ondoren Udal Gobernuak proposatutakoa bozkatu zuten eta Aralarko zinegotzien aldeko hiru botoekin onartu; gainerakoak abstenitu egin ziren.

ETXERIK ETXEO ZERBITZUA

Bukatzeke, etxerik etxeko zerbitzua lehiaketara ateratzeko prozesua abian jartzea onartu zuten. Lau urterako hartu zuen ardura Gizadi enpresak, eta, epe hori bukatu egin denez, berriro deituko dute lehiaketa.

ELIZA > LANAK

Ez dute joko kanpairik egunotan

Mantentze-lanak egiteko, kendu eta Kantabriara bidali dituzte; baina mezak betiko orduetan dira

M.A. > ARETXABALETA

Jasokundeko Andramariren parrokiako kanpaiek errepikak bakarrik joko dituzte egunotan. Kanpai-mihiak kendu egin dizkiete, berrikusi eta konpontzeko; ondorioz, ez dute joko ordurik, ezta mezatara joateko deirik egin ere.

Mantentze-lanak zortzi urtean behin egitea komeni izaten dela jakinarazi dute parrokiako arduradunek: "Kanpai-mihia larruarekin lotuta ego-

ten da eta larru hori ondo dagoela begiratu behar da, baita metala brintzatu barik dagoela ere; era berean, koipeztatu egingo dituzte". Kantabriako Gajano herrira eroan dituzte horretarako, eta astebetean bueltan izango dira.

MEZAK, OHIKO ORDUETAN

Meza entzutera joateko deirik ez egin arren kanpaiek, betiko orduetan izango dira aste bukeran: bihar, 19:30ean, eta domekan, Domu Santu eguna, 11:30ean.

Astelehenean, azaroak 2, ostera, hildako fededunen oroimena ospatuko dute parrokiako kideek. Hala, bi meza esango dituzte: 09:00etan agustindarren monasterioan eta 19:00etan parrokiaren.

HEZKUNTZA > ELKARTRUKEA

Herbehereetako ikasleak datoz bihar Kurtzebarrikoekin egotera

Laugarren aldiz egingo dute elkartrukea Cuijk herriko Merlet College institutuko ikasleekin; tailerrak eta irteerak gertatu dizkiete gure herriaren berri emateko

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Azken lau urteotan legez, Herbehereetako Ipar Brabante eskualdeko Merlet College institutuko ikasleak datoz Kurtzebarriko BHI institutuko laugarren mailako ikasleekin egotera. Bihar, hilak 31, iritsiko dira eta azaroaren 6a bitartean proiektuaren lehen zatia burutuko dute.

Aste bukaera ikasle eta familiariekin pasatuko dute, eta astelehen goizean harrera ofiziala egingo diete Arkupe kultura etxean. Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok eta Kurtzebarri BHIko zuzendari Angela Agudok egingo diete ongiatorria guztien izenean.



Iaz Herbehereetako ikasleak hartu zituen Kurtzebarriko taldea, parlamentura egindako bisitan.

KURTZEBARRI INSTITUTUA

TAILERRAK ETA IRTEERAK

Aretxabaletan pasatuko duten astean, gure herriko kultura eta ohiturak ezagutzeko aukera izango dute, eta horretan saiatuko dira Kurtzebarriko talde guztiak. Hori horrela, hainbat tailer egingo

dituzte –gastronomia, euskal kantak, euskal kirolak...–, baita irteerak hiriburuetara ere –Bilbo, Donostia eta Gasteiz–. Eta hori guztia egingo dute ingelesa izanda elkarren arteko komunikazio tresna.

Elkartrukearen bigarren zatia martxoaren 20tik 26ra burutuko dute, orduan joango dira eta aretxabaletarrak Herbehereetara. Bertan Europako beste ikasle batzuekin elkartuko dira –Alemania, Italia, Kroazia...

GAZTEAK > AISIALDIA

Hankapalo ikastaroa bukatu atzo eta larrua lantzen hasiko dira orain gaztelekuan

M.A. > ARETXABALETA

Hankapalo ikastaroa egin dute urriko hiru eguenetan Atxagazte gaztelekuko kideek. Etor Larrañaga izan dute irakasle eta ederto pasatu dute guztiek hanka luzeen gainean; atzo bukatu zituzten eskolak.

Eguen guztietan ikastaroak egiteko asmoa dute gaztelekuko arduradunek. Hala, monoziklo ikastaroarekin hasi zuten ikasturtea, hankapaloena etorri da

gero, eta orain, azaroko eguenean, larrua lantzen erakutsiko diete gaztetxoek (18:00).

BIHAR, ZARAUTZERA SURF EGITERA

Bihar, zapatua, surf egitera joango dira Zarautzera, Arrasate eta Eskoriatzako gazteekin batera. 09:00etan irtengo dira autobusean, eta ikastaroa Zarauzko surf eskolako kideek emango diete. Domekan, oster, film emanaldia izango dute gaztelekuan (18:00).



Hankapaloen gainean ibiltzen ikasi duten hiru gazte.

TXATXILIPURDI

oharrak

IKASTAROA

> Gurasoendako tailerrerako izenematea, gaur

Gaur bukatzen da azaroan egingo duten *Arduraz hezi* ikastarorako izenematea. Udaletxean eta kultura etxean dituzte esku-orriak.

ZINEMA

> 'Slumdog millionaire' eta 'Ice Age 3' filmak aste bukaeran

Gaur eta bihar (22:00), etzi (19:30) eta astelehenean (16:00) *Slumdog millionaire* filma dute helduek eta domekan (17:00) *Ice Age 3* gaztetxoek.

KINTOAK

> 1957an jaiotakoak Karrantzara egun-pasa

Bizkaia aldera joango dira 1957an jaiotako kintoak azaroaren 7an. Izena eman behar dute aurrez Haizea tabernan 30 euro ordainduta. Azken eguna azaroak 1.

ERRETIRATUAK

> Donostiara joateko txartelak

Donostiako Kutxaespazioa ikustera joango dira Basotxoko erretiratuak azaroaren 12an. Txartelak azaroaren 2an eta 3an salduko dituzte Basotxon (11:00-12:00).

Garbittu

Errekabarren 3, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalen garbiketak
•
Arropa garbiketak

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Ibon Antero > Hiruatxeko koordinatzailea

"Andeetan egoera larrian bizi direnei laguntzea da orain helburua"

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Proiektuen kudeaketan egiten du lan Mundukiden Ibon Anterok, eta Hiruatx gobernuz kanpoko elkarteko koordinatzailea da. Brasilen dago asteotan lanean, baina Hiruatxek abian jarriko duen proiektuaren berri eman digu.

Hiruatxek bukatutzat eman du Ekuatore Ginean zuen proiektua. Laburiez azaldu proiektuaren nondik norakoak.

Bi fase izan ditu: lehenengo fasean, CIPA kooperatibari lagundu genion oilasko hazkuntza oinarri zuen ekimenean. Horretarako, oilategiak eta pentsu fabrika eraiki, jendeari formazioa (kontabilitatea, oilasko hazkuntza, pentsugintza...) eman eta hainbat lan egin ziren.

Bigarren urrats batean, nekazaritza-proiektua bultzatu digu: pentsua egiteko lehengaiak diren arto eta soja ekoizpenak; hau da, inguruan eta bertako nekazariekin batera ekoizteko prozesua.

Proiektua beti garatu duzue bertakoekin elkarlanean, ezta?

Bai; Hiruatxetik bultzatu nahi dugun kooperazio ereduaren oinarria horixe da, bertako jendearekin elkarlanean jardun eta euren bizimodua hobetzeko gaitasunak bertan sortu. Prozesu zailagoak dira hauek, jakina, eta horretarako Mundukideren laguntza izaten dugu.

Zelan geratu da proiektu hori?

Batetik, CIPA kooperatibak oilaskoak hazteko ezagutza eta baliabideak ditu; eta, bestetik, arto eta soja ekoizpenak hasi dira. Mundukidek jarraipena egingo dio herrialdearen egoera soziopolitikoak ahalbidetzen duen bitartean; izan ere, Ekuatore Ginean giroa gero eta nahasiagoa da...

Proiektu berria hasiko duzue orain. Non eta ze helbururekin?

Andeetan da, Ekuadorren, pobrezia-egoera larrian 3.000 metrora bizi diren komunitate-



Mundukideko langile eta Hiruatxeko koordinatzaile Ibon Antero, Ekuatore Gineako kideekin.

MUNDUKIDE

"Azaroaren 6an aurkezpen jaialdia izango da musikarekin eta bertso afaria eginda"

"Aretxabaleta herri laguntzailea da, horren seinale dira orain arte garatutako proiektuak"

kin. Perretxikoak saltzen dituen bertako kooperatibari transformazio prozesuan emango diogun laguntzaren bitartez, perretxikoak saltzen dituzten 300 familiak salmentak handitu eta bizi baldintzak hobetzea da helburua.

Eta horren berri emateko, jaialdixoa egingo duzue.

Hori da; aurkezpen jaialdia izango da azaroaren 6an, musika saioa eta bertso-afaria eginda. Afarirako txartelak salgai daude Gurea eta Arlutz tabernetan.

Hiruatxek dagoeneko zenbat urte daramatza lanean?

18 urte pasatu dira eta, tarte horretan, proiektu ugari garatu dira hainbat herrialdetan: besteak beste, India, Nikaragua, Kolonbia, Ekuador, Mozambique, Ekuatore Ginea...

Herritarren laguntza beharko duzue proiektua hasteko. Zelan erantzuna eman dute aretxabaletarrok?

Aretxabaleta herri laguntzailea da eta sentimendu hori argi azaltzen da pertsona eta elkarte ezberdinek hartutako konpromisoekin. Hiruatxek aldetik ere, harrera ona dugu herritarren artean, eta horren seinale da orain arte garatutako proiektu guztiak.

Orain Brasilen zaude; zertan abiltza lanean?

Brasilgo MST (Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra) mugimendu sozialarekin batera proiektu bat martxan daukagu Mundukide eta Lankiren (Huhezi) artean. Mugimenduari enpresa sozialen gestioan hobekuntzak emanez, 5.000 familiaren bizi baldintzak hobetzea du helburu proiektuak.

ERRETIRATUAK > AISIALDIA

Kantu zaharren txapelketa antolatu du Basotxok

Abenduaren 1ean jokatuko dute eta izena eman gura duenak erretiratuen egoitzara joan behar du

M.A. > ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteko zuzendaritza batzordeak kantu zaharren txapelketa egingo du. Abenduaren 1ean jokatuko dute eta bazkide guztiak animatu gura dituzte sasoi bateko kantuak gogorarazi eta kantatzera.

KANTUAK, GALTZEKO BIDEAN

Basotxoko erretiratuek dituzten dohainak erakusteko bide bat izan daitekeela uste dute antolatzaileek, baina beste helburu batzuk ere baditu txapelketak: iraganeko kultura espresioa bultzatzea; nagusi guztiek dituztela altxor interesgarriak erakustea;

eta geografia eremu ezberdinetako giza taldeen kultura espresioak erakustea. Gainera, txapelketa poztasuna sortzeko bidea izan daitekeela uste dute antolatzaileek: "Ematen duenaren eta hartzen duenaren artean poztasuna eta gogobetetasuna sor dezake".

Bakarkako txapelketa izango da eta edozein eratako kantuak abestu ahal izango dituzte Basotxoko erretiratuek, bai musikari dagokionez, bai gaiari dagokionez: "Garrantzitsuena da galtzeko bidean dauden sasoi bateko abestiak gogoratu eta berreskuratzea", diote zuzendaritzako kideek.



Basotxo erretiratuen elkarteko abesbatza entseguetan, eguaztenean.

M.A.

Basotxon bertan jokatuko dute txapelketa abenduaren 1ean, martitzena, eta epaimahai bat osatu dute kantarien lana baloratzeko. Sariak jasoko dituzte, gainera, hiru onenek: lehenengok, 200 euro; bigarrenak, 100 euro; eta hirugarrenak, 50 euro. Argibide gehiago gura dituenak Basotxora jo dezala.

ERRETIRATUEN ABESBATZA

Bestalde, abesbatza osatu dute Basotxoko kideek eta hamabostean behin elkartzen dira entseguak egiteko Errasti zuzendarirekin; aste honetan, hain zuzen. Hurrengo saioa azaroaren 11n izango da (18:00) eta zabalik dituzte ateak kantatzea gustuko duten erretiratuendako.

> XAKEA

Partida irabazita hasi du Gipuzkoako txapelketa Alcaidek

Zapatuan, hilak 24, hasi zuten Gipuzkoako xake txapelketa Zarautzen. Asier Etxagibel arrasatearra eta Aitor Alcaide aretxabaletarra dira jokatzeko debagoiendak bakarrak eta Alcaidek samur irabazi zuen lehen partida. Etxagibelek, oster, berdindu egin zuen Txus Agirretxe hirugarrenaren aurka.

Bestalde, aurrera jarraitzen du Arrasateko nazioarteko xake txapelketak, eta gustura dabil Alcaide. Hala, irabazi egin du azken jardunaldia Roberto Villarren aurka; baita Andoni Miguelek ere Ernesto Beitiaren aurka. Fran Miguel anaiak, oster, ez zuen jokatu partida eta Mikel Alcaidek galdu egin zuen Isidro Ruizen aurkako norgehiagoka.

Gaur laugarren jardunaldia jokatu dute: Aitor Alcaide-Imanol Segura; Mikel Alcaide-Juan Salinero; eta Migel anaiak elkarren aurka.

ONGIZATEA > ERABERRITZEA

San Martin Egoitzako beheko solairuko guneak, inauguratuta

Zaharren egoitzan dauden egoiliarrek elkarrekin erabiltzen dituzten guneak berritu dituzte, ile-apaindegia eta kafetegia, besteak beste

na eta zabaltasuna emate aldera, zuriz margotu dituzte pareta guztiak. Irisgarritasuna ere zaindu dute, eta ate zabalagoak jarri dituzte gurgildun aulkiekin erosoago ibil daitezen.

Eraberritze lanak maiatzean hasi zituzten, eta guztira, 166.000 euroko aurrekontua izan dute (%75 Foru Aldundiak ordainduko du, eta %25, Udalak).

Alkateak eskerrak eman zizkien eraberritze lanetan parte hartu duten guztiei, eta barkamena eskatu zuen lanek iraun duten bitartean sortu diren eragozpenengatik. "Egoiliarrendako hila-bete luzeak izan dira, baina emaitza ikusita, merezi izan duela esan behar dugu. Egoitzan egindako lanek argi erakusten dute

Oñatiko Udalean Gizarte Politikaren aldeko apustu sendoa egin dugula".

Bestalde, Aldundiko ordezkari Juan Ramon Larrañagak eraberritzearen garrantzia azpimarratu zuen: "Egindako lanekin Oñatik nabarmen hobetu ditu hirugarren adinekoen zaintzarako dituen baliabideak."

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

San Martin Egoitzako beheko solairua berritzeko lanen inaugurazioa egin zuten martitzenean. Hain zuzen ere, egoiliarrek elkarrekin erabiltzen dituzten gela eta guneak eraberritu dituzte: ile-apaindegia, liburutegia, errehabilitazio gela, kafetegia, komunak, eta hildakoak egoten diren gelak. Bestalde, argitasu-

AGINTARIAK

Ekitaldian parte hartu zuten Oñatiko alkate Lourdes Idoiaga; Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Rosarito Galdosek; Aldundiko Ezinduen eta Nagusien zuzendari Juan Ramon Larrañagak; eta Egoitzako zuzendari Sor Maite Izagirrek, besteak beste. Oñatiko parroko Joxan Larrañagak bedeinkatu zituen lanok.

DATUA

166

MILA EURO

Aurrekontu hori erabili dute San Martin Egoitzako beheko solairua eraberritzeko. Aldundiak %75 ordainduko du, eta Udalak, %25.

ESANAK

"Egoitzako lanek erakusten dute Gizarte Politikaren aldeko apustu sendoa egin dugula Udalean"

Lourdes Idoiaga > Alkatea



Joxe Arizmendi, Juan Ramon Larrañaga, Lourdes Idoiaga, Rosarito Galdos eta Sor Maite Izagirre, inaugurazio ekitaldian.

MIREIA BIKUÑA

oharrak

DEIALDIA

> Elkar Hezi ikastetxean jaialdia egingo dute gaur

Haurtzaindegiko eta Haur Hezkuntzako familiendako jaialdia egingo dute 17:00etan. Rosa Martinezek *Beti lagun* txotxongilo antzezlan eskainiko du. Jaialdia irekia da herritar guztiendako eta trikitilariak girotuko dute.

IKASTAROA

> Euskarazko kantu eta jolasen gaineko ikastaroa

Txaloka ludotekan seme-alabekin euskaraz jolas egiteko bitartekoak eskaini gura dituzte. Horren harira, gaur eta azaroren 7an, 14an eta 21ean euskarazko kantu eta jolasen gaineko ikastaroa egingo dute. Lehen hiru zapatutan gurasoak bakarrik joango dira, eta azken egunean seme-alabak eroango dituzte.

ERAKUSKETA

> Gorka Salmeronen erretratuak ikusgai kultura etxean

XIX. mendeko teknikarekin egindako 25 erretratu ditu ikusgai Salmeronek azaroren 6ra arte. Legazpiko bizi-lagunak, lagunak eta etxekoak dira nagusi erretratuetan; baina, guztiondako ezagunak direnak ere badaude; adibidez, Ruper Ordorika eta Bernardo Atxaga.

ERRETIRATUAK

> Gaur da ikastaroetako ordainketa egiteko azken eguna

Helduek 66 euro ordaindu beharko dituzte, gaztetxoek 48 euro eta bitxigintza ikastarokoek 46 euro. Guztiek dirua sartu beharko dute Euskadiko Kutxako 3035 0005 36 0050900035 kontu zenbakian. Epe barruan matrikula ordaintzen ez dutenak edo kultura etxera ziurtagiria eroaten ez dutenak ikastarotik kanpo geratuko dira.

Ikastaro bakoitzerako onartu dituzten zerrendak ikusgai daude kultura etxeko sarreran.

JENDARTEA > KIROLA

Igeriketa herri maratoia eta hirugarren adinekoendako jaialdia, aste bukaeran

Biak ala biak Zubikoa kiroldegian 25. urteurreneko ekitaldien barruan sartzen dira

M.B. > OÑATI

Uztailean bete zituen Zubikoa kiroldegia 25 urte eta ospakizunen barruan hirugarren adinekoendako jaialdia eta igeriketa herri maratoia egingo dituzte bihar eta etzi, kiroldegiko igerilekuan eta kantxan.

Askotariko ekintzak egingo dituzte hirugarren adinekoendako jaialdian, 10:00etatik 12:00etara: besteak beste, aerobika, badmintoneko hastapen jokoa, badminton txapelketa eta body balance. Jaialdia doakoa da eta parte-hartzaileei kirol jan-

tziekin joatea aholkatzen diete. Antolatzaileek diote azken orduan aldaketak egon daitezkeela, parte-hartzaile kopuruaren arabera.

IGERIKETA

Bestalde, igeriketa sustatzeko eta Aspace barruan sortu den Dordoka kirol elkarte laguntzeko, igeriketa herri maratoia egingo dute etzi. 09:00etatik 13:30era, igeri egin nahi dutenendako zabalik egongo da igerilekua. Parte-hartzaileek gutxienez 25 metro eta gehienez 250 igeri beharko dituzte. Helburua da bi kaletan jendea etengabe igerian egotea. Maratoian parte hartuko dute Dordokako kideek eta goi mailako igerilariak.

ZERBITZUAK > ALDAKETAK

Arantzazuko autobusaren ordutegia murriztuko dute

M.B. > OÑATI

Oñatitik Arantzazura arteko bidea egiten duen autobus zerbitzuaren ordutegian murrizketak egingo dituzte. Hain justu ere, domekatik martxoaren 28ra arte mantenduko dute ordutegi berria.

Aldaketen arabera, Oñatiko lehen autobusa 08:30ean abiatuko da Arantzazura –orain arte baino ordu bate beranduago-. Goizeko azken autobusa 14:00etan irtengo da Arantzazu-

tik. 17:30era arte ez dute zerbitzurik emango. Azkeneko autobusak 18:30ean eta 19:00etan irtengo dira Oñatitik eta Arantzazutik, hurrenez hurren.

3.000 ERABILTZAILA

Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak 2007an jarri zuen martxan Oñati-Arantzazu autobus zerbitzua. Ordutik erabiltzaile kopuruak gora egin du. 2009ko urtarriletik abuztura arte 3.000 bidaiariak erabili dute.

UDALA > ZERGA

2009ko ordenantza fiskalek hasierako onarpena lortu dute

Uraren tasa %4 igoko da datorren urtean; zaborraren gaineko zerga, berriz, 2008ko bigarren seihilekoko kopuruan mantentzea adostu dute

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Ordenantza fiskal gehienek ez dute igoerarik izango datorren urtean. Udalbatzak horiek behin-behineko onartzea adostu zuen aho batez, joan den eguazten iluntzean egindako ohiko osoko bilkuran. 2008. urteko ordenantzeekin alderatuta, ur eta zabor tasek baino ez dute aldaketarik izango.

Urari dagokionez, datorren urtean zerga %4 igotzea erabaki zuten. Pedro Lasagabaster alkateak igoera horren arrazoiak azaldu gura izan ditu: "Gipuzkoako Ur Kontsortziotik igoera aplikatuko dute eta hori estaltzeko, Udalak tarifa %4 igoko du".

FAMILIEK, 21,76 EURO

Orain, hiru hilean behin, etxe-ko erabileraren harira, 20 metro kubikotik behera kontsumitzen dituztenek 20,92 euro ordaintzen dituzte. Etxebizitzetara, etxabe komertzialei zein familia-enpresei edo komertzioei dagokie tarifa hori. Igoerarekin, berriz, horietako bakoitzak 21,76 euro ordaindu beharko ditu hiru hilean behin.

Erabilera industrialean, aurrean, 61,71 euro ordaindu behar izan dituzte 60 metro kubiko baino gutxiago erabili dituztenek. Aplikatuko den igoerarekin, Udalak 64,18 euroko tarifa aplikatuko du. Atal horren barruan,

etxe-koak ez diren gainontzeko alorrak sartzen dira, hala nola industrialak, igerilekuak, tabernak, jatetxeak eta elkarteak.

ZABORRA, 47,60 EURO

Zabor tasari dagokionez, 2009ko bigarren seihilekoko aplikatutako tarifak mantentzea adostu zuen udalbatzak eguaztenean. Hiri hondakin solidoak jasotzeko, garraiatzeko eta birrintzeko Debagoieneko Mankomunitateak kudeatzen duen zerbitzuaren gaineko tasa %20,1 igotzea proposatu zuen iaz; hala, Udala uztailetik aurrera aplikatzen hasi zen igoera, eta herriko 1.500 familia baino gehiagok, bigarren seihile-

lekoan, 47,60 euroko fakturari egin behar izan zioten aurre. Kopuru bera ordainduko dute datorren urtean.

LANGABEENDAKO BONIFIKAZIOA

Bestalde, langabeendako bonifikazio berria onartu zuen udalbatzak. Udalerrian enpresa txiki berriak ireki eta langabeak direla egiaztatzen dutenei, %90eko deskontua aplikatuko zaie, besteak beste, ICIO delako zergan (eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zergan). Horretaz gain, errolda eta bizikidetzaztagiria eskatzen dutenei diru kopururik ez kobratzea ere adostu zuten.



Zaborrari dagokionez, 2008ko bigarren seihilekoko aplikatutako tarifak mantentzea adostu zuen udalbatzak eguaztenean.

GOIENKARIA

AISIALDIA > UMEAK

Egubakoitzetan ez ezik, eguenetan ere ekintza bereziak egingo dituzte azaroan Tortolisen

Udazken, zapore eta karaoke festez gain, patin zirkuitua eta landareen gaineko tailerra egongo dira

M.B. > ESKORIATZA

Orain arte, Tortolis ludotekan, astelehenean eguenera bitartean ohiko ekintzak izan dituzte, eta egubakoitzetan, berriz, ekimen bereziak. Hori, baina, aldatu egingo da hastear dagoen hila-betean, eguenerako ere eki-

men bereziak antolatzea erabaki dute eta zerbitzu horretako arduradunek.

Eguenean bertan (azaroak 5) hasiko dira egitarau berriarekin. Egun horretan, udazken festa egingo dute ludotekara joaten diren neska-mutikoekin; eta hurrengo astean, azaroaren 12an, berriz, zapore festa egongo da Tortolisen.

FESTAK, KIROLA ETA TAILERRA

Festez gainera, kirolarekin lotutako ekimenak ere izango dituzte. Hala, azaroaren 19an, patin zirkuitua izango dute 7 eta 12 urte

bitartekoek. Egun berean, landareen gaineko tailerra gertatuko dute 3 eta 6 urte arteko haurrendako. Azaroko azken eguenean, azkenik, karaoke festa egingo dute ludotekako erabiltzaile nagusiendako.

GUZTIEI ZABALIK

Ludotekako arduradunek gogorarazi dute eguenean zein egubakoitzetan egiten diren ekintza berezi horietan parte hartzeko ez dela derrigorrezkoa bazkide izatea; izan ere, 3 eta 12 urte bitarteko edozein neska-mutiko joan daiteke hara.

> ERLIJIJOA

Domu Santu eguna dela-eta, elizkizun berezia egongo da domekan, 17:00etan, San Pedron

Etzi, domeka, Domu Santu eguna da eta, urtero moduan, hainbat ekimen berezi prestatu dituzte. Domekan, 12:30ean, meza egongo da eta 17:00etan, bezperak errezatuko dira San Pedro parrokan. Astelehenean, 17:00etan, arrosarioa errezatu dute kanposantuan. Azken horren harira, Udaletik jakinarazi digute egunotan kanposantuko argiek gau osoa emango dutela piztuta.

> KZGUNEAK

Azaroaren 11ko eta 25eko arratsaldeetan egongo da dinamizatzailea hainbat ikastaro eskaintzen

Hilero bezala, azaroan ere hainbat egunetan egongo da KZgune-ko dinamizatzailea, ikastaroak emateko eta erabiltzaileen artean sor daitezkeen zalantzak argitzeko. Aitor Madrid tutorea azaroaren 11n eta 25ean izango da Eskoriatzan, honako ordutegian: 16:30etik 20:00etara. Eskainiko diren ikastaroen gaineko informazioa gura dutenek Eskoriatzako Udalaren webgunean dagoen KZgunearen atalean dute ikusgai.

KULTURA > EGITARAU

Aspertzeko aukerarik ez dute izango eskoriatzarrek azaroan

Udalak eta herriko hainbat elkartek elkarlanean askotariko ekimenak antolatu dituzte datozen astei begira

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udaleko Kultura Sailak eta herriko hainbat elkartek egitarau interesgarria gertatu dute datozen asteotarako. Ohikoa den moduan, askotariko ekimenak antolatu dituzte, azaroko egitarauaren harira.

Azaroa argazkilaritzarekin lotuta dauden ekimenekin hasiko da. Eguaztenean, azaroak 4, artxibo digitalaren kudeaketaren gaineko hitzaldia egongo da kultura etxean, 19:00etan.

Egubakoitzean, berriz, argazki irteera egongo dute. Irteera hori, baina, ez da nolanhikoa izango, gauaz ibiliko dira eta argazkizaleak herrian zehar irudiak ateratzen. Hitzordua 22:00etarako egin badute ere, nahi dutenek 20:30ean, plazatik irten baino lehen, mokadutxo har-

tzeko aukera izango dute. Egun berean, Aitzorrotz kultura elkar-tearen eskutik, Oihulari Klownek ipuin kontaketa egingo du Inker-nu tabernan, 22:30ean.

TRUKE PROGRAMAKOEI AGURRA

Azaroaren 13an, berriz, truke programan egondako indigenei agurra egingo zaie herriko plazan, 17:00etan. Eta gauean, Jimmy Arrabit Trio eta Petti musikariek kontzertua eskainiko dute, 22:30ean, Inkernun.

Azaroaren 16tik 19ra bitartean, garapen eta komunikazio emanaldiak egongo dira Huhezi unibertsitateko kaperan. Kubako Zinema Pobrearen Nazioarte-

ko Jaialdiko filmak ikusi ahaliko dira egun horietan. Emanaldi guztiak 19:00etan hasiko dira.

Bestalde, azaroaren 21ean, Musika Eskolako bandak Santa Zezilia eguneko kortzertua eskainiko du, 20:00etan, San Pedro parrokian; eta azaroaren 22ko arratsaldean, uretako hainbat puzgarri jarriko dituzte kiroldegiko igerilekuan.

Azaroko azken asteburuan ere ez da ekimenik faltako: egubakoitzean, Esther Espartzaren *Muy kontranatura* antzezlan; eta zapatuan, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berrien aurkezpena eta ardo dastatzea.

RALLY GAME

Auto elektrikoaren zirkuitua ere egongo da

Domekako inaugurazioaren ondotik, Dos Pistones elkarteko kide Iñigo Gartzia jakinarazi zizun 1/18 eskaladun auto elektrikoaren zirkuitu berria domeketan jartzeko asmoa zutela. Esandakoa errealitate bilakatuko da azaroaren 1ean, 8an, 15ean eta 29an.

Hain zuzen ere, horrelako autoak erabiltzen ikasi edo, besterik gabe, horiekin ibili nahi dutenek aipatutako egun horietan, eguerdi partean izango dute aukera, 12:00etatik 14:00etara bitartean. Dos Pistones elkarteok Udal Pilotalekuan muntatuko dute 35 metroko luzera duen zirkuitu berria.



Pirritx eta Porrotx azaroaren 28an etorriko dira; irudian, iazko ikuskizuna. ARTXIBOA

MIGRAZIOA > ERAKUSTALDIA

'Oasis en tierra extraña', 'Última parada: Tanger' eta 'Sabina', gaur Ibarraundin

M.B. > ESKORIATZA

Programazioan gorabeherak egon dira eta antolatzaileek Mugarik Gabeko Zinemaren II. erakustaldiaren eguna aldatu dute. Hala, atzo beharrean, gaur, egubakoitza, izango da erakustaldia, 19:00etan, Ibarraundi museoa. *Migrazioak* da aurten erakustaldiaren gaia.

Hiru film ikusi ahaliko dira. Lehenengo, Alejandro Baer eta Iskra Calderonen *Oasis en tierra extraña* dokumentala eskai-

niko dute. Migrazioaren fenomeno aztertuko dute; bereziki immigrazio ekuadortarra. Horrek 30 minutu irauten du.

Jarraian, Enrique Bocanegra *Última parada: Tanger* dokumentalaren txanda iritsiko da. Bi urtez Afrikatik bidaiatu ostean, Liberiako etorkina Tangerrera iritsiko da. Bizirauteko egin behar duenaz dihardu. Azkenik, Octavio Sandoiaren *Sabina* ikusi ahaliko da gaur, Ibarraundin.

oharrak

ERAKUSKETA

> **Hego Amerikako lekuen gaineko erakusketa Ibarraundin**

Gaur da azken eguna Hego Amerikako lekuen eta bizimoduaren gaineko erakusketa Ibarraundin bisitatzeko, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

UMEAK

> **Halloween festa ludotekan**

Gaur Halloween festa egongo dute ludotekan, 16:30ean. Besteak beste, jokoak, eskulanak, mozo-roak eta dantza izango dituzte neska-mutikoei.

KIROLA

> **Kirol hitzorduak aste bukaeran**

Bihar, zapatua, arratsaldean saskibaloia eta areto-futbola egon-

go dira. 16:00etan, kadete mailako nesken saskibaloia partidua dago, Eskoriatza eta Andraitz B taldeen artean, eta ordu berean gazte mailakoena; etxekoak MCM A taldearen kontra lehiatuko dira. 18:00etan, berriz, Ohorezko Ligako areto-futbola egongo da, Eskoriatza Dream Team taldearen aurka. Bestalde, domekan, 12:00etatik 14:00etara, Rally Game 1/18 eskaladun auto elektrikoaren zirkuitua jarriko dute frontoian.

PILOTA

> **Kutxa saria bihar pilotalekuan**

Bihar Gipuzkoako Txapelketa Kutxa saria jokatuko dute Udal Pilotalekuan, 17:30ean. Eskoriatza eta Aretxaleto gazteek eskuz banaka jokatuko dute.

UMEAK

> **Badatoz Pirritx eta Porrotx**

Azaroaren 28an, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazok *Irrien lagunak* ikuskizun berria aurkeztuko dute kiroldegian. Herriko ikastetxeetan erosi ahal dituzte ikasleek sarrerak.

ZERGAK

> **Zabor tasa, azaroaren 12ra arte**

Udalak bigarren sei hilekoari dagokion etxeko zabor biltzeko tasaren errolda jendarean jarrita dagoela jakinarazi du. Horrekin batera, azaldu du borondatez ordaintzeko epea dagoeneko zabalik dagoela; azaroaren 12a baino lehen ordaindu behar da, aurrezki kutxan edo banketxean.

LENIZ
ESKORIATZA



- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyeztoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

AISIALDIA > GAZTEAK

Azaroaren 21ean zabalduko dute gazteleku berria Eguzki auzoan

Gaztelekua 12, 13 eta 14 urteko gaztetxoendako da, eta azaroaren 9a baino lehen eman behar da izena

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Eguzki auzoan azkena eraiki zen etxebizitza-blokearen azpian egongo da gazteleku berria. Aste bukaera honetan hasiko dira begiraleak lokala egokitzen eta azaroaren 21ean zabalduko ditu ateak gaztelekuak.

Zapatu eta domeka arratsaldeetan, 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik gaztelekua 12, 13 eta 14 urteko neska-mutikoendako; eta aztertzen dihardute neguan, egun zehaztuta, gauz ere zabaltea. Gazteekin sei begiralek jardungo dute, aldi bakoitzean bik.

BILERA GURASOEKIN

Izena emateko 45 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako edo Kutxako Udalaren kontu zenbakian, eta ordainagiria udaletxera edo liburutegira eraman. Izena emateko azken eguna azaroaren 9a izango da.

Ondoren, azaroaren 12an, 19:00etan, gazteleku berrian bilera egingo dute hezitzaileek gazteen gurasoekin.

Gazteleku berrian izango da nobedaderik; izan ere, sukaldaria ipiniko dute. Gainontzean, lehen-go gaztelekutik eramango dituzte ping-pong mahaia, sofak, telebista... Asmoa da begiraleek gazteekin adostea asteburu eta eguneko ekintzak, baina dituzten baliabideak aprobetxatuz sukaldaritza edo ping-pong lehiaketak egiteko asmoa dute. Baita ikastaroren bat antolatze ere.



Bisitatuak txokoen azalpenak jaso zituzten ibiltariek.

JABI ETXANIZ

INGURUMENA > AHT-REN IBILBIDEA

Tren azkarraren bidea egin zuten oinez 18 lagunek

I.A. > ANTZUOLA

Domekan 18 lagunek egin zuten oinez AHTren ibilbidea. Goizper atzetik, AHTren tunelak irteera izango duen lekua eta Irain erreka gaineko biaduktua nondik norakoa izango den ikusi zuten. Loietarako bide zaharretik Mendibil gainera igo eta Olaranek erabiltzen zuen presara iritsi ziren. Bost kilometro inguruko kanalaren bidez, Inurriarri eta Arrandai arteko errekatxo eta iturrietako urak bildu, Antiguako indar etxera bideratu eta Olaran fabrikarako argindarra sortzen zen.

Ertzillako iturritik eta Telerixatik, San Blasera eta Erautzara jo zuten. Aritzagabasaldeko iturri-ira heldu eta, AHTren bidean egonik, galtzeko arriskua dagoela ikusi zuten. Urrubiko meategien eta aztarnen gaineko azalpenak jaso eta Erautza ondotik, Madarixara igo ziren, Galardi Errotako presa ondotik pasatuz. Galardi iturrian hamaiketako egin eta Otamenditik Kaxetara joan ziren trenbide zaharretik.

Ibilaldian lanbroa izan arren, AHTren ibilbidea ikusteaz gain, herri ingurua ezagutu zuten.

HIZKUNTZA > IKASTAROA

Euskara eskolak abian daude astean hiru egunez

Oraindik izena eman ez arren, lekua dago euskara ikasteko interesa dutenendako

I.A. > ANTZUOLA

Aurten ere osatu dute euskara ikasteko taldea herrian. Taldekideen eskakizunetara egokitu-ta, oinarriko mailako eskolak jasotzen dihardute. Eskolak astelehenean, eguaztenean eta eguenean dira, 19:00etatik 21:15era (guztira, 210 ordu). Norbaitek izena eman nahi badu, oraindik garaiz dabil.

BERBA-LAGUNAK

Bestalde, Udaleko Euskara Zerbitzuak euskaldun zaharrei jakinarazi nahi die euskara ikasi dutenekin edo ikaste prozesuan diharduten eta euskaraz berba egiteko maila dutenekin astean behin-edo elkartzeko eta euskaraz berba egiteko gertu dagoen jendearen laguntza behar dutela. Izan ere, euskaraz inguru naturalean berba egitea da asmoa.

Ekimen horretan parte hartzeko gertu daudenek Udaleko Euskara Zerbitzura (943 76 62 46) edo liburutegira (943 76 65) jo beharko dute.



Olaran etxean jasotzen dituzte eskolak.

LIERNI LEGORBURU

bere ustez



Ugaitz Iturbe

Hitzen joan-etorriko kronika

1. Medikua, nahiz ta ezaguna izen, aukeran hobe, biharrik ez daon bixitatzia.

2. Kafia, esakto, nahiz ta oso lanpetuta ibili, beti dao tartetxo bat lagun batekin hartzeko.

3. Kuadrillia, beste gauza batzun artian, juergetan *kantamento base* izeteko.

4. Kubatak, nahiz ta rona gustukoa izan, burua errezaio engañatzeko.

5. Adarrak, *no comment*.

6. Bakillak, trankil-trankil burladeruan birra batzuk erateko.

7. Entzierrua, ahal izanezgero, behixen aurrian juteko.

"Abordaia, hamalau laguneko kuadrilliak Donostiako portuko uretan, seriamente tontuana itzeko"

6. Korrika, noraezian, ta inoia ez iristeko.

5. Prixa, batez be, gauza txarrak, ahalik eta aguruen, bukatzeko.

4. Pazientzia, okerrenian, disfrutatzia.

3. Goringua, oilluak arrautzia noiz ingo etxoin barik, momentukuaz gozatzeko.

2. Abordaia, hamalau laguneko kuadrilliak Donostiako portuko uretan, seriamente tontuana itzeko.

1. Esginze bat, ambulato-rixtatik pasau ostian, pape- ran aurrian jarri ta lerro batzuk idatzeko.

> HIZKUNTZA

Xabi Paya bertsolariak euskararen gaineko hitzaldia egingo du

Xabi Paya bertsolari ezagunak hitzaldia egingo du azaroaren 3an, 19:00etan, Olaran etxean. *Euskaldun erdaldunaren metamorfosis* izenburupean, jendearen aurreiritziez eta elebitasun pertsonalak dituen onurez hitz egingo du, guraso erdaldunak dituen seme euskaldun baten esperientziatik.

> AFARIA

Azaroaren 6a da azken eguna 1967an eta 1968an jaiotakoek izena emateko

1967an eta 1968an jaiotakoek kinto afaria egingo dute azaroaren 14an, zapatuan, Arin jatetxean. Urte haietan jaio eta afaritara joateko asmoa dutenek aurrez eman beharko dute izena Alzarten, Aixa fruta-dendan edo Mujika harategian. Izena emateko azken eguna azaroaren 6a izango da, egubakoitza.

> INFORMATIKA

Azaroaren martitzen arratsaldeetan izango da tutorea KZgunean

KZgunea egunero izaten da zabalik astelehenean egubakoitzera 10:00etatik 12:30era eta 16:45etik 19:30era. Egubakoitzetan lehena- go itxiko da, 19:00etan; eta martitzenetan 13:00ak arte egongo da zabalik. Gainera, azaroan, martitzenetan, 3an, 10ean, 17an eta 24an, 16:00etatik 20:00etara bitartean bisitatu du tutoreak.

> AISIALDIA

Erretiratuendako gaztaina-erre jana azaroaren 14an izango da

Erretiratuak, urteroko ohiturari jarraituz, datorren azaroaren 14an gaztaina-erre jana egingo dute Landatxope elkartean, 19:00etan. Egun horretan gaztaina-erreak jatera joan nahi dutenek aurrez eman behar dute izena elkartean. Horretarako, azaroaren 3an edo 4an joan beharko dute 16:00etatik 18:00etara bitartean.

> OSPAKIZUNA

Lantegien eta Udalaren arteko olinpiada gaur, euskara planen harira

Gaur, egubakoitza, Antzuolako euskara planen topaketa egingo dute Goizper, Matz-Erreka eta Elay lantegiek eta Udalak, euskara planak herrira ateratzeko asmoz. Jolasak, tortilla lehiaketa eta mus txapelketa izango dira, baita lancha eta euskara planen gaineko diapositiba emanaldia ere. 18:00etan, Zurrategin.

HIRIGINTZA > BIRGAIATZE PLAN BEREZIA

Erdigunerako egitasmoak jendaurrera

Behin-behineko onarpena eman aurretik, herritarrek ekarpenak egiteko aukera dute orain

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Birgaitze Plan Bereziak, besteak beste, datozen urteetako etxebizitza politika finkatzen lagunduko du, eta indarrean dagoenari zenbait aldaketa egitea proposatzen dute Hirigintza batzordetik.

Asteon egin dute aldaketa proposamenaren jendaurreko aurkezpena udaletxean. "Apostua da, landak okupatzen jarraitu barik, erdigunean hutsik dauden eraikinei irteera bat ematea", laburbildu du Oxel Erostarbe alkateak. "Arautegi berriak etxebizitzak egiteko aukera emango du ezaugarri jakin batzuk betetzen dituzten lokal komertzialean edo ganbaretan. Urtea amaitu aurretik eman nahiko genioke behin-behineko onarpena".

ETXEBIZITZA BABESTUAK

Herriko plazaren bueltan dauden lokal komertzialak merkataritzarako mantendu nahi ditu Udalak. Ezingo dira, beraz, inguru horretako lokalak etxebizitza bihurtu. Gutxienez baldintza batzuk betetzen dituzten gainetako lokalak etxebizitza egin ahal izango dira, baita ganbarak ere. "Etxebizitza hauek guztiak babestuak izango dira; hau da, Udalak kontrolatuko lituzke salmenta prezioa eta esleipena", zehaztu du alkateak. "Beste zenbait eraikinetan bolumenak gehitzeko aukera planteatzen da", azaldu du Erostarbek, eta Ostatu edo Panaderokua ipini ditu adibide gisa. Sei etxebizitza babestu egin ahal izango dira eraikin horietan.



Kultura etxearen atzeko aldean aparkalekua aurreikusten du proposamenak. L.Z.

Bestalde, Gudarien bidean 11 etxebizitza babestu hartuko lituzkeen eraikina egiteko aukera planteatzen du proposamenak. Aparkaleku bat ere aurreikusten du, kultura etxearen atzeko aldean, hain zuzen ere. "Pribatua, lur

azpikoa; eta publikoa, azalera gainera", adierazi du alkateak.

"Bizi dugun egoera ekonomikoan ez da erraza izango epe motzean proposamena garatzea, baina garapen iraunkorraren bidean pauso bat da", esan du.

'ELGETA DANON ARTIAN'

Herritarren ekarpenak espero dituzte

L.Z. > ELGETA

Bigarren fasean sartu da *Elgeta danon artian* egitasmoa. Orain, herritarren ekarpenak jaso, eta eztabaida fororak zabaltzeko unea da. Dinamizatzaile lana egiteko Patxi Montero kontratatu du Udalak sei hilabeterako.

Ekimenaren bigarren fase horretan sei gai landuko dituzte; autoen erabilera herrian, Elgeta 2020 plana, erdigunerako errehabilitazio plan berria, kirol azpiegiturak, herriko merkataritza eta herriko baserritarrak. Forotan parte hartzeko, izena eman behar da azaroaren 6a baino lehen. Eguaztenean, azaroak 4, *Oinezkoek lehentasuna duten kaleetarako ibilgailuen arautegia* hitzaldi irekia egingo dute. 19:00etan hasiko da, udaletxean.



Patxi Montero. TXOMIN MADINA

KULTURA > MUSIKA

Musika beltza eta Afrikako lekukotasunak, zuzenean

Zimbaweko Mookoonba taldeak hitzaldia eta kontzertua egingo ditu bihar, zapatua

L.Z. > ELGETA

Bi emanaldi egingo ditu bihar, zapatua, Mookoonba taldeak: bata Espaloian, 22:30ean hasita; bestea, gaztelekuan, 12:30ean.

Sei kidek osatzen dute Mookoonba taldea, eta Zimbaweko hizkuntzetako baten abesten dute, tongatarrez. Gaztelekuko kontzertua hitzaldia ere izango da.

Afrikako egoeraz, Zimbawen gazte moduan dituzten kezkak, erabiltzen dituzten musika tresnak nola egiten dituzten, zeintzuk diren kantatzen dituzten gaiak... horiek guztiak azalduko dituzte gaztelekuan. Tartean, kantuak joko dituzte era akustikoan.

SARI BATI ESKER

Irabazi duen sari baten bitartez atera da Mookoonba taldeko seikotea Europara bira egitera. 22:30ean kontzertua egingo dute Espaloian. Tonga kulturako musikaren dantzagarria aurkeztuko dute emanaldi horretan.

AISIALDIA > IKASTAROKAK

Astehenean hasiko da euskal dantzen ikastaroa

Azaroan, berriz, marmelada eta likore ikastaroa eskainiko du Bizikasik

L.Z. > ELGETA

Astehenean egingo dute umeendako euskal dantzen ikastaroaren lehenengo saioa. Patxi Montero irakaslea 16:45ean elkartuko da ikasleekin eskolako ganbaran.

Azarorako, berriz, prestakuntza aukerak sustatzea helburu duen Bizikasi erakundeak bi proposamen egin ditu Udalaren laguntzarekin: adimen emozionalari buruzko

hitzaldia eta 12 orduko marmelada eta likore ikastaroa. Izene-mate epea zabalik dago dagoeneko udaletxean.

EGUNAK ETA ORDUAK

Adimen emozionalari buruzko hitzaldia azaroaren 9an, astehena, egitea proposatzen dute. Marmelada eta likore ikastaroa, berriz, azaroko martitzenetan eta eguenetan 16:30etik 18:30era egitea aurreikusten dute.

4 t'erdiko pilota txapelketa

Hirugarren asteburuan, herri mailako beste zazpi norgehiagoka pilotalekuan

L.Z. > ELGETA

Ikusmina pizten du herri mailako pilota txapelketak, ikusle askotxo erakartzen ditu-eta frontoira.

Gaur, barikua, lau partidujokatuko dira, 20:00etan hasita. Domekan, berriz, hiru, 11:00etan hasita.

EMAITZAK

1. J. Bolinaga-Izagirre / Arbulu-M. Elkoro	22-12
2. Zubiaurre-Ugarteburu / Goenaga-Al. Arantzabal	22-21
3. O. Erostarbe-Arizmendiarieta / Gillegi-Gallastegi	22-16
4. Calleja-Arkarazo / Morales-Zenitagoia	05-22
5. Ibarluzea-Telleria / L.A. Alkorta- Migel Arantzeta	22-10
6. Gaizka Bolinaga-I. Irazabal / Billa- O. Zenitagoia	13-22

GAURKO PARTIDUAK

- Larrea-Belamendia / Arbulu-M. Elkoro
- Zubiaurre-Ugarteburu / Morales-Zenitagoia
- Al. Arantzabal-Goenaga / Ibarluzea-Telleria
- Ramos-Etxeberria / Ar. Arantzabal-K. Erostarbe

DOMEKAKO PARTIDUAK

- Gorrotxategi-Atorrasagasti / Retolaza-Larrañaga
- Calleja-Arkarazo / L.A. Alkorta- Gorka Bolinaga
- Gaizka Bolinaga-Igor Irazabal / Ormaetxea-Jon Irazabal

GOIKOETXE HARTEGIA



Salbador kalea 1 ELGETA
943 78 82 06

AZOKA > ERRETIRATUEN EGUNA

Baserritarren sindikatuek biharko azokari boikot egitea eskatu dute

Otsoen erasoen arazoa dela-eta, UAGAk eta Sergalek azokari boikot egiteko eskatu diete baserritarrei; horri lotuta, Udalak ez du animaliarik ipiniko

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Bihar, zapatua, Erretiratuen Eguna ospatuko da. Goiz osoan azoka egongo da Nardeaga kalean; 40 postu inguru ipiniko dituzte eta Gazte Asanbladako kideek taloak egingo dituzte. Festa goizean hasiko da. 10:30ean herriko txistulariek kalejira egingo dute. 13:00etan, mezaren ostean, eskal dantzen saioa egongo da herriko plazan eta ondoren erretira-



Nardeaga kalea postuz beteko da berrito ere bihar, zapatua.

GOIENKARIA

tuek bazkaria egingo dute kiroldegian. Bazkalostean dantzarako aukera egongo da erromeriarrek.

ANIMALIARIK EZ

Otsoen erasoen arazoa dela-eta neurriak eskatzeko, UAGA sindikatuak eta Sergal abeltzainen

kooperatibak Arabako ganadu azokak boikotatzeko deialdia egin zuten uztailearen erdi aldera. Hori horrela, oraingoan ere, Aramaio Erretiratuen Egunean, azokari boikot egiteko eskatu diete baserritarrei. "Arabako zenbait artzainek bizi duten egoera jasangaitza da. Otsoen erasoak jasaten dituzte egunero. Kontua ez da bakarrik ardiak galtzen dituztela; egoera horrek euren bizi baldintzak jasangaitz bihurtzen ditu. Artaldearekin egon behar dute gau eta egun. Artzain askok utzi egin behar izan dute artzaintza", dio Felix Ajuriak, Oleta auzoko artzain eta UAGA-ko ordezkariak. Aramaio baserritarrei eskatu diete azokako postuetara baserriko produkturik ez eramateko. "Baserritarrentzat oso garrantzitsuak dira azokak, gure lana eta produktuak erakusteko bidea dira. Honekin

erakutsi nahi diogu gizarteari etsita gaudela eta horrela ezin dugula aurrera egin", dio Ajuriak. Uztailearen erdi aldera hasi zuten protesta, eta pozik daude lortutako erantzunarekin: "Arabako Diputazioak hasieran aurkeztu zuen Otsoen Gestio Plana artzainen kontrako plana zen, eta hori atzera botatzea lortu dugu. Gainera, Diputazioak otsoen eraginarekin azterketa egingo duela agindu digu. Baina hori ez da guztia: Diputazioak otsoen erasoekin nola jokatu behar den zehazten duen foru agindu bat dauka, baina ez du betetzen. Eta foru agindu hori bete dadin da gure beste eskaria".

Aramaio Udalak UAGArekin eta Sergalen eskaerarekin bat egin du; hori horrela, erabaki dute aurten Erretiratuen Egunean animaliarik ez jartzea goizean egiten den azokan.

ZUIAKO KOADRILA > IRTEERAK

Uraren Museoa bisitatzera joango dira azaroaren 22an

Autobusa 08:30ean aterako da kiroldegitik eta izenemate epea zabalik dago azaroaren 5era arte

A.B. > ARAMAIO

Zuiako Koadrilak gurasoendako irteerak antolatzen ditu hilero. Bada, azaroan, Uraren Museoa ezagutzera joango dira, Sobronera. Irteera azaroaren 22an egingo dute; autobusa 08:30ean irtengo da kiroldegitik eta 14:30 aldera itzultzea aurreikusten dute.

Hain zuzen ere, 2 urtera arteko haurrek ez dute ordaindu beharrik izango; 2 eta 12 urte bitartekoek bi euro ordaindu beharko dituzte; eta 12 urtetik gorakoek, berriz, sei euro. Dena

dela, 10 urtetik gorako umeek heldu batekin joan beharko dute derrigorrez. Izena emateko epea zabalik dago, azaroaren 5era arte. Izena emateko, udaletxean egin behar da ordainketa.

URAREN MUSEOA

Uraren Museoa adin guztietako pertsoneri zuzenduta dago; espazio interaktibo bat da eta teknologia berriei eta simulazioei esker uraren gainean jakin beharrekoa ikasteaz gainera, dibertitzeko aukera ere eskaintzen du.



Urriaren, Azpeitiko Trenaren Euskal Museoa bisitatu zuten guraso eta umeek; gustura ibili ziren bagoi artean.

ZUIAKO KOADRILA

UDALA > DEIA

2010eko egutegirako argazkien lehiaketan lanak aurkezteko epea luzatu egin dute

A.B. > ARAMAIO

Aramaio Udalak aurten ere argazki lehiaketa antolatu du datorren urteko egutegia egiteko. Hasieran, urriaren 31n amaitzen zen argazkiak aurkezteko epea, baina Udalak epea luzatzea erabaki du; hori horrela, azaroaren 6a izango da argazkiak aurkezteko azken eguna.

BALDINTZAK

Gaia librea da, Aramaio herriarekin zerikusia duten argazkiak aurkeztu ahal izango dira: inguru naturala, soziala eta artistikoa, eraikinak, ohiturak, ekitaldiak, jaiak, pertsonak...

Parte-hartzaile bakoitzak nahi beste argazki aurkeztu ahal izango ditu, bakoitzari izenburua

eta atera zeneko data jarritz. Betiere, lehenago argitaragabekoak izan beharko dute. Argazkiak koloretakoak zein zuri-beltzekoak izan daitezke eta paperean aurkeztu beharko dira. Neurria gutxienez 18x24 cm izango da.

Irabazleak 200 euro jasoko ditu eta urtaro bakoitzeko argazki onenak, berriz, 100 euro.

oharrak

ARGINDAR ETENALDIA

> Azaroaren 4an argindarra eten-
go dute Ibarren

Abiadura Handiko Trenaren lanak direla-eta, azaroaren 4an erdi-tentsiko linea bat desbideratu egingo dute; hori horrela, argindarra etengo dute Ibarren 09:00etatik 10:00etara eta 16:30etik 17:00etara. Horrez gain, 10:00etatik 16:30era argindarra talde elektrogeno batekin hornituko da; beraz, argindarraren kalitatea ez da ohi bezalakoa izango.

KZGUNEA

> Tutorea azaroaren 2an eta 16an
etorriko da KZgunera

KZguneko tutorea azaroko lehenengo eta hirugarren aste-etan etorriko da Aramaiora. Ordutegia honakoa izango da: 16:00etatik 20:00etara.

Azarorako ere ikastaro ugari antolatu ditu KZgunek. Honako aplikazioak ezagutzeko aukera egongo da, besteak beste: sare sozialak, *Skype*, *YouTube*, *Blogger*, *Google* tresnak eta *Wikipedia*.

KULTURA > OSPAKIZUNA

Txerria izango da protagonista San Milixan ferian

Txerri-hilketaren gainean izango da feria eta txerrikiak egingo dituzte antzina legez; hau da, odolosteak, txorizoak eta adobatuak

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Jai batzordea osatu du Udalak San Milixan eguneko feria gertatzeko eta dagoeneko hasi dira kontuak lotzen: etorriko diren artisauak aukeratu eta bisitariendako zein ikuskizun antolatu: txerri-hilketa.

ODOLOSTEAK ETA TXORIZOAK

San Milixan, *ardikixa jan eta ake-teixan*, dio Gatzagako esaera zaharrak, eta herriko zaindari San Milixan egunaren bueltan-azaroak 12- feria izango da, azken 14 urteotan legez, aurten azaroaren 15ean. Artisauak protagonista dituen jai handia da herrian eta hori antolatzen dabilta elkarlanean Udala, Sorginak emakume elkarteak eta hainbat

kolaboratzaile. Artisauak egin zieten dei irailean, eskaerak aurkeztuz eta aukeraketa egin dute, 15 bat postuendako bakarrik dagoelako lekua pilotalekuan. Eta horretarako erabili duten irizpidea izan da artisautzatik bizi direnak izatea. "Hau da, artisautza gal ez dadin bizi-modua ateratzen dabiltzanei laguntzea izan da gure ahalegina", diote antolatzaileek.

Bestalde, euskal izaera duten ikuskizunak antolatzen saiatu izan dira beti Gatzagan, asko galtzekotan dauden ogibide eta ohiturak. Hala, txondorrek egiten erakutsi zuten urte baten, lixiba egiten hurrengoan, udazkeneko ira-metak gero... Horri jarraituta, aurten txerri-hilketa egitea



Odolosteak salgai San Milixan eguneko feria.

GOIENKARIA

erabaki dute: "Txerrikiak egiten ikusteko aukera izango dute bertaratuko direnek, hau da, odolosteak, txorizoak eta adobatuak, sasoi baten baserrietan egiten ziren moduan". Gainera, feriara datozen bisitariak odolosteak, txitxikiak eta txerriaren beste jaki batzuk probatu eta erosteko aukera izango dute. Eta horiei lagun egiteko, urtero legez, talak eta edatekoa eskainiko dituzte *sorginek* pilotalekuan.

BASATXERRI IZENDAPENA

Antolatzaileek jakinarazi dute Basatxerri kalitate izendapenari esker egingo dituztela txerrikiak ferian: "Kolaboratzaile horien laguntza barik ezinezkoa izango litzateke".

Albizzarden egoitza duen Txerrizaleok elkarteak hazi eta bermatutako txerriak dira Basatxerri kalitatea dutenak, Euskal Herriko mendietan aske hazitako txerriak, hain zuzen; ezkur,

gaztaina, belar, garo eta beste-lako elikagai natural bidez elikatutakoak. Gipuzkoako eta Bizkaiko 16 abeltzainek osatzen dute elkarteak.

Gatzagako ikuskizun horrekin euskal baserriari lagundu gura dio Jai batzordeak: "Euskal baserria egoera larrian dabilen honetan gure aldetik aletxo bat jarri gurako genuke; baserrietik bizi direnek biharkoa ziurtatua goa eduki dezaten".

LAGUNTZAK

Estatu fondotik 28.432 euro Udalari

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Astean iragarri du Espainiako Gobernuak diru gehiago bideratuko duela udaletara inbertsioak egin eta gastu soziala arintzeko. Gatzagako Udalari 28.432 euro emango dizkio eta horietatik, gutxienez, 22.734 euro inbertsioak egiteko erabili beharko ditu. Bestalde, gastu sozialerako erabili ahal izango duen gehieneko kopurua 5.698 euro da.

LEHEN, 44.000 EURO

Aurretik 44.000 euro bideratu zituzten estatu fondotik lanak egiteko, eta Santa Kolombako ermitaren teilatua konpontzeko erabili du diru hori Udalak.

argazki zaharra



Dorletako Ama Birjina koroatzen

Astehenean, urriak 26, bete ziren 51 urte Dorletako Ama koroatu zutela. Egun hartako argazkia jaso zuten *Txirrindularitza Leintzarraren aipamen laburra* liburuan, 34. Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia

Arrasaten hasi behar zelako argitaratua, 1994an. Txirrindularien zaindaria den Ama Birjinaren irudia Dorletako santutegian dago, baina Arlaban gainean beste irudi bat jarri zuten. Argazkian

Arrasateko parroko zen Jose Luis Iñarra dago koroatze ekitaldia zuzentzen.

Argazkia: "Txirrindularitza..." liburuxka.
Testua: "Txirrindularitza..." liburuxka.
Urtea: 1958.



Antxintxika triatloi taldeko Jose Mari Barrena eta Aitor Rementeria eta Martin Etxeberria kirol zinegotzia lasterketaren aurkezpenean, garaiurrekin eta parte-hartzaileendako kamisetarekin.

IRATI AGIRREAZALDEGI

LASTERKETA > SORALUZE-BERGARA

Antxintxika krosari kutsu herrikoia goa eman nahi diote antolatzaileek

Zapatuan 17:00etan abiatuko dira korrikalariak Soroluzetik

Helmugan pintxoak egongo dira, lasterketaren inguruan giroa sortzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Aurten bosgarren aldiz antolatu du Antxintxika triatloi taldeak Soroluze eta Bergara arteko Antxintxika Krosa-Olatz Rementeria memoriala. Zapatuan izango da, 17:00etan, Soroluzen abiatuta eta korrikalariak 10 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Aurrez, gaztetxoendako lasterketak egongo dira Bergaran, 16:00etan hasita, eta gero txokolate-jana izango da eurentzako.

Antolatzaileek urriaren 28ra arteko epea jarria zuten lasterketarako izena emateko eta ordurako 300ek emana zuten izena; hortaz, epea luzatzea erabaki zuten. "Eguazten arratsaldean ia zoko parte-hartzaile kopurura iritsiak ginen, 300 ingurura. Hortaz, uste dugu zapatuan 500era iritsiko garela", esan zuen lasterketaren aurkezpenean Antxintxika triatloi taldeko Jose Mari Barrenak.

Emaitzak zapatuan ikusiko dira, baina antolaketarako urte gogorra izan dela esan zuen Antxintxikako Aitor Rementeriak: "Babesleak krisi egoeran

daude eta babesleak lortzea oso zaila da. Hortaz, eskertu egin nahi ditugu bai Udala eta baita babesleak ere, euren laguntzarik ezean ez litzatekeelako posible proba antolatzea".

DIRU SARIRIK EZ

Laguntzaileak ere eskertu nahi izan zituzten aurrez. "Bidegurutzeetan egoteko, irteera eta helmugarako... 100 lagun inguru behar dira. Arrasateko Atletico taldetik eta Lokatza taldetik euren baliabideak utzi dizkigute eta eskertzekoa da".

Urteko urtera lasterketak izena hartu du, baina antolatzaileek, era berean, kutsu herrikoia goa eman nahi izan diote eta hainbat neurri hartu dituzte horretarako. "Azken hiru urteetan marokoarrak, kenyarrak... etorri dira lasterketara eta herriko jendeak eta bailarakoak atzera egiten zuten, beldurtuta-edo. Jende horrek nahi ditu diru sariak, eta, dirurik ezean ez direnez etortzen, bestelako sarietan inbertitu dugu diru hori aurten", esan zuen Aitor Rementeriak.

DATUA

500

PARTE-HARTZAILE

Eguaztenerako 300 korrikalari emana zuten izena eta antolatzaileek egun batez luzatu zuten izena emateko epea. Parte-hartzaileen gehieneko kopurua 500 lagunekoa da, eta iristea espero dute.

GIOKELAREN SAIHESKIA

Sariez gain, parte-hartzaile guztien artean herriko enpresek, dendek, tabernek... emandako opariak zozketatuko dituzte: afariak, urdaiazpikoak, kirol jantziak, erlojuak, ardoa...

Zozketan saririk ez jaso arren, lasterketaren oroigarri kamiseta, behintzat, izango dute partaideek; aurten, gainera, teknika eta diseinu hobearrekin egina.

Herri giroa sortzea ere bada aurtengo helburua, zapatu berezia izatea, eta horretarako: "Giokelak emandako saiheskiak erreko ditugu eta helmuga inguruan pintxoia eta baso bat ardo euro eta erdian salgai ipiniko dugu", dio Rementeriak.

ERRONKA BERRIAK

Herri giroa bai lasterketan eta baita haren inguruan ere, baina antxintxikalariek jakin nahi izaten dute zenbat denboran amaitu duten ibilbidea. Horretarako, iaz probatu zuten programa informatiko bat erabiliko dute, Antxintxika taldekoek gertatuta.

Aurten, emakumeen parte-hartzea bultzatzeari ere eman diote garrantzia, baina aurrerako bada beste erronkarik. Rementerien esanetan: "Gutxiti fisikoendako lasterketa antolatu nahi izan dugu, baina, bidegorria asfaltatuta ez dagoenez, ezin da. Espero dugu datorren urterako konponduta egotea eta, gutxiti fisikoena ez ezik, patinetan ere lasterketa egiteko aukera izatea".

Antolatzaileek korrikalariak ez ezik, jendea animatu nahi dute herri giroa sortzeko lasterketara inguratuzera.

JAKIN BEHARREKOAK

> **IZENEMATEA** Lasterketa egunean Soroluzeko udaletxe azpian eman ahal izango da izena (15:30etik 16:45era) eta Bergarako Ibargarai kalean (15:30etik 16:30era). Bakarka izena ematen dutenek 15 euro ordaindu behar dituzte; koadrilek, 35 euro.

> **AUTOBUSA** Aurrez txartela hartuta dutenendako lehenengo eta bigarren autobusak 16:00etan irtengo dira; hirugarrena eta laugarrena 16:30ean. Saihesbideetik, merkatu plaza gainetik.

> **IBILBIDEA** Soroluzetik (udaletxea), Osintxura (bidegorritik), Mekolaldera, San Lorentzora, Zubietara, Infernukuara, Ibargaraira, Iralara, Barrenkalera, San

Martin plazara, Bidekurutzetara, Palmondoa dagoen biribilgunera eta Ibargaraitik pilotaleku parera.

> **IRTEERA ETA HELMUGA** Soroluzeko udaletxe partetik irtengo dira antxintxikalariek 17:00etan. Lasai irtetea gomendatu dute, irteera estua baita. Helmuga Ibargarain, pilotaleku parean egongo da; ez dago denbora mugarik helmugara heltzeko.

> **JAN-EDANAK** Ibilbideko seigarren kilometroan eta helmugan. Antolatzaileek gomendatu dute behar baino gehiago ez hartzea.

> **DUTXAK** Aranzadi ikastolako patioan egongo dira.



Iaz 300 korrikalari hartu zuten parte lasterketan.

GOIENKARIA

SQUASHA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Euskadiko hogeita hamar jokalari onenak Arrasateko kantxetan lehian

Gaur, egubakoitza, hasiko dute txapelketa eta bihar jokatuko dituzte partidua erabakigarriak, Musakolako kantxa berrituetan

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Arrasateko AKE Squash taldeak antolatuta Euskadiko squash txapelketa egingo dute gaur eta bihar Musakolan. Ez da lehenengo aldia Arrasateko taldeak txapelketa antolatzen duena, baina oraingoa antolatzaileek oihartzun handiagoa eman nahi izan diote txapelketari: "Horregatik erabaki dugu txapelketaren gaineko aurkezpena egitea, horrelako kirolek oihartzuna behar dutelako eta gure helburuetako bat herritarren artean squasha ezagutaraztea delako", adierazi du antolatuzaile lanetan dabilen Iñaki Uribebarriak. Gainera, ikusleen artean squasheko erraketa bat zozketatuko dute.

Eguaztenean AKEko ordezkariak, AUKEAko ordezkari Olatz de Miguelek, Federazioko presi-

dente Jose Ramon Garaik, txapelketako epaile Alberto Ferreirok eta Alemaniako selekzioan izan den Markus Schwarz jokalariai -Euskal Herrian dabil ikasten, eta squash ligan lider dago- egin zuten berba.

GAUR, 18:00ETAN HASITA
Euskadiko txapelketa gaur hasiko dute, 18:00etan, Musakolako kantxa berrituetan: "Egubakotzeko saioan kanporaketa partiduak jokatuko dituzte eta hama sei jokalari onenak koadro nagusirako sailkatuko dira. Pena, rankingean bigarren sailkatuta dagoenak ezingo duela txapelketan esku hartu, gripea du-eta".

Koadro nagusia zapatuan jokatuko dute, baina kanporatutako jokalaria ez dira jokatuko barik geratuko, kontsolazio ligax-



Argazkian Alberto Ferreiro epailea, Arriet Arenaza, Markus Schwarz, Aritz Gordo eta Silverio Alvarez jokalariai.


XABIER URTZELAI

kan lehiatuko dira-eta. Finala, berriz, 18:00ak inguruan jokatuko dute.

DEBAGOIENKO SEI JOKALARI
Senior mailako txapelketan lehiatuko diren 32 jokalariren artean

izango dira rankingean aurreneko postuetan dabiltzanak, baina Errioxatik ere etorriko dira txapelketan parte hartzera. Tartean egongo dira ibarreko sei jokalaria inguru. Senior mailakoekin batera 19 urtez azpikoen eta 15

urtez azpikoen txapelketak ere egingo dituzte, zapatuan. 19 urtez azpikoetan, Julen Zabala, Igor Hernandez eta Igor Elortza izango dira gure ordezkariak eta Ander Okinak jokatuko du 15 urtez azpikoen kategorian.



MOYUA



**HILETA ZERBITZUAK
24 ORDUKO ZERBITZUA**



- **Kliniketara joaten gara** (Zerbitzu osoak egiten ditugu)
- **Leku aldatzeak**
- **Dokumentazioa**
- **Koroak**
- **Eskelak** (Irrati, egunkari eta paretetan)

Tel.: 943 78 34 47
943 78 06 71
Sakelakoa: 617 44 24 66
Obispo Otadui 27
(Bolibar auzoan)
20560 OÑATI



Haritz Igartua hegaleko sarea egiteko gertu eta ondoan Gordobil aginduak ematen, orain dela 15 egun.

J.A.

FUTBOLA > HIRUGARREN MAILA ETA OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaleta, sailkapeneko aurreko postuetatik gertu

Gordobilen mutilek laugarren dagoen Beasainen bisita izango dute domekan Ibarren, 16:00etan

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Joan den domekako garaipenaren ostean, oraindik Gernikan, Igor Gordobilek ez zuen *diskurtsoa* aldatu: "Partiduz partidua joan behar dugu". Esaldi hori

erabili zuen iaz, eta zelako emaitzak batu zituen ikusita, zertarako aldatu... Hala, Aretxabaleta ez da sailkapenean aurrealdeko postuetatik gertu dagoelako itsutuko. Partiduz partidua, Beasain izango da hurrengo kontrarioa: "Kontrario oso gogorra izango da, baina etxean hobetu egin behar dugu".

BESTEEK, KANPOAN

Ohorezko erregionalean dabilzan Mondrak, Bergarak eta Aloña Mendik etxetik kanpo jokatu-

ko dute. Aloña Mendik liga aurreikusi baino makalago hasi duen Berio izango du aurrean (zapatua, 17:15, Donostia). Mondrak ez du kontrario batere makala izango, Zarautzek aurrealdean egoteko taldea daukalako, eta hala daudelako, aurrean (zapatua, 16:00, Zarautz).

Duda barik, baina, kontrario gogorrena Bergarak izango du, Manu Diazen mutilek Ondarroara egingo dute-eta bidaiari bihar, liderraren kontra jokatzeko (16:30, Zaldupe futbol zelaia).



Mikel Gonzalez eta Jokin Aperribai kontratu berria sinatzen.

REALSOCIEDAD.COM

eta lehenago ere garbi neukan Realean jarraituko nuela. Negoziazioek hiru hilabete iraun dute, eta, normala den moduan, nork bere aldera egin du tira".

Negoziazioek iraun duten bitartean, baina, Gonzalezek jakin du bi gauzak bereizten; alegia, berdegunean zegoenean buruan besterik ez izaten: "Bai, ez dut uste alde horretatik inongo arazorik izan dudunik. Gainera, taldea oso momentu onean dago, eta horretan zentratuta gaude denok".

LEHENENGO MAILARA

Hori da Arrasatekoak azpimarratu duena, Realean jokatzeko dela nahi duena, baina lehenengo mailan: "Amets hori daukat, nik eta gainontzeko Realzaleok".

Arrasatekoa ezinbesteko bilakatu da Realaren atzealdean, nahiz eta 24 urte baino ez dituen. 2005eko irailaren 17an egin zuen lehenengo taldearekin debuta, Mallorcaren kontra, eta dagoeneko 94 partidua ofizial jokatu ditu txuri-urdin jantzita: "Guretako oso albiste pozgarria da, Mikel Realaren oraina delako, baina baita etorkizuna ere". Martin Lasartek martitzenean atsedean ematen badie, Arrasatekoa GOITBn izango da astelehenean.

FUTBOLA > REALA

Mikel Gonzalez: "Buruan dudan ametsa Realarekin lehen mailan jokatzeko da"

Arrasatekoak martitzenean berritu zuen Realarekin kontratua, 2013ra arte

X.U. > ARRASATE

Mikel Gonzalezek 2013ra arte luzatu du Realarekin duen kontratua, eta orain dela bi hilabete *Harmailatik* saioan aurreratu

zuen berretsi du, bere asmoa Realean jarraitzea zela, alegia. Arrasatekoak GOIENKARIAri onartu moduan, egun pozgarria izan zen martitzenekoa: "Nahiz

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila
Hercules-Reala
Domeka. 12:00. Alacant.

Hirugarren maila
Aretxabaleta-Beasain
Domeka. 16:30. Ibarra.

Gazteen liga nazionala
Reala-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Zubietia.

Gazteen euskal liga
Bergara-Retuerto
Zapatua. 15:45. Agorrosin.

Ohorezko erregiona maila (lehenengo preferentia)
Berio-Aloña Mendi
Zapatua. 17:15. Berio.
Aurrera Ond.-Bergara
Zapatua. 16:30. Zaldupe.
Zarautz-Mondra
Zapatua. 16:00. Asti.

Erregional preferentia
Antzuola-Urola
Zapatua. 16:30. Estala.
Eibartarrak-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Unbe.

Lehen erregionala
UDA Arizmendi-Eibartarrak
Zapatua. 16:30. Ibarra.

Mondra-Urki
Zapatua. 18:00. Mojategi.
SBB Mutrikuarrak-Bergara
Zapatua. 18:30. Deba.

Gazteen ohorezko maila
Mondra-Anaitasuna
Zapatua. 16:00. Mojategi.
Aloña Mendi-Elgoibar
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Gazteen lehen maila
Bergara-Eibartarrak
Zapatua. 17:30. Ipintza.
Amaikak Bat-Arizmendi
Zapatua. 16:30. Errotazar.
Urola-Aretxa.B Arizmendi
Zapatua. 18:00. Argixao.

Ohorezko kadeteak
Aretx.Arizmendi-Urola
Domeka. 11:00. Zaldupe.
Aretx.Arizmendi-Urola
Zapatua. 11:30. Ibarra.
Aloña Mendi-Bergara
Zapatua. 11:15. Azkoagain.

Kadete gizonetakoak
Elgoibar-Aloña Mendi
Zapatua. 12:30. Mintxeta.
Arizmendi-Eibartarrak
Zapatua. 11:00. Almen.
Urki-Arrasate
Domeka. 10:30. Unbe.
Bergara-Aretxabaleta B
Domeka. 17:00. Ipintza.

Infantil ohorezko maila
Bergara-Elgoibar
Domeka. 11:30. Ipintza.
Eibar-Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Unbe.
Arrasate-Aretxabaleta-Ariz.
Zapatua. 11:30. Garmendi.

Infantil maila, partaidetza
Mutriku-Leintz Eskola Kir.
Domeka. 17:00. Berriatua.

Infantil txikiak
Urola-Bergara
Domeka. 13:15. Zumarraga.

Beasain-Arrasate
Zapatua. 09:30. Beasain.
Aretx.Arizmendi-Lagun On.
Domeka. 11:00. Ibarra.

Infantil txikiak, partaid.
Aloña Mendi-Bergara
Domeka. 11:15. Azkoagain.

Emakumezkoen liga
Aloña Mendi-Bergara
Zapatua. 16:30. Azkoagain.
Elgoibar-Mondra
Domeka. 12:00. Mintxeta.

Emakumezkoen F11 kade.
Eibar-Arizmendi
Zapatua. 15:30. Unbe.

Emakumezkoen F8 kadet.
Bergara F8-Aloña Mendi
Zapatua. 11:30. Ipintza.

Alebinak
Amaikak Bat-Bergara
Domeka. 11:00. Deba.
Ilintxa-Aretxabaleta
Domeka. 12:15. Deba.
Elgoibar-Arrasate
Domeka. 12:15. Deba.
Eibar-Aloña Mendi
Domeka. 09:45. Deba.

SASKIBALOA

Lehenengo maila
MU-Cafes Aitona
Zapatua. 18:00. Iturripe.

Senior autonomikoa
Aloña Mendi-La Salle
Zapatua. 18:00. Astigarraga.

Gipuzkoako senior gizona.
Teklan Laser-Soraluce BKE
Zapatua. 18:00. Hernani.

Gipuzkoako senior emak.
Murkil Zast-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Zarautz.

Gazte gizonetakoak, erren.
MU A-Autoescuela Lagunak
Domeka. 11:15. Musakola.

Gazte gizonetakoak, parta.
Cafes Aitona-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Donostia.
MU B-CD Internacional
Domeka. 09:45. Musakola.
Soraluce BKE-Easo Haizea
Zapatua. 12:15. Labegarai.

Gazte emakumezkoak, er.
Eskoriatza-MCM A
Zapatua. 16:00. Intxaurtxu.

Kadete gizonetakoak, part.
MU B-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Musakola.
Soraluce BKE-Mutriku
Zapatua. 10:15. Bergara.

Kadete gizonetakoak, part.
Eskoriatza-Andraitz B
Zapatua. 16:00. Intxaurtxu.
Hierros Mavi-Soraluce BKE
Domeka. 12:15. Urretxu.
Aloña Mendi-Andraitz
Zapatua. 11:45. Urretxu.
Arizm.Eskoria-Atsedean
Zapatua. 10:00. Intxaurtxu.

Infantil gizonetakoak
Aloña Mendi-BKL B
Zapatua. 11:45. Zubikoa.
Ordizia-LEK Ointxe
Zapatua. 12:00. Ordizia.

Zast Salbatore-Soraluce BKE
Zapatua. 12:00. Zarautz.
Legauto-Servimasa BKE
Domeka. 12:15. Urretxu.

Sarrabe-LEK
Zapatua. 09:30. Azpeitia.

Infantil emakumezkoak
Soraluce BKE-Ambolo
Zapatua. 12:00. Bergara.
LEK Arrasate-Comercial
Zapatua. 10:30. Musakola.

ESKUBALOA

Euskadiko seniorrak
Askartza-Ford Mugarri
Zapatua. 20:00. Leioa.

Euskadiko senior mailako emakumezkoak
Elgoibar-Verkol Aloña Mendi
Zapatua. 19:00. Olaizaga.

Lehen territorial maila
Soraluce BKE-Izarraitz
Domeka. 12:15. Labegarait.

Bigarren territorial maila
Grosoko-Arrasate
Domeka. 11:00. Donostia.

Gazte mailako gizonetako.
Aloña Mendi-Leizaran
Domeka. 10:30. Zubikoa.
Bergara Sora.-Tolosa
Domeka. 10:30. Labegarait.

Gazte mailako emakume.
Citroen Chap.-Bergara Sor.
Zapatua. 17:30. Musakola.

Kadete gizonetakoak
Talleres Chapime-Aloña M.
Zapatua. 16:00. Musakola.
Urola Prem.-Berg. Soraluce
Zapatua. 15:30. Zumarraga.

Kadete emakumezkoak
Amañe-Verkol Aloña
Domeka. 11:00. Eibar.

XAKEA

Arrasate Hiria torneo
Gaur, 19:00. Altamiran,
lehenengo jardunaldia.

ATLETISMOA

Soraluce-Bergara krosa
Zapatua. 17:00. Soraluce.

SQUASHA

Euskadiko Txapelketa
Gaur, egubakoitza,
18:00etan hasita Musakolan.
Zapatua. Goiz eta arratsalde.

ERRUGBIA

Senior gizonetakoak
Santander-Arrasate
Zapatua. 16:00. Santander.

Emakumezkoak
Arrasate/Durango-Urribial.
Zapatua. 15:00. Mojategi.

Gazteak
Durango-Zarautz
Zapatua. 11:00. Durango.

Kadeteak
Kanpazar ART-Eibar
Domeka. 11:00. Mojategi.



MUK Cafes Aitona hartuko du bihar Iturripen

Azkeneko partiduetako emaitzen ondoren MUK erreakzionatzeko gauza dela erakutsi nahi du bihar, 18:00etan, Iturripen.



> **MUSIKA**
Haur kantari onenak Arantzazun azaroaren 14an > 38



> **ANTZERKIA**
'Las vacaciones de Josefa' antzezlan domekan Elgetako Espaloian > 39

> **IBAN UNANUE**
Igor Larrearekin batera dihardu Antzuolako futbol taldea zuzentzen. Goiko postuetara iristeko esperantza duela dio Larreak > 42



Eguraldi kontuak guztion eskura Pello Zabalarekin

LIBURUA 'El tiempo. La meteorología al alcance de todos' liburua argitaratu berri du

ITZULPENA Aurretik kaleratutako 'Eguraldia beti airean' liburuaren itzulpena da liburu berria

ERRAZ "Xume-xume erakutsi nahi izan ditut eguraldiaren barruko kontuak, sukaldeko gauzak"

A. BARRUSO/E. MENDIBIL > BERGARA
Pello Zabalarekin elkartu eta segituan izaten duzu eguraldiaren gainean hari galdetzeko tentazioa. Ez dago igogailuan sartu beharrik hark hodei, haize eta euriari buruz luze eta zabal jarduteko, xehetasun guztiekin, baina edozeinek ulertzeko moduan. Hain zuzen ere, horixe da kalera-tu berri duen *El tiempo. La meteorología al alcance de todos* (Txertoa; 13, 75 euro) liburuaren helburua. Urtetan jasotako jakinduria jaso du bertan. Aurretik euskaraz argitaratutako *Eguraldia beti airean* lanaren gaztelarazko itzulpena da dendetara iritsi berri den liburua.

Ikuspegi tradizionala eta zientifikoa, biak batu nahi izan ditu Arantzazuko frantziskotar ezagunenak. Azken 30 urteotan egindako lanari esker, Zabala (Amezketan, 1943) erreferente nagusieta-ko bat da eguraldi kontuetan. Haren hitzetan, "xume-xume erakutsi nahi izan ditut eguraldiaren barruko kontuak, sukaldeko gauzak nolabait esatearren. Euskarazko liburuan eguraldiarekin lotutako 110 atsotitz eta esaera zahar jaso nituen eta horiek gaztelaraz itzultzea ez da erraza gertatu, izan ere gaztelarak ez daukalako euskaraz bezainbeste baliabide. Ia-ia arnasa bezain garrantzitsua izan da eguraldia euskaldunontzat".

Euskarazko izenburuak berak nahiko pista ematen ditu. Eguraldiak ez duela horrenbeste sekretu dio Zabalak; "eguraldia beti airean dago eta gugandik 12-14 kilometrotan dabilen aireaz dihardut, gorago ez baitago eguraldirik. Eguzkiak ematen dion beroarekin antizikloiak sortuko

dira, halako haizearekin euriak etorriko dira... eta abar. Zer da antizikloia ba? Airez egindako mendia. Aire honek janzen gaitu eta atmosferan, eguraldian, daude erantzun asko eta asko. Zaletasun pixka batekin edozeinek ikasten ditu eguraldi kontuak".

TRADIZIOAREN GARRANTZIA

Esan bezala, tenporei eta eguraldiaren ikuspegi tradizionalari garrantzi handia ematen die Pello Zabalak. "Nahiz eta zientifikoek uda txarra zetoirela esan, apirilera-ko zehazteak esaten zuten uda izugarri ona zetoirela. Lizarrei begiratzea baino ez zegoen. Uda-berri bukaerarako txizare guztiak lurpean ziren eta aire tipo hori uda sano baten seinale zen. Eta halaxe gertatu da. Baserritarrengandik asko ikasten da. Zientzia gizonak eta Euskalmetek ez dakitena dakite askotan".

Neguko tenporen zain, udazken polita

Pello Zabalaren arabera, azaro erdialdean izango diren tenporek esango digute negua nolako datorren. Bien bitartean, "udazken polit horietako" izango dugula dio; "Lekeition eta Baionan irailan izandako euriteek ez zuten esan nahi udazkena euritsua izango zenik, baizik eta euri haiek ekarri zituen ekialdeko haizea nagusitu zela. Esaera zaharrei ere eusten die ahal duenean, DomuSantu Egunean elurra mendi puntan eta San Andres egunean behean egiten duela dioten hori, esaterako.



Pello Zabala GOITBko kolaboratzailea da eta oraingo astean bere liburu berria aurkeztu du *Magazinea*-n.



Iñaki Altuna, Pello Zabala, Lourdes Idoiaga, Santos Sarasola eta Amaia Intza, haur kantarien topaketaren gaineko prentsaurrekoan.

MIREIA BIKUÑA

ESANAK

"Montserrat, Escorial eta Easo eskolaniak maila handikoak dira; guztiak elkartzea oso zaila da"

Santos Sarasola > Easo Abesbatza

"Maila handiko emanaldia egingo dute; hortaz, musika zale guztiak gonbidatu nahi ditut"

Lourdes Idoiaga > Oñatiko alkatea

MUSIKA > TOPAKETAK

Haur kantari onenak Arantzazun

Montserrat, El Escorial eta Easo eskolanietako 150 mutikok emanaldia egingo dute Basilikan azaroaren 14an, 12:00etan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

"Ikuskizun mundiala eskainiko dute. Oso zaila da Espainiako Estatuan dauden hiru eskolania garrantzitsuenetako haurrak elkartzea. Arantzazuko kontzertua aukera paregabea da". Horrela laburtu zuen Easo abesbatzako presidente Santos Sarasolak Montserrat, El Escorial eta Easo eskolanietako haur kantariak azaroaren 14an 12:00etan Arantzazun egingo duten kontzertua.

Guztira, 150 haur kantari bilduko dira Basilikan (azaroren 13an Kursaalaren egingo dute emanaldia). 1.000 sarrera jarri ditzuzte salgai 15 eurotan, eta dagoeneko eros daitezke Oñatiko kultu-

ra etxean, Arantzazuko oparidendan eta honako webgunean: www.kutxa.net webgunean.

Kulturaren arteko topaketa izeneko ikuskizunaren aurkezpena egin zuten martitzenean Oñatiko

DATUA

150

HAUR KANTARI

Montserrat, El Escorial eta Easo eskolanietako haur kantariak Arantzazuko basilikan bilduko dira azaroaren 14an.

udaletxean. Ekitaldian egon ziren Oñatiko alkate Lourdes Idoiaga, Easo abesbatzaren presidente Santos Sarasola, Pello Zabala frantziskotarra, Oñatiko Kultura zinegotzi Amaia Intza eta Kutxako ordezkari Iñaki Altuna.

HIRU HIZKUNTZATAN

Oñatiko alkateak Arantzazuko kontzertua "urrezko hitzordua" dela esan zuen: "Musikazaleondako aukera paregabea da. Haur kantariak ikuskizun bikaina eskainiko digute, maila izugarria dute-eta. Hiru hizkuntzatan abestuko dute, bakarka eta elkarrekin. Oñatiko eta bailarako pertsona guztiak gonbidatu gura ditut".



Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

BEILATOKIA

ETENGABEKO ZERBITZUA

LORE KOROAK

ESKELAK

TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

MUSIKA > ERRABAL 09

Soinu dardaragarria eta tradizionala ekarriko dute Zimbawetik Elgetara

Mookomba talde afrikarrak emango die amaiera aurtengo Errabal jardunaldiei, musika beltzeko saioei; kontzertua zapatuan izango da Espaloia Kafe Antzokian, 22:30ean

ARANTZAZU EZKIBEL > ELGETA

Deba bailarara musika beltza, jazza eta bluesa ekarri duen jaialdi ibiltaria da Errabal 09. Hainbat herritan jo ondoren, bihar, zapatua, amaituko da jaialdia Elgetan. Zimbaweko Mookomba taldeak emango dio amaiera jaialdiari; kontzertua Espaloia Kafe Antzokian izango da, bihar, zapatua, 22:30ean. Sarrerak aurrez erosten dituztenek 8 euro ordaindu beharko dituzte; leihatilan, berriz, 10 euro.

MUSIKA FUSIOA

Mookombak afro-fusio musika dardaragarria eta musika tradizionala fusionatzen ditu. Esan daiteke Mookombak munduko eszena musikalean indarrez sartuko den soinu deigarri eta bakarra dakarrela. "Iraunkortasunak, taldeko lanak eta apaltasunak ekarri gaitu honaino", dio Abundace Mutorik, taldeko liderrak. Mookomba izenak berak



Mookomba taldea kontzertu batean.

GOIENKARIA

HITZALDI AKUSTIKOA

Gaztelekuan, Zimbaweri buruzko ekitaldia

Larunbatean bertan, 12:30ean, Elgetako gaztelekuan, *workshop*-a edo hitzaldi akustikoa egingo dute Mookombako kideek. *Workshop*-a 50 minutu inguru irausten duen animazio ekitaldia da. Zimbaweko bizimodua eta han gazte eta musikari izateko zailtasuna; musikaren eta gazteriarren egoera; eurek lantzen duten generoa eta Music Crossroads proiektua izango dira berbagai ekitaldian. Gainera, abesti tradizionalak abestuko dituzte. Amaieran, jendeak galderak egiteko aukera izango du.

tongatarrek Zambezi ibaiari dioten errespetuan ditu sustraiak. Taldekideek tonga hizkuntzan abesten dute -Zimbaweko hiz-

kuntzetako bat- eta teklatu, perkusio, bateria, gitarra eta baxuarekin nahasten dute. Tonga kulturako musika tresnen aurkez-

pen dinamiko bat ere eskaintzen dute: djembeak, txilibituak, karpaiak eta kultura indigenako beste hainbat tresna, euren musika oso dantzarri bilakatzen duten musika tresnak. Mookombaren abestiek gizartearen arazo orokorrez hitz egiten dute: VIH birusaren pandemiaren eta maitasunaz, besteak beste.

2001EAN SORTUTAKO TALDEA

Kombooka bezala sortu zen taldea 2001ean. Zimbaweko Cataratas Victoria herrialdean oso ezagunak dira. 2004an lehen diskoa grabatu zuten: *Kombooka*.

MUSIKA

Palestinari elkartasuna adierazteko kontzertua

Arrasateko gaztetxean izango da, gaur, 22:00etan hasita

A.E. > ARRASATE

Palestinaren aldeko kontzertua izango da Arrasateko gaztetxean: Mikel Urdangarinek, Pettik eta Bazel Zayed emango dute, gaur. Euskal Herriko musikari ospetsuak eta palestinarrak, Palestinari elkartasuna adierazten. Askapenak Palestinaren aldeko *Elkartasunez tour* biraren barruan antolatutako kontzertua izango da gaur gauekoa. Esan bezala, gaztetxean izango da, gaur, egubakoitza, 22:00etan.

ASTE GUZTIA ARRASATEN

Astelehenean hasi eta gaur arte iraun dute Askapeneko kideek antolatutako jardunaldiek. Ekimenak herri palestinarrari elkartasuna adierazi eta Israelgo estatuen okupazioa salatzea izan du helburu. Arrasatez gain, birak Euskal Herriko hainbat txoko zeharkatuko ditu.

Gainera, aste osoan ekitaldi guztietan egin den moduan, herritarrek Palestinarekin atxikitze *Elkartasunez* deritzon manifestua sinatzeko aukera izango dute.

ANTZERKIA > 'LAS VACACIONES DE JOSEFA'

Melodrama eta umorea, aktore entzutetsuekin

Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango da antzezlana, domekan, 19:00etan

A.E. > ELGETA

Melodrama eta umorea uzartzen ditu *Las vacaciones de Josefa* antzezlana. Aktore entzuteak igoko dira Espaloiko antzokira domekan; hain zuen, Maria Luisa Merlo, Carlos Lozano eta Belinda Washington.

Hitzordua domekan izango da, 19:00etan. Sarrerak 15 euroren truke daude salgai; bazkideendako 12 euro. Ikuskizun handia izango da. Eszenaratze bizia, dekoratu ikusgarria eta testu zorrotza, burutsua, inteligentea eta umoretsua. Hori guztia, Elgetan.

AMA, SEMEA ETA ERRAINA

Protagonistak hiru izango dira. Ama ezkongabe bat, orain dela 30 urte mutil-lagunak utzi zuena. Seme eder bat, ogasunarekin arazoak izango dituena; eta ezkontide neurotikoa bat, senargaiak adarrak jartzeaz nekatur dagoena.

Melodrama eta umorea uzartzen ditu antzezlana. Hain zuzen, egoera horien helburu bakarra ikusleei barre eragitea da. Eszenak bata bestearen atzetik lotzen dira, deskantsurako tarte barik. Hala, drama izan zitekeena komedi bihurtzen da.



Carlos Lozano, Maria Luisa Merlo eta Belinda Washington.

TXALO PRODUKZIOAK

Gizatasuna eta samurtasuna duen komedia.

ARRAKASTA MUNDU OSOAN

Parisen arrakasta izugarria lortu du antzezlana; orain, mundu

guztira zabandu gura dute arrakasta hori. Antzezlaren zuzendaria Jaime Azpilikueta donostiarra da. Ezaguna egin da bai antzerki munduan eta baita telebistan ere. 120 antzezlantetik gora zuzen-

du ditu, tartean izan dira Sófoeles, Lope de Vega, Shakespeari, Goldoni, Strindberg, Arthur Miller, Camus eta Lonesco egileenak. Telebistan ere ezagun egin da eta hainbat musikal zuzendu ditu.

Esan behar da *Sé infiel y no mires con quién* antzezlana arrakastatsuen zuzendaria dela Azpilikueta. Espainiako historian sarrera gehien saldu dituen lana da aipatutakoa.

AKTOREAK

Maria Luisa Merlo aktore-familia batean jaio zen. 16 urterekin dantza munduan hasi zen; gero, zinemara, telebistara eta antzerkian egin zuen salto, eta gaur egun antzerkian dihardu. Belinda Washington *Qué me dices* telebista programarekin egin zen ezagun. Gaur egun telebista eta antzerkia uzartzen ditu. Carlos Lozano modelo lanetan hasi zen: Paris, Milan eta New Yorken egin zuen lan. Gaur egun, telebistako aurkezle entzutetsua da.

Txalo Produksioak taldeak ekoitzi du antzezlana. 1997an sortutako produkzio-etxea da; orduetik, produkzio, koproduksio eta banaketa lanak egiten dituzte.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Sagasti auzoan 89 metro koadroko etxebizitza salgai edo errentan. Sukaldea, hiru gela, egongela, bi bainu-gela, bi balkoi eta despentsa. Jantzita utziko genuke. Garaje itxiarekin. 687 11 07 21.

Arexabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. Prezio negoziagarria. 659 64 67 38

Oñati. Kale Zaharren etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela, trasteleua eta komunua. Kanpoaldera begira. Ia berria. Sartzeko prest. 230.000 euro. 606 24 21 21.

102. EROSI

Oñati. Lau logelako etxebizitza erosiko nuke. Deitu 677 42 52 05 telefono zenbakira.

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Alde zaharren etxebizitza errentan. Bi logela. Berrituta eta jantzita. Deitu 605 73 37 39 zenbakira.

Luz Saint Sauveur. Etxebizitza ematen da errentan eski denboraldirako. Deitu 670 49 84 28 telefonora.

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan. Guzti jantzita. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. 650 euro. Deitu 645 71 98 84 telefono zenbakira.

104. ERRENTAN HARTU

Arexabaleta. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu 679 09 33 34 telefonora.

Bergara. Etxebizitza bila nabil errentan hartzeko, konpartituz edo bakarrik. Durne naiz eta 33 urte dauzkate. 653 38 56 12.

Debagoiena. Bikotea urtarilaren letik aurrera bi gela edo gehiagoko etxebizitza alokatzeko prest. Deitu 665 72 79 38 edo 635 70 96 43 zenbakira.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan. 270 euro. Deitu 618 00 08 28 zenbakira.

Arrasate. Unibertsitatetik oso gertu dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Deitu 647 41 93 34 telefonora.

2/ GARAJEAK

202. EROSI

Bergara. Garaje itxia erosi nahi dut erdialdean. 635 20 81 22.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

ARRASATE

Herriko plazan martxan dagoen taberna txikia errentan ematen da. Sukaldea du. Aukera ona. 605 76 08 29

ESKORITZTA

Aldatz taberna eskualdatzen da. Unibertsitate ondoan. Aukera ona. 635 71 47 70

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Pertsona behar dugu urtebeteko haurra goizez zaintzeko (08:00etatik 10:00-11:00ak arte). Deitu 17:00etatik aurrera. 607 57 73 73.

402. ESKAERAK

Arrasate, Arexabaleta edo Eskoriatza. Neska gertu garbiketara lanerako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). 618 00 08 28 edo 943 79 82 43.

Arrasate. Hemengo neska prest edozein lanerako, orduka ere bai. 659 55 27 16.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan beheara utzerik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com edo www.goiena.net-en

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:

- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.

- LOKALA SALDU/ALOKATU.

- GARAJEA SALDU/ALOKATU.

- MOTORRA SALDU.

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEN GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).

PROFESIOALEN IRAGARKIAK (MODULOA)

MODULO 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEN GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEN GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Arrasate. Arrasateko neska gazte euskalduna arratsaldean lan egiteko gertu, umeak zaintzen edo etxek garbitzen. Esperientzia handikoa. 618 41 24 79 edo 943 08 14 25.

Arrasate. Umeak zaindu edo garbiketarako gertu. Ana Luis de los Santos. 671 27 78 36.

Bergara eta Arrasate. Gidabai-mena duen mutila atariak garbitu, elkarrekin garbitu edo beste edozein lan egiteko gertu. Deitu 685 70 76 25 telefonora.

Bergara. Esperientziadun emakumea gertu orduka etxeko lanak egiteko. 622 60 84 68.

Bergara. Neska bergararra gertu etxek garbitu, nagusiak zaindu edo bestelako lanerarako. 943 53 29 18.

Debagoiena. 27 urteko mutila gertu arotz edo soldadazale lanerarako. Baita publizitate banatzeko ere. Autoa daukat. Deitu 691 79 53 34 zenbakira.

Debagoiena. 30 urteko gaztea gertu lanerako. Geriatzia laguntzaile titulua daukat. Beste edozein lanetan aritzeko ere prest egongo nintzateke. Ordutegi arazo 685 70 76 25.

Debagoiena. Antzeko lanetan esperientzia duen emakumezko batek lan egiteko luke helduak zein umeak zaintzen. Ordu-tegi malgua eta lanerako presutasuna. 669 02 91 30.

Debagoiena. Emakumea edozein lanerako gertu. Ana Luis de los Santos. 671 27 78 36.

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona edatezuek zein haurren zaintza lanak egiteko. Etxean bizi izateko prest. 663 65 78 43.

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, edota garbiketara lanak egiteko. Orduka edo gauze. 678 23 54 93.

Debagoiena. Esperientziadun emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan ere bizi nintzateke. Bost urte darumatatzen hemen eta legeko papereak dauzkat. Deitu 646 78 81 40 telefonora.

Debagoiena. Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Baita zerbitzari jardutako ere. Informeak ditut. Deitu 671 35 22 60 telefono zenbakira.

Debagoiena. Garbiketara lanak edo nagusiak zaintzeko gertu nago. Eli Cerezo. Deitu 630 20 12 03 telefono zenbakira.

Debagoiena. Gazte arrasatearra edozein lan egiteko prest. Esperientziaduna zerbitzari lanetan eta makina muntaketa lanetan. 605 76 05 59.

Debagoiena. Instalazio elektrikorako eta mantenturako lanak egiteko gertu egongo nintzateke. Elektrikaria naiz, teknikari komertziala. Javi. Deitu 669 49 83 24 edo 680 30 30 52 telefono zenbakira.

Debagoiena. Turgin laguntzaile lanak egiteko nituzke. Magno Alberto. 600 76 43 14.

Debagoiena. Jantzi-dendan salutzailer lan egiteko nituzke. Esperientzia. 627 96 19 22.

Debagoiena. Lau urteko esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten ere bai. 626 78 22 95.

Debagoiena. Mutil esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gauze ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. 648 06 84 71.

Debagoiena. Mutil euskalduna gertu asteburuetan edozein lan egiteko: zerbitzari, garbiketarako, konponketak eta abar. Merke. 686 99 23 94.

Debagoiena. Neska arduratsu esperientziaduna gertu garbiketara, dendaria, azafata edo bestelako lanerarako. Deitu 639 86 96 76 telefonora.

Debagoiena. Neska boliviarra gertu edozein motatako lanerarako. Egunerik zein gauze. Esperientziaduna. Legezko papereak dauzkat. 618 14 71 34.

Debagoiena. Neska esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gauze ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. 660 37 20 47.

Debagoiena. Neska euskalduna gertu lan desberdinak egiteko: umeak zaindu, garbiketara lanak... 636 05 36 18.

Debagoiena. Neska gertu edozein lanerarako. Deitu 679 17 11 35 zenbakira.

Nagusiak zaindu. Neska euskalduna gertu goizetan pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 635 25 54 44 telefonora.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Batxilergo teknologikoko eskola partikularra etxean emango dizkidan norbait behar dut. Deitu 669 63 52 25 telefono zenbakira.

Arrasate. Mutiko bati 6. mailako eskola partikularra emango dizkion neska behar dugu.

Eskola laguntza, etxeko lanak egin eta abarretarako. Kristina. 617 36 67 96.

Bergara. Eskola partikularra jasoko nituzke. DBHko 4. maila. 18:00etatik aurrera deitu. Pilar. 943 76 16 42.

502. EMAN

Arrasate. Ingeniaritza Induetrialia ikasten ari naiz eta DBH, LH edo batxilergoko eskola partikularra emango nituzke: matematika, fisika, kimika, teknologia eta abar. 659 72 73 59.

Bergara. LH, DBH eta batxilergo zientifikoa dituen neska euskalduna naiz. Orain Enpresaritzan ikasketak egiten ari naiz. Idurre. 676 25 22 22 edo 943 76 03 34.

Ingelesko eskolak emango nituzke Bergaran. Maila guztiak, azterketarako prestakuntza barne. Ingeles komertzialean esperientzia dut. 618 91 32 89.

Komunikazioa. Ingeleseko nahiz euskarazko elkarrizketa saioak eskaintzen ditut ('one to one'), hizkuntza hauetan hitz egiten trebatzeko, Oñati edo Arrasaten. Deitu 656 74 29 49 telefonora.

Debagoiena. Mutil euskalduna gertu asteburuetan edozein lan egiteko: zerbitzari, garbiketarako, konponketak eta abar. Merke. 686 99 23 94.

Debagoiena. Neska arduratsu esperientziaduna gertu garbiketara, dendaria, azafata edo bestelako lanerarako. Deitu 639 86 96 76 telefonora.

Debagoiena. Neska boliviarra gertu edozein motatako lanerarako. Egunerik zein gauze. Esperientziaduna. Legezko papereak dauzkat. 618 14 71 34.

Debagoiena. Neska esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gauze ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. 660 37 20 47.

Debagoiena. Neska euskalduna gertu lan desberdinak egiteko: umeak zaindu, garbiketara lanak... 636 05 36 18.

Debagoiena. Neska gertu edozein lanerarako. Deitu 679 17 11 35 zenbakira.

Nagusiak zaindu. Neska euskalduna gertu goizetan pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 635 25 54 44 telefonora.

Oñati. Ingeniaritzako ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntzako, DBHko edo batxilergoko eskola partikularra emateko prest. (matematika, marrazketa, fisika eta abar). 678 27 27 57.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Citroen Xsara 1.9 D salgai. 1998koa. 166.000 km. Oso egoera onean. 1.200 euro. 629 15 79 29.

Toyota Previa monobolumena salgai. 7 plazaokoa. Oso ondo zainduta. 650 40 25 66.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Kanarioak salgai. Interesatuak deitu zenbaki honetara eta galdetu Mikelengatik. 635 75 54 53.

Lau untxi salduko nituzke. Deitu 17:30etik aurrera 665 74 91 27 telefono zenbakira.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Altzariak salgai. Etxe aldaketarik. Egongela, bikote logela, ordenagailu mahaia eta Fagor etxeko etxeresnak. Denak batera (prezio hobean) zein bana-bana. Oreretan. Informazioa eta argazkiak ikusi nahi badituzue idatziteko: mikel.muebles@live.com e-postara edo deitu 943 00 23 11 telefonora.

Bideokamera. Sanyo etxeko Xacti HD1A bideokamera salgai. Argazkiak SMP egiteko aukeran eta bideoa HD formatuan. Txikia, oso erraza erabiltzen, egoera ederrean eta osagarri guztiak. Bi bateria auzatik ditut. 200 euro. 636 43 85 40.

Dendarako altzariak saltzen ditut: mostradoreak, erdiko mahai handiak, bitrinak eta eskitzekoak. 627 96 19 22.

Ibiltzeko zinta elektronikoa salgai. Domyos etxeko. Lau programa ezberdinekin. Berria. 270 euro. 652 76 25 41.

Liburu zaharrak. 1953. urteko liburua saltzen ditut. Deitu 696 84 19 51 zenbakira.

Masaje aparatu. Hankak urarekin masajeatzeko aparatu elektrikoa salgai. 608 36 26 07.

Nokia 6124 telefonoa salgai. Vodafone etxeko. 30 euro. 617 13 17 51.

Routerra. Hariarik gabeko routerra salgai. Telefoniko Amper Zyxelarekin batera. 608 36 26 07.

Stokke kuma eta mini-kuma moldagarria salgai; 2 koltxo, eltzo-sarea eta izarak barne. 0 hilabetetik 5-6 urtera arte moldatzen da, egoera oso onean. 330 euro. 639 02 02 75 edo 943 76 55 88.

Zilarra erosiko nuke. Saltzeko badaukazu, deitu. 656 75 76 98.

806. GALDU

Jertsea. Neskatilaren jertsea galduta nuen urriaren 9an Arrasaten, Iturriotz eta Erdiko kale inguruan. Grisa da eta 3 Pommes etxeko. 649 05 39 68.

Neskatilaren jertsea galduta nuen urriaren 10ean Arrasaten, Erdiko kale eta San Andres artean. Berde iluna da eta IKKS etxeko. Mariasun. 676 03 22 71.

807. AURKITU

Bergara. Gabonetako loteria txartel bat aurkitu dut. Galduta duenak dei diezadala. 943 76 26 57.

Eskumuturrekoa aurkitu nuen urriaren 14an Bergaran, arrandegi baten. 943 76 34 51.

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

Mutil bila. 40 urteko mutil bat naiz eta beste mutil batekin harremanak izan nahiko nituzke. Ahal balitz, gazteagoarekin. Asmo bera baduzu, bidali SMS bat hona. Diskrezioa. 665 75 58 74.

904. BESTELAKOAK

Oñati-Gasteiz. Egunero Oñatik Gasteizera joaten naiz. Lakuan lan egiten dut. Autoa konpartituzko. 635 20 33 14.



INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmkorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m². Berritua.
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baseria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Antonio, 46 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorenzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak.**

ANTZUOLA:

- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135.000 €.

EIGETA:

- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

SORALUZE:

- Atxuri 49 m². 117.618 €.



DEBA GARAIA
INMOBILIARIA

Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Artakale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragiri, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trasteleua.
- Zubiaurre, 55 m², 84.142 euro. Negoziazarriak.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarain pasealekua, 132 m², berrizteko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berrizteko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurzadere, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokan eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.

SORALUZE

- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarrerreka, 58 m², aukera ona.

ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.
- Adosatua eta bifamiliarrak. Eraikuntza berriak.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

Arlutz taberna



ARLUTZ
TABERNA

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



EZKUTU
TABERNA

Zatoz gure musikaz gozatzeraz

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

VALDEZATE



Bokatak eta plater konbinatuak

Araba ibilbidea 5, behea - Tel: 943 25 07 40

IOSU

taberna harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



OTZETA JATETXEA



Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 07 94

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

Gurea

TABERNA



Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

Dorleta

BAR DORLETA

Loteria eta kinielak

DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA



hemen bada

ORROR

Iban Unanue > Antzuolako entrenatzailea

"Taldea hartu nuen une berean bereiztu nituen futbola eta lagun koadrila"

Bigarren denboraldia hasi berri du Iban Unanuek Antzuolako entrenatzaile moduan. Igor

Larrearekin batera dihardu taldea zuzentzen eta helburua maila mantentzea bada ere, badu

"esperantza" goiko postuetan egoteko. Ez du titulurik, baina jokalaria moduan ikasitakoarekin

-ez dela gutxi- nahikoa dauka lagun giroa nagusi den taldean lan "ona eta serioa" egiteko.

JOKIN BEREZIARTUA > ANTZUOLA

Estala futbol zelai berrituan egin dugu hitzordua Iban Unanuekin (Antzuola, 1983). Antzuola kirol elkartearen erregional preferente mailako taldeko entrenatzailea da Unanue, eta zelaia zapaltzeaz bat zelai berrituaren abantailaz hasi da berbetan. Izan ere, "sekulako aldea" dago egungo belar artifizialaren eta lehengo hartxintzarrezko zelaia-aren artean. Futbolaz gain, beste zenbait ere kontu izan ditugu hizpide gazte antzuolarrarekin.

Entrenatzaile izan aurretik jokalaria moduan ibilbide oparoa izan zenuen. Konta iezaguzu, bada, nondik nora ibili zaren.

Ume bat nintzela, 11 urterekin, Realean hartu ninduten eta kadete mailara arte jokatu nuen bertan. Realean bi urte eta Urolan urtebete Realetik utzita egin ostean, Bergaran jokatu nuen beste hiru urtez. Gero, Bergaratik Eibarrrera egin nuen, bertan gazte mailako azken urtea jokatzeko.

Preferente mailarako jauzia Aloiñaren eskutik egin nuen eta gero Bergaran ere egin nuen urtebete preferentean. Azkenik Antzuolan egin nituen azken bi denboraldiak, pubiseko lesio batek futbola uztera behartu ninduen arte.

Nola heldu zinen Antzuolako entrenatzaile izatera?

Kanpoko entrenatzaile bat etorri zen, baina aurre denboraldia amaitu aurretik utzi zuen taldea. Hala, gertukoak ditugun jokalariek eskatuta entrenatzaile jarri nintzen, Igor Larrearekin batera; haren laguntza barik ezingo nuke taldearen ardura aurrera eroan.

Lehen urtea nahiko gogorra izan zen. Jende gaztea, jende berria, esperientzia falta... hasieran hainbat faktore izan genituen gure kontra, eta jaitziera postuetan izan ginen hainbat jardunalditan. Hala ere, denboraldia aurrera joan ahala hobetzen joan ginen eta azkenean seigarren postuan amaitu genuen.

Nola dago taldea orain? Zein helburu jarri diozue denboraldiari?

Aurten hobeto gaude. Iazko taldea bere horretan mantendu da -jokalaria batek bakarrik utzi du taldea- eta lau edo bost jokalaria etorri dira, taldea indartu dutenak. Ohorezko mailara igotzea oso zaila da; gainera, jaitsi direnak gure taldean daude. Hala, maila mantentzea da gure helburua, lasai ibilita. Hala ere,



J.B.

PERTSONALA

Herria: Antzuola. **Adina:** 26 urte. **Ikasketak:** Goi ziklo mailako mekanizazio modulua. **Zaletasunak:** Kirola, zinema eta bertsojaritza. **Gorrotatzen duzun zez:** Galtzea. **Gomendatzeko moduko filma:** *Cadena perpetua*. **Musikari bat:** Benito Lertxundi. **Futbol tal-**

de bat: Bartzelona. **Futbol jokalaria bat:** Xavi Hernandez. **Bidaiatzeko leku bat:** Kanada. **Bizitzaren alde garrantzitsu bat:** Lagunekiko harremana mantentzea. **Futbol-minik bai?** Zelai berria ikusita, gustura bueltatuko nintzateke futboleko jokatzera...

badut esperantza goiko postuetan egoteko...

Entrenatzaile izateko, aurretik jokalaria izatea beharrezkoa dela uste al duzu?

Ez dakit ezinbestekoa den, baina oso lagungarria dela esango nuke. Are gehiago nire kasuan. Nik ez daukat entrenatzaile titulurik, eta jokalaria moduan ikasitakoa helarazten diet jokalariei. Gainera, lagun giroa eta harreman ona dira nagusi taldean.

Jokalaria lagunak izatea ez da beti abantaila izango, ezta?

Bai, baditu desabantailak. Esate baterako, zenbait partidu jokatu barik utzi duzun jokalariekin tabernan garagardo bat hartzen zaudela, une deserosoak bizi daitezke... Baina, egia esan, taldea hartu nuen une beretik argi eta garbi bereiztu nituen futbol taldea eta lagun koadrila. Hori beharrezkoa dela deritzot.

Soinua da zure bigarren zaleatasuna. Konta iezaguzu nola hasi zinen gaur egunera arte mantentzen duzun zaleatasunarekin.

Kalejira eta erromeria giroak txikitatik asko erakarri nau; hala soinua jotzen txikitari hasi nintzen. Orduan Joakin Errasti *Epelar*-ek ematen zizkidan klaseak, astean bi orduz. Zazpi edo zortzi urtetan zehar erreperatorio luze bat ikasi ostean, ikastetxerari utzi nion.

Egun jai giroan jotzen dut soinua. Hau da, orain ez dut etxean jotzen. Antzuola eta inguruko herrietako kaleak askotan girotu ditut; honakoa lasai asko baiezta dezaket: ez dago Antzuolan elkarte, jate txeko edo tabernarik soinua jo ez dudarik.

Atzerrian ere izandakoa zara soinua jotzen. Non?

Maiatzean Belfastera joan ginen asteburu pasa Antzuolako kultur talde batek gonbidatuta. Bertso afaria egin genuen; besteak beste, Unai Iturriaga eta Igor Elortza izan ziren bertan. Irlandako eta Euskal Herriko 100 lagun inguru elkartu ginen; bene-tan merezi izan zuen.

Azkenik, pilotan ere federatua izandakoa zara. Pilota ere bai?

Futbolarekin batera pilotan jokatzen nuen, baina lehentasuna futbolari eman nion. Laguntzeko eta ordezko moduan izan nintzen pilota taldean. Egun, beste zaleatasun bat da niretzat.

Bide Ertzean taldeko kideak izango dira 'Magazinea'-n

'Alkateak zuzenean' atalera, berriz, Bergarako alkatea etorriko da

OIHANA ELORTZA > ARRASATE
Bide Ertzean taldeko hiru kide etorriko dira datorren eguaztean *Goiena magazinea* programara: Fran Iturbe eta Ima eta Joni Ubeda anaiak. 10 urte egin ditu Bide Ertzean taldeak eta ibilbideaz eta *Leidor Sessions* azken lanaz jardungo dute musikariek.

Bestalde, astelehenean, Arrasateko Udalak eta Emausek elkarrekin egin duten proiektuaren inguruan hitz egingo dute alde bietako ordezkariak. Martitzenean, Zubillagako hiltegiaren etorkizuna argituko duen proiektua azalduko du Pedro Iturbe hiltegiako batzordeko buruak. Eta eguenean, azaroak 5, Agurte Barruso Bergarako alkatea etorriko da *Alkateak zuzenean* tartera, galderak erantzutera.

GOITB, 'Goiena magazinea'
> Aste barruan, 19:45



Bide Ertzean taldeko hiru kide etorriko dira *Goiena magazinea*-ra. BIDE ERTZEAN

Sarrerak eta liburua opari

O.E. > HERRIA
Datorren eguenean, azaroak 5, Arrasateko 3 aretoan egongo den kontzerturako sarrerak zozketatuko dituzte Arrasate Irratian. Rat, City, Riot (AEB) eta Fight Ball (Alemania) taldeek joko dute eta kontzertuaz zuzenean gozatzeko aukera eskainiko dute *Igo autobusera* irratsaioan. Egunean egingo dute zozketa. Bestalde, *Tximeleta-belarriak* izeneko umeendako ipuina ere zozketatuko dute datorren astean Arrasate Irratian.

Arrasate Irratia, 'Igo autobusera'
> Aste barruan, 10:00



GOITB

Hondakinak eta birziklatzea, arte bihurtuta

Donostiako Koldo Mitxelena kulturguneko erakusketa aretoan dagoen *Zakarrontzia astintzen*. *Hondakinak eta birziklatzea gaur egungo artean* izeneko erakusketa da aste honetako Gipuzkoa Kultura programan landuko duten gaietako bat. Hondakinak eta birziklatzea ardatz hartuta, bederatzi artistak egindako lanak daude ikusgai erakusketa horretan, hondakinak birziklatuta egindako artelanak.

GOITB, 'Gipuzkoa kultura'
> Eguaztena, 22:15

telebegi

Edu Mendibil
'emendibil@goiena.com'

'59 segundos'

Gautxoriendako saioa bilakatu da *59 segundos*. Gauerdia pasata hasten da, Europako beste telebista kateetako saio interesgarrienak *off* direnean. Telebista programatzaileen kasuan behinik behin, *Spain is different*, bai.

Maria Casado zurrunk gidatutako saioan (anfitrioi hobe zen Ana Pastor ederra eta azkarra), Jose Blanco izan zen eguazteneko gonbidatua. Badago ministro antipatikoagorik? Garai bateko Alfonso Guerraren kлона dirudi *Pepin*-ek. Krisiaren harira, baloiak urrundu eta gobernuaren ahalegina txalotzera mugatu zen. Bide batez, PP kritikatu zuen. Ezer berririk ez. Saioaren bigarren zatian, zezenak bai, zezenak ez, betiko eztabaida, Katalunian aurrera eraman nahi duten lege proposamena dela-eta: Pilar Rahola vs Sanchez Drago. 59 segundoak laburregiak ziren biendako, *klaro*. Eta Luis Herrerok bota zuen perlarik onena: "Zezena hemen izango balitz, eta berba egingo balu, plazan hiltzea aukeratuko zukeen". Oooooo!!!

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratu.

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Ioxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...
Astearen erreposoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05
05 (*irratia@goiena.com*)
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Uda Giroan
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

astea GOITBn

Egubakoitza, 30	Zapatua, 31	Domeka, 1	Astelehena, 2	Martitzena, 3	Eguaztena, 4	Eguena, 5
13:15 Marrazki bizidunak	08:00 Marrazki bizidunak	08:00 Barrebusa	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari.		09:00 Marrazki bizidunak	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.
14:15 On ein.	10:30 Barrebusa.		14:15 Eltze beroa.	14:15 On Ein.	14:15 Udazken loreak.	14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.	11:30 Kantari.	11:30 28 klip.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Ur eta Lur.	14:00 On ein.	12:00 Itsasoari begira.	15:15 Sakonduz.	15:10 Harmailatik.	15:10 Ilunpean.	15:15 Gipuzkoa kultura.
15:45 Itsasoari begira.	14:30 Udazken loreak.	12:30 Wazemank.	15:45 Ikusmira.	15:50 Ikusten.	15:50 Sakonduz.	15:45 Kalekantoi.
16:15 Ikusten.	15:00 Barrebusa.	13:00 Erreportajea.	16:15 28 Klip.	16:20 Itsasoari begira.	16:20 28 Klip.	16:15 Ikusmira.
16:45 Berriak.	16:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Ur eta Lur.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.	18:30 Gipuzkoa Kultura.	14:15 Puntuz Puntu.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Ilunpean.	19:00 Kale kantoi.	14:45 Kale kantoi.	17:45 Kalekantoi.	17:35 Wazemank.	17:35 Harmailatik.	18:00 Sakonduz.
18:45 Berriak.	19:30 Itsasoari begira.	15:15 Gipuzkoa Kultura.	18:15 Ilunpean.	18:15 Gipuzkoakultura.	18:15 Ur eta lur.	18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.	20:30 28 Klip.	15:45 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.	21:00 Ilunpean.	18:15 Barrebusa.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.	21:45 On ein.	19:15 Kantari.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Ikusten.	21:15 Wazemank.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.	21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Sakonduz.	22:45 Ikusmira.	22:00 Erreportajea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Puntuz Puntu.
22:45 Udazken loreak.	23:15 Wazemank.	22:45 GipuzkoaKultura.	22:15 Harmailatik.	22:15 Ilunpean.	22:15 GipuzkoaKultura.	22:45 Erreportajea.
23:15 Kale kantoi.	00:30 28 klip.	23:15 Ilunpean.	23:00 Gipuzkoakultura.	23:00 Wazemank.	23:00 Kalekantoi.	23:20 Itsasoari begira
23:45 Magazinea	01:00 Emisio amaiera.	00:00 Itsasora begira.	23:30 Goiena Magazinea.	23:30 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.
00:45 Emisio amaiera.		00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.

herritarrak galdezka

ORDENAZIOTIK KANPOKO
ERAIKINEN GAINEKOAK

Irakurle batek posta elektronikoz bidali digu mezua, honako galderekin: "Egia da ordenaziotik kanpo dauden etxebizitzak ezin direla saldu eta haien balioa nulua dela? Edo noiz botatzeko ahalmena du Udalak? Babes Ofizialeko etxebizitzaren zozketan parte hartzerik badu ordenaziotik kanpo dagoen etxebizitzaren baten jabeak?"

Arrasateko Udaleko Hirigintza arduradun Arantxa Sanzek azaldu digu ordenaziotik kanpo dauden eraikinak dagokion Udalaren hirigintza planeamenduaren barruan kudeatzen direla, eta kasu bakoitzean ikusi behar dela eraikin hori zergatik dagoen ordenaziotik kanpo eta ze arauk utzi duen: "Batuetan, Egita-mu Orokorrak aginduko zuen hori; beste batuetan, beste hirigintza plan batek", dio Sanzek. Eraikin horien egoera Lurzoruaren Legearen menpe ere badago; horrek mugatzen du jabeak egin ditzakeen obrak eta, adibidez, bakarrrik mantenurako diren obrak egin ahal izango ditu.

Eraikinok sal daitezke, baina gomendatzen da erosle potentzialari jakinaraztea eraikinaren egoera.

Bestalde, Udalak ezin dezake edozein momentutan eraikin hori botatu, baizik eta kasu bakoitza erregulatzen duen arauari jarraituta. Jabeak kalte-ordain bat izango du, baina hau ere kasu bakoitzerako aztertu behar da, eta aldatu egiten da hainbat faktoreren arabera: kokapena, adibidez.

Azkenik, Etxebidek argitu digu ordenaziotik kanpo dagoen etxebizitzaren baten jabeak parte hartu ahal izango duela babes ofizialeko etxebizitzaren baten zozketan, baldin eta etxebizitzaren hark eraispen-agindua edo botatzeko agindua badauka.



Bi ume, Elgetako ludotekan jolasten.

JOSETXO ARANTZABAL

NOIZ ARTE MATRIKULA GAITEZKE
LUDOTEKAN ETA GAZTELEKUAN?

Elgetako ama batek deitu digu honako galdetzeko: "Jakini nahi nuke ea noiz arte matrikula ditzakedan umak ludotekan edo gaztelekuan".

Urteko edozein hilabetetan matrikula daitezke ume eta gaztetxoak ludo-

tekan edo gaztelekuan; noiz matrikulatzen den arabera, kuota horretara egokituko da.

Gaztelekuan, ikasturteko (zazpi hilabete) kuota hau da: ume bat, 80 euro; bi anai-arreba, 70 euro bakoitzak; eta hiru anai-arreba, 60 euro bakoitzak. Gaztelekua 10 eta 16 urte artekoendako da. Bestetik, ludotekan, 2-9 urte artekoendako zerbitzuan matrikula egitearren, kopuru hauek ordaintzen dira hileko: ume bat, 16 euro; bi anai-arreba, 11 euro; eta hiru anai-arreba, 9.

Bestalde, Torrealdeko egoitza berean dagoen haurreskolan ere matrikula egiteko aukera dago; izan ere, leku kopuruaren %60 bete arte, horrela egin daiteke, eta oraindik ez da iritsi portzentaje horretara. Tarifak hauek dira: egunean bost ordu baino gutxiago egoten bada umea haurreskolan, 151 euro; eta hortik gorako erabilera, 198 euro. Orain, 0-1 urte arteko bi ume dabilta haurreskolan, eta 1-2 urte arteko taldean, lau.

Galdera egiteko:

Zerbaitek arduratzen bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoionekin.

• Telefonoz: 943 25 05 05

• Faxez: 943 25 05 12

• Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.

• Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

bono fotoa



Getariako Elkanoren irudia bergarar batek 1882an egin zuen. Zein da Bergarako San Antonio auzoan 1840n jaiotako eskulturgilearen izena?

Argazkia eta galdera >

Miguel Angel Elkorobereziabar

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Bergarako Carlos Gallastegi.
Zorionak!

Erantzun zuzena:
Udalatz, Udalaitez edo Udelatx.



Garmendia Ardoek emandako

Ardo botila packa*

zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa botila bat. Larchago beltz berezia botila bat. Larchago krintza botila bat.

ERANTZUNA


IZEN-DEITURAK

HERRIA TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 31

Laino zurixkak izango dira, euririk utziko ez dutenak, eta tenperaturak jaitsi egingo da, baina oso gutxi: 13-23 gradu artean ibiliko da.



Domeka, 1

Domu Santu egun lainotsu eta, eguraldi aldetik, goibel samarra izango dugu, zeru estaliek. Hai-zeak hego-mendebaletik joko du.

EUSKAL HERRIAN

Giro lasaia eta eguzkitsua bukatu egingo da urriarekin batera. Zapatuan oraindik eutsiko dio, laino apur batzuekin, hala ere; domekan, zerua estaliala egongo da eta giro desatsegina ekarriko du.



TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

MINIMOA	9°C	Max.	Min.	Euria
Astelehena, 26		°C	°C	l/m ²
Eguaztena, 21	20	11	18,1	
Eguena, 22	16	10	9,1	
Egubakoitza, 23	13	10	2,3	
Zapatua, 24	23	14	3,7	
Domeka, 25	20	15	0,9	
ASTEKO EURIA	34,4 L			
(l/m ²)				
Astelehena, 26	24	9	-	
Martitzena, 27	26	11	0,3	

guardiako farmaziak

ARRASATE

Zapatua, 31	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Domeka, 1	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 09 74
Astelehena, 2	Morales	Araba, 14	943 79 18 65
Martitzena, 3	Ruiz	Nafarroa, 1	943 79 14 09
Eguaztena, 4	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Eguena, 5	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Egubakoitza, 6	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99

BERGARA

Zapatua, 31	Urritikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Domeka, 1	Urritikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Astelehena, 2	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Martitzena, 3	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguaztena, 4	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Eguena, 5	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Egubakoitza, 6	Urritikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74

OÑATI

Zapatua, 31	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Domeka, 1	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Astelehena, 2	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 3	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguaztena, 4	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguena, 5	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Egubakoitza, 6	Anduaga	San Lorenzo, 3	943 78 21 16

ARETXABALETA-ESKORIATZA

Zapatua, 31	Fraille (Aretx.)	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Domeka, 1	Fraille (Aretx.)	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Astelehena, 2	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza, 1	943 71 48 28
Martitzena, 3	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza, 1	943 71 48 28
Eguaztena, 4	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza, 1	943 71 48 28
Eguena, 5	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza, 1	943 71 48 28
Egubakoitza, 6	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza, 1	943 71 48 28


Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.



Asier Urtzelai eta **Arantzazu Eguren** oñatiarrak urriaren 31n Oñatiko San Lorentzo ermitan ezkonduko dira. Ondoren, Sindika jatetxean egingo dute bazkaria. Egun zoragarria izan eta ondo pasa dezazuela. Zorionak, bikote, eta patxo bana familiakoen eta kuadrilakoen partetik!



Eskoriatzako **Rafael Romero** eta **Arcadia Benitez** ezkondu zirela 50 urte bete dira. Urrezko ezteiak bete dituzuen honetan, zorionak, bikote! Jarraitu beti bezain alai eta zoriontsu. Etxeko guztien partetik.



Bergarako, Elorregiko **Juan Joxe Garitaonandia Lizarralde** eta Iturengo (Nafarroa) **Rosario Ariztegi Vera** ezkondu zirela 50 urte beteko dira urriaren 31n. Zorionak eta patxoak, etxeko partetik, zuen urrezko ezteietan.



Arrasateko **Sonsoles Barroso** eta **Oscar Alonso** zapatuan, urriak 31, ezkonduko dira Itxaropenaren Amaren elizan. Familiakoekin eta lagunekin ospatuko dute Oñatiko Zelai-Zabal jatetxean. Egun zoragarria izan eta ondo ibili bidaian. Koadrila eta familia.



hildakoak

- **Aitor Bengoa Bengoa**. Aretxabaletan, urriaren 22an. 40 urte.
- **M^a Angeles De la Granja Ugarte**. Bergaran, urriaren 22an. 78 urte.
- **Casilda Arce Rastrilla**. Arrasaten, urriaren 23an. 93urte.
- **M^a Rosa Francisca Lizarralde Aramendi**. Bergaran, hilaren 23an. 100 urte.
- **Manuel Mondragon Agirrezabal**. Bergaran, urriaren 24an. 87 urte.
- **Patxi Aranzabal Albistegi**. Elgetan, urriaren 24an. 81 urte.
- **Maria Jose Benitez Nogales**. Arrasaten, urriaren 25ean. 38 urte.
- **Carmen Moyua Igartua**. Oñatin, urriaren 25ean. 81 urte.
- **Hilario Iñarra Kortabarria**. Arrasaten, urriaren 27an. 82urte.
- **Manuel Gonzalez Sanchez**. Bergaran, urriaren 27an. 81 urte.
- **Juana Elordi Uriguen**. Bergaran, urriaren 27an. 83 urte.
- **Celestina Murua Gorostidi**. Oñatin, urriaren 27an. 88 urte.

OROIGARRIA

Mari Jose Benitez Nogales

Ikastolako gurasoa

2009ko urriaren 25ean hil zen, 58 urte zituela.

Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte bakarrik.



Arizmendi ikastolako langile eta gurasoak.
Leintz bailaran, 2009ko urriaren 50ean.



OROIGARRIA

Aitor Bengoa Bengoa

*Hain maite duzun lurra utzita
salto eginaz berriro
goi hoietako patxada beti
eduki duzu begiko
Abiadura handian agur
nahiz abiadurak ito
Larrinun berriz zure barrerik
nahiz ez dugun ikusiko
Kurtzebarri inguruan hegan
egongo zara betiko.*



Etxekoak.
Aretxabaletan, 2009ko urriaren 50ean.

ESKER ONA

Manuel Gonzalez Sanchez

Bergaran hil zen 2009ko urriaren 27an, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko urriaren 50ean.

ESKER ONA

Patxi Aranzabal Albistegi

Alacantan hil zen 2009ko urriaren 24an, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Elgetan, 2009ko urriaren 50ean.

OROIGARRIA

Aitor Bengoa Bengoa

Txilibri

Aretxabaletan hil zen 2009ko urriaren 22an, 40 urte zituela.

Amillenak, aire kirol taldeak,
bat egiten du senideen saminarekin.



Arrasaten, 2009ko urriaren 50ean.



ESKER ONA

Carmen Moyua Igartua

Juan Igartuaren alarguna

Donostian hil zen 2009ko urriaren 23an, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta
samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Ondra meza zapatuan, urriaren 31n, 19:50ean,
Oñatiko Agustinetan izango da.



Oñatin, 2009ko urriaren 50ean.

ESKER ONA

Maria Angeles De la Granja Ugarte

Roman Lizarralderen alarguna

Bergaran hil zen 2009ko urriaren 22an, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak
bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

*Txikitatik argi
bizkor beti
langile modernoa
Ama aparta.*

*Zure ametsari
tinko helduz
munduan han eta hemen
bidaiari nekaezina.
Muzu bat bidaia honetarako.*



Bergaran, 2009ko urriaren 50ean.

ESKER ONA

Aitor Bengoa Bengoa

Aretxabaletan hil zen 2009ko urriaren 22an, 40 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Aretxabaletan, 2009ko urriaren 50ean.

Urriak 30-Azaroak 6

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Bertsok



OÑATI

> Jon Martin bertsolaria eta Wilson Saliweczyk payadorea elkarrekin gaur

Oñatiko Bertso Eskolak antolatuta, Jon Martin bertsolaria eta Wilson Saliweczyk payadorea (gitarraz lagunduta, Argentinako bertsolariak dira payadoreak, nolabait) elkarrekin arituko dira gaur, egubakoitza, Arrano tabernan, 22:30ean.

Antzerkia



ELGETA

> 'Las vacaciones de Josefa' antzezlan domekan Espaloia Kafe Antzokian

Jaime Azpilikueta *Las vacaciones de Josefa* umorezko antzezlan izango da domekan, azaroaren 1ean, Espaloian, 19:00etan. Maria Luisa Merlo, Belinda Washington eta Carlos Lozano ezagunak dira protagonista. Sarrerak, 15 eurotan.

Antzerkia



ARRASATE

> Titzina Teatroyen 'Exitus' antzezlan domekan Amaia antzokian

Heriotzari buruzko antzezlan ekarriko du Titzina Teatro taldeak Arrasatera. Lau pertsonaia dira protagonista: bakoitzak modu ezberdinean egingo dio aurre heriotzari... Domekan, 19:30ean, Amaia antzokian.

goizez bakarrik, 12:00etatik 14:00etara, hain zuzen.

Ikastaroak

ARRASATE

> Dantza garaikideko ikastaroa Arrasate Musikalen

Eskolak astelehenetan eta eguaztenetan, 20:00etatik 21:00etara.

Izena emateko epea urriaren bukaerara arte dago zabalik, Monterron jauregian, astebarruan, 16:00etatik 20:00etara.

BERGARA

> Argazkilaritza ikastaroa Photoshop bitartez

Azaroak 2tik 12ra (hastapen maila) eta 16tik 26ra (sakontze maila).

Argibide gehiago kultura etxean, 943 77 91 58 telefonon.

ARETXABALETA

> Dantza afrokaribearrak Jaiki elkartaren eskutik

Martitzenero, 18:30etik 20:00etara, Aretxabaletako kuartel zaharrean. Abendura arte. Plaza mugatuak.

Izenematea 653 70 50 68 telefono zenbakian edo jaikielkarte@yahoo.es helbidean.

ARETXABALETA

> Hainbat ikastaro azaroan Arkupen

Pintura, bainika, eskulana eta zeramika ikastaroak izango dira azaroan zehar.

Izenematea eta argibideak Arkupen, 943 08 10 01 telefonon.

Musika

ARRASATE

> Mikel Urdangarin, Petti eta Bazel Zayed

Elkartasunez tour Palestinarren aldeko bira.

gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

ARRASATE

> Vice Presidentes taldea bihar Gure Leku

Bloodola da gasteiztarren lan berria.

Bihar, zapatua, Gure Leku tabernan, 23:00etan.

BERGARA

> Bide Ertzean taldeak azken diskoa aurkeztuko du Bergaran

Leidor sessions izenburuko zuzeneko diskoa atera dute tolosarre.

Datorren zapatuan, azaroaren 7an, Zabalotegi aretoan, 22:30ean. 5 euro.

Antzerkia

BERGARA

> Helduendako ipuin kontaketa eguenean

Joseba Ramirez Izok egingo du emanaldia.

Eguenean, azaroaren 5ean, Zabalotegi, 19:00etan.

BERGARA

> 'Karakolaren gaua: eskale baten istorioa' hilaren 6an

Zurrunka antzerki taldearekin.

Datorren egubakoitzean, hilaren 6an, Zabalotegi aretoan, 22:30ean, 5 euro.

ESKORIATZA

> Ipuin kontaketa Oihularirekin, hurrengo egubakoitzean

Aitzorrotz kultura elkarteak antolatuta.

Azaroaren 6an Inkernu tabernan, 22:30ean.

Erakusketak

OÑATI

> Gorka Salmeronen 'Erretratoak' erakusketa

Formatu handiko 25 argazki ikusgai jarri ditu argazkilar legazpiarrak.

Azaroaren 6ra arte, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

BERGARA

> Joxan Iza margolariaren erakusketa, gaurtik

Panoptik.com izenburupean, panpina elektrikoak, formatu

panoramikoko koadroak eta koadro txikiagoak jarri ditu ikusgai Joxan Izak.

Aroztegi aretoan, azaroaren 8ra arte. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta jaiegunetan, goizez bakarrik.

ARETXABALETA

> Xabier Iturraranen margo erakusketa

Hainbat koadro ikusgai jarri ditu Xabier Iturraranek Arkupeko aretoan.

Azaroaren 1etik 30era. Aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Zapatuetan, goizez bakarrik.

BERGARA

> Martin Garmendiaren margolanak Nahikarin

Dozena bat koadro ikusgai jarri ditu Martin Garmendiak.

Nahikari tabernan.

BERGARA

> Marisol Yabenen argazkiak kultura etxean

Euskal arrazako animaliak izenburuko erakusketa ikusgai jarri du Marisol Yaben Villaverdek.

Kultura etxean, urriaren 30etik azaroaren 10era. Astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 21:00etara eta zapatuetan

PROPOSAMENA



ELGETA

> Mookomba taldea zapatuan Elgetan

Errabal jaialdiari amaiera emango dio zapatuan Zimbaweko Mookomba taldeak, Elgetan. Taldeko sei partaideek tongatarrez abesten dute –Zimbaweko hizkuntzetako bat– eta teklatu, perkusio, bateria, gitarra eta baxuarekin arituko dira, musika dantzagarria eskainiz. Tonga kulturako djembeak, txilibituak, kanpaiak eta kultura indigenako beste hainbat tresna ere joko dituzte.

Bihar, zapatua, Espaloian, 22:30ean. Sarrerak 8 euro aurrez eta 10 euro leihatilan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

ERAKUSKETA IRAUNKORRA: 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimendu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

PLANETARIUM BERRIA

Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta: 12:00 (eusk.), 13:00 (gazt.), 15:30 (fran.), 17:00 (eusk.) eta 18:00 (gazt.)

Donostiatik zerura begira: Zuzeneko saioa.

Itsua izar begiekin: Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.

Biziaren jatorria: Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.

Infinity Express: Unibertsoa eta Eguzki Sistemaren zehar bidaia

Kartoizko suziaren sekretua: Haurrei zuzendutako saioa

Eboluzioa: Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu

ANIMAZIO, IKUSKIZUN ETA ERAKUSTALDIAK...

Elektrizitate ikuskizuna: Ilek puntan

jarriko dizkizun esperientzia ahazteazina

Urriak 31: 13:00 eta 16:00

Azaroak 1: 14:00 eta 16:00

1, 2, 3 ... Matematgia!:

Matematikarekin ere jolas egin daiteke!

Urriak 31: 13:15

Azaroak 1: 17:30

HITZALDIA:

Ama Zelulen ikerketa. Gauzak

argi eta garbi. Gurutz Linazasoro eta Charo

Sánchez-Pernauteren eskutik (Inbiomed).

Aurkezlea: Félix Ares

(kutxaGuneo Zientzia Aholkularia)

Azaroak 4, 19:30ean, Newton

auditorioan.

Sarrera doan, aforoa bete arte.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78

www.miramon.org

Ordutegia

Astelehenetan itxita.

Asteartetik ostiralera: 10:00-19:00

Asteburu eta jaiegunetan: 11:00-19:00

BERGARA/ARRASATE

> **Mendekotasuna duten adinekoen zaintza ikastaroa**

Azaroak 3, 5, 10 eta 12, 15:30etik 18:30era Bergaran; eta Arrasaten azaroak 16, 18, 23 eta 25, 15:30etik 18:30era.

Argibide gehiago 943 76 93 94 telefonoan (Miren) edo info@bizikasi.com helbidean.

BERGARA

> **Oinarrizko jostintza ikastaroa Bizikasiren eskutik**

Azaroaren 2tik 13ra, astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 12:00etara.

Argibide gehiago 943 76 93 94 telefonoan (Miren) edo info@bizikasi.com helbidean.

BERGARA/ARRASATE

> **Arrisku handiko elikagaien manipulazioa**

Azaroaren 3an eta 4an, 16:00etatik 19:00etara, Bergarako Miguel Altuna institutuan; azaroaren 9an eta 11n Arrasaten, ordu berean. Doaneko ikastaroa.

Argibideak 943 76 93 94 telefonoan edo info@bizikasi.com helbidean.

ARRASATE

> **Sendabelarren ikastaroa Ekin elkartearen eskutik**

Azaroaren 25etik aurrera. Ekin Emakumeek elkarkidetzat bultzatzeko antolatuta.

Izenematea 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 zenbakietan.

BERGARA

> **Yoga ikastaroa Angiozar auzoan**

Azaroaren 2an, 9an, 16an, 23an eta 30ean, 18:30etik 19:30era.

Argibide gehiago: 943 76 93 94 (Miren).

ARRASATE

> **Dementziak dituzten adinekoen zaintza ikastaroa**

Abenduaren 14tik 18ra, 15:30etik 18:30era.

Argibide gehiago 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefono zenbakietan.

BERGARA

> **Oinarrizko argazkilaritza ikastaroa**

Azaroaren 2tik 25era, astelehen, martitzen eta eguaztenetan (19:15-21:15)

Izenematea kultura etxean, 943 77 91 58 telefonoan. Plaza mugatuak.

Lehiaketak

BERGARA

> **Film laburren lehiaketan parte hartzeko azken egunak**

Debagoienean bizi den edozeinek har dezake parte. 400 euro irabazlearentzat, 300 euro bigarren sarirako eta 150 euro bergarar onenari.

Lanak jasotzeko epea azaroaren 2ra arte zabalik. Argibideak: 943 77 91 60.

DEBA

> **Tene Mujika beka**

Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, V. Tene Mujika beka deitu dute.

Argibideak 943 19 28 40 telefonoan.



El imaginario del Dr. Parnassus **

Zuzendaria: Terry Gilliam.

Aktoreak: Christopher Plummer, Lily Cole, Heath Ledger, Tom Waits. 122 min.

Urte pila bat darama Terry Gilliamek ikuskizunaren munduan.

Lehenengo, Monty Python umore taldearen kide moduan, telebistako saioak eta filmak eginez, eta gero bera bakarrik, zuzendari gisa. Bere lanen artean *La bestia del reino*, *Los héroes del tiempo*, *Brazil*, *Las aventuras del Barón Münchhausen*, *El rey pescador*, *Doce monos*, *Miedo y asco en las Vegas* eta *Tideland* daude.

Horietako gehienetan errealtatearen eta fantasiaren arteko mugei buruz hitz egin du. Bizitzaren irudimen espaziori garrantzi handia ematen dio. Horrela, bere istorioetan errealtatea eta irudimena, ametsak eta amesgaiztoak, eroak, ipotxak, bizitzari buruzko ikuspuntu bitxiak dituzten pertsonaiak edo ipuinetatik ateratako pertsonaiak agertzen dira. Errealtatea eta fantasia nahasten dira eta kasu askotan zaila egiten da bataren eta bestearen arteko mugak non dauden bereiztea.

Eta hori dena irudi bihurtzeko nahiko estilo barrokoa eta gehiegizkoa erabiltzen du: efektu digital ugari, irudiak aldatzen dituzten lenteak... Horien guztiorien ondorioak oso film bitxiak izaten dira: momentu batzuetan liluragarriak eta beste batzuetan haserregarriak.

Film batzuk esku neurtuago batekin eginda daudenean oso estimagarriak izan daitezke: *Brazil* eta *El rey pescador* dira horren lekuko. Aldiz, beste batzuetan (*Tideland*, esaterako), Gilliamek sortzen dituen istorioak gehiegizkoak izaten dira eta azkenean ikuslea istoriotik kanpo geratzen da. *El imaginario del doctor Parnassus*, *Tideland*-en kutsu morbosoa eta kezagarria izan barik, nahiko film kaotikoa da. Filmaren hasiera nahiko ona da; *El rey pescador* filmaren antzeko istorio baten aurrean izango garaile ematen du, baina poliki-poliki Gilliamen ukitu nabarmena nagusitzen da, film nahasi bat burutu arte. Emaitza zera da: eszena on batzuk dituen film aipagarri bat, ez besterik.

Antonio Zabala

Zinema

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Agora
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

G-Force
Zapatua: 17:00.

Moon
Eguena: 20:30.

ARETXABAETA

ZARAIA

Slumdog millionaire
Egubakoitz eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Ice Age 3
Domeka: 17:00.

Como los demás
Eguena: 19:30.

OÑATI

KULTUR ETXEA

Qué les pasa a los hombres
Egubakoitz eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Pequeños invasores
Zapatua eta domeka: 17:00.

La noche es nuestra
Eguena: 20:00.

BERGARA

GAZTETXEA

V de vendetta
Domeka: 18:00.

ELGETA

ESPALOIA

Fuga de cerebros
Eguaztena: 21:30.

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA

This is it
Zapatua: 19:30, 22:30.
Astelehena: 20:30.

ARRASATE

COLISEO 1

This is it
Egubakoitz eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.

COLISEO 2

Frozen river
Egubakoitz eta zapatua: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

ARETXABAETA

GASTEIZ GURIDI

This is it
17:30, 20:00, 22:30.

El imaginario del Doctor Parnassus
17:30, 20:00, 22:30.

Si la cosa funciona
18:45, 20:30, 22:30.

La cruda realidad
17:00, 18:45, 20:30.

G-Force
17:00.

El destino final
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

La huérfana
22:30.

New York, I love you
17:30, 22:30.

Edén al oeste
20:00.

Agora
17:30, 20:00, 22:30.

BERGARA

FLORIDA-GURIDI

La chica que soñaba con una cerilla...
17:30, 20:00, 22:30.

Vicky el vikingo
17:15 (zapatua eta domekan). Euskaraz.

Yo, también
17:30, 22:30.

Petit indi
18:45, 20:30, 22:30 (zapatua eta domekan).

500 días juntos
18:00, 20:15, 22:30 (zapatua eta domekan).

Sin nombre
18:00, 20:15, 22:30.

El secreto de sus ojos
17:30, 20:00, 22:30.

After
20:00.

Castillos de cartón
18:00, 20:15, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

VELMO CINEPLEX

El destino final
(3-D emanaldiak)
17:30, (domekan), 19:30, 21:30, 23:30.

Toy story
(3-D emanaldiak)
15:30 (zapatua eta domekan), 18:00, 21:30, 23:30.

This is it
15:45 (zapatua eta domekan), 18:10, 20:15, 22:30, 00:45.

G-Force
16:15, 18:15, 20:15.

La cruda realidad
16:10 (zapatua eta domekan), 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

La huérfana
15:35 (zapatua eta domekan), 17:50, 20:10, 22:30, 00:45.

Infectedos
16:45 (zapatua eta domekan), 18:30, 20:15, 22:00, 23:45.

Agora
15:30 (zapatua eta domekan), 17:40, 20:00, 22:25, 00:50.

La chica que soñaba con una cerilla...
15:30 eta 16:45 (zapatua eta domekan), 18:00, 19:15, 20:30, 21:45, 23:00, 00:15.

Los hombres que no amaban a las mujeres
17:00 (zapatua eta domekan), 19:30, 22:05, 00:40.

Up
15:45 (zapatua eta domekan).

Malditos bastardos
17:00 (zapatua eta domekan), 18:30, 20:00, 21:30, 23:00, 00:30.

Rec 2
20:20 (domekan), 22:20, 00:00 (zapatua).

Vicky el vikingo
16:20, 18:20, 20:20 (zapatua).

Pequeños invasores
16:30 (zapatua eta domekan).

El secreto de sus ojos
17:35, 19:50, 22:10, 00:30.

Si la cosa funciona
22:15, 00:15.

Urriaren 30etik azaroaren 5era. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzetan eta zapatuan.

ÁBACO BOULEVARD

Agora
16:30, 19:15, 22:15, 01:00.

G-Force
16:00, 18:00, 20:05.

Rec 2
20:20, 22:20.

Vicky el vikingo
16:15, 18:05.

Up
16:20, 18:20.

La chica que soñaba con una cerilla...
16:00, 16:30, 19:00, 22:00, 22:30, 00:45.

Malditos bastardos
16:00, 19:00, 22:00.

This is it
15:45, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

La huérfana
15:45, 18:00, 20:20, 22:40, 01:00.

500 días juntos
16:10, 18:20, 20:30, 22:30, 00:45.

La cruda realidad
16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

Los sustitutos
22:15.

Infectedos
20:00, 22:00, 00:30.

El destino final
16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30.

Urriaren 30etik azaroaren 5era. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzetan eta zapatuan.

G-Force
Zuzendaria: Hoyt Yeatman AEB, 2009. 90 minutu.

Film honetan akzio erreala eta ordenagailu bidez egindako CGI efektuak uztartu dituzte. Istorioak animalia *ultrabizkor* batzuen goraberak kontatzen ditu. Gobernuaren agentzia batentzat egiten dute lan, eta mundua menderatu nahi duen aberats bati egin beharko diote aurre. Zenbait aretotan hiru dimentsiotan ikus daitezke filma. Ez ordea Arrasateko Amaia antzokian.

Transformers 2
AEB, 2009. Zuzendaria: Michael Bay.

Bi urte pasatu dira Sam Witwicken unibertsoa salbatu zuenetik. Hala ere, Samek beste gazteek dituzten arazo berak ditu. Ezustean, abenturari berriak izango ditu. Shia LaBeouf, Megan Fox eta John Turturro aktoreekin.

San Valentin sangriento
AEB, 2009. Zuzendaria: Patrick Lussier.

Jaioterrira itzuli da Tom, San Valentin egun batez gerturiko sarraskiaren 10. urteurrenean. 1981ean estreinatutako filmaren *remake* hau hiru dimentsiotan ikus-teko aukera dago Euskal Herriko zenbait aretotan. Jensen Ackles eta Jaime King aktoreak dira protagonistak nagusiak.

District 9
Zeelanda Berria-Hego Afrika, 2009. Zuzendaria: Neill Bloomkamp.

Estralurtarren ontzi erraldoi batean Lur planetara helduko dira, Hegoafrikako Johannesburgo hirira, baina errefuxiatu gisa. Estralurtarrak kontzentrazio esparru moduko batean sartuko dituzte eta apart-heid erregimena ezarriko diete.

Gordos
Espainia, 2009. Zuzendaria: Daniel Sanchez Arevalo.

Irautearen inguruko komedia koral bat da Daniel Sanchez Arevaloren (*Azuloscurocasinegro*) azken filma. Gizentasun arazoekin obsesionatuta dauden lagun batzuk dira protagonistak. Antonio de la Torre, Raul Arevalo eta Roberto Enriquez aktoreekin.

Ponyo en el acantilado
Japonia, 2007. Zuzendaria: Hayao Miyazaki.

Sasuke bost urteko umearen eta Ponyo arrainaren arteko harremana kontatzen du Hayao Miyazakiren (*El viaje de Chihiro*) marrazki bizidunetako film honek. Gizaki bihurtzea da Ponyoren ametsa...


Hotel Woodstock
AEB, 2009. Zuzendaria: Ang Lee.

1969. urtea da. Elliotek gurasoen hotela bere gain hartuko du, negozioa hondoratzen ari denean. Aldameneko herrian rock jaialdi bat egiteko baimena ez dutela eman entzungo du, eta antolatzaileei deituko die, hotelaren ondoko zelaia eskaintzeko, baina ez du inajinatu ere egiten milioi erdi lagun batuko direla han hiru asteren buruan...

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

G-Force Zuzendaria: Hoyt Yeatman AEB, 2009. 90 minutu. Film honetan akzio erreala eta ordenagailu bidez egindako CGI efektuak uztartu dituzte. Istorioak animalia ultrabizkor batzuen goraberak kontatzen ditu. Gobernuaren agentzia batentzat egiten dute lan, eta mundua menderatu nahi duen aberats bati egin beharko diote aurre. Zenbait aretotan hiru dimentsiotan ikus daitezke filma. Ez ordea Arrasateko Amaia antzokian.

nire aukera



Ritxar Fernandez
Korrikalaria eta Oñatiko Zero km-a dendakoa

Umearen menpe azkenaldian

Ritxar Fernandezek (39 urte) ez du aurten Behobia-Donostia proban duen marka (1:01:40) hobetuko. Pare bat urteko *atsedenaldia* hartzea erabaki du. Beraz, ez da azaroaren 8an Behobia-ko irteeran izango.

Zortzi hilabeteko semea daukate, Gari, eta nahiago izan du korrika, neurri batean, alde batera laga. Atletismoko entrenatzailea izateko titulua ateratzen dabil Durango, eta astean pare bat egunetan joaten da hara. Era berean, aspaldiko musika zaletasunari eutsi dio berriz; Argi Ibili taldeko bateria-jolea dugu Ritxar. Azaroaren 13an emanaldia egingo dute Arrasateko 3 aretoan, Vomito eta Golpe de Estadorekin.

Astebururako planik bai?

Etxean lasai egotea atsegin dituzte gehien. Etxean egoten gozatzen duten horietako naiz; ez zait gustatzen astebururo alde batetik bestera ibiltzea. Etxean egon, emaztearekin eta semearekin bueltatxo bat eman.

Bergaran krosa dago bihar.

Bai, ez dakit joaterik izango dudana. Beharbada, eguraldiak laguntzen badu, hurbilduko gara lasterketa ikusi eta giroaz disfrutatzea.

Behobian ere ikusle izango zaitugu aurten.

Bai; gainera, antolaketa gonbidapena jaso dut lasterketa buruan joango den autoan joateko, eta ilusioa egiten dit. Entrenatzen ditudan hainbat lagunek parte hartuko dute, eta ea dena ondo ateratzen zaien...

Nolatan musikari berriz?

Orain dela 15 bat urte Argi Ibili taldea sortu genuen, eta, horrenbeste urteren ondoren, Atzeko kaleko jaietan jo genuen berriro, irailan.

Egondako azken kontzertua?

Loquillorena, udan Aretxabaletan eman zuena. Askok gustatzen zait Loquillo. Pearl Jam eta Alice in Chains ere bai... Egia esan, musikarekin asko gozatzen dut.

Edu Mendibil

Etxebarriaren osasun-etxea

BIDAIARIA Alberto Etxebarria aretxabaletarrak munduko toki mordo ezagutu zuen bere bidaietan

LAGUNTZA Zaragozako Amigos de SMSS gobernuz kanpoko erakundeari laguntza eman zion Indiarako dirua lortuz

INDIA Aretxabaletarraren izena daraman osasun-etxean Indian jatorria duen medikuntza aiurbedikoa da ardatza

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARETXABALETA
Zein Etxebarria? Zein osasun-etxe? Galdera horiek sortuko zitzaizkion bati baino gehiagori.

Aretxabaletako Alberto Etxebarria zenaz dihardugu, eta haren izenez bataiatutako Indian dagoen osasun-etxeaz.

Bidaiaria zen Alberto Etxebarria, bidaiaria eta beti laguntzeko gertu zegoena, gainera. Txoko mordo ezagutu zituen eta bidaietako batean, Indiako Orissa estatuan, Kandhamal barrutiko Pasara herrira iritsi zen Madrilgo eta Zaragozako lagun talde batekin.

Txoko berriak ezagutzea bai, baina laguntza ere bazen Zaragozako Amigos de SMSS gobernuz kanpoko erakundearen helburua; Indiako Subhadra Mahatab Seva Sadan erakundeari laguntza ematea, hain zuzen ere.

Alberto Etxebarriak Indiarako bidaiaria egin zuen sasoi hartan, SMSSkoek osasun-etxe bat eraikitzeko laguntza ematen ziharduten eta Etxebarria ez zen atzean



PASARA Aretxabaletako Ana Iñurrategi eta Fernando Uribealago eta Bergarako Pili Iztueta, Pasarako osasun-etxean. GOIENKARIA

geratu. Buru-belarri ekin zion kamisetak saltzeari, dirua batzeari eta hara bidaltzeari... Hori zela-eta oso maitatua zen inguru hartan, eta lehen bidaiaria hartatik beste zenbait ere egin zituen.

INAUGURAZIOA 2004AN

Osasun-etxea egin zuten, laborategia eta Indian jatorria duen medikuntza aiurbedikorako etxea, hain zuzen ere.

Alberto Etxebarria 2004ko irailean hil zen bihotzekoak jota, eta urte hartan amaitu eta inauguratu zuten osasun-etxea; haren laguntza eskertuz Alberto Etxebarria izena eman ziotena.

Azken bidaiaria urrutira egin zuen Alberto Etxebarriak, baina haren pausoak jarraituz, Indiarako joan dira Bergarako Pili Iztueta eta Aretxabaletako Ana Iñurrategi eta Fernando Uribealago, eta oraindik han daude. Handik iritsi zaizkigu Alberto Etxebarria osasun-etxearen aurrean ateratako argazkiak: Alberto Etxebarriaren zati bat Indian geratu den erakusgarri.

ahobero

"Gaur egun ahalegina aintzat hartzen ez duen gizarte batean bizi gara"

Letizia Ortiz >
Asturiasko printzesa

Beharbada, arrazoa izan dezake, baina nola liteke horrelakorik esatea ahalik eta ahalegin txikiena eginez gainontzekoen zergen kontura gizarteko mailarik gorenean bizi denak? Hura da beste guztien ahalegina gutxien baloratzen duena.

iturri onetik

Independentzia Eguna abenduaren 19an ospatuko dute antzuolarrek

Abenduaren 12an Antzuola Bergaratik banatu zela 380 urte beteko dira; 1629an, orduko errege Felipe III.ari urrezko 5.000 dukat ordaindu zituzten independentziaren truke. Horren harira, abenduaren 19an, zapatuan, Independentzia Eguna ospatuko dute Antzuolan. Egundik gertatzen dihardute oraindik, baina jakin dugu, besteak beste, herri bazkaria izango dela.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Ipupo

Ipupua, poesia, marrazkia eta mamua. Edo fantasia, sormena, lilura eta ahozkoasuna. Hori guztia da *Ipupomamua*. Izena Bernardo Atxagak asmatua da eta ideia aspalditik dabil airean, non gauzatuko zain. Egin nahi dena da areto magiko bat, basoan gordea egongo den koba, han bildu daitezten 0-100 urte arteko haurrak irudimena askatzera.

Etxe hori eraikitzeko lanean dabilta hainbat erakunde. Eta bitartean, Ipupok gorputz hartu du hipopotamo batean eta telebistan hasi da bidea egiten. Joan den astean Debagoienan ikusi genuen Nagore Aranburu aurkezlea bere bizikletarekin, Arrasateko Kulturaten eta Oñatiko Arrikrutzen. ETB3n duzue ostegunero, 21:30ean, eta ETB1en ostiraleroko, 19:30ean. Egin diezaiozun denon artean etxea hipopotamoari.

ai, ene!



Begiak ikusgarri egiten dituzten argitxoak

Betile artifizialak ahaztu eta horra begiak distiratsu izateko modua. Aurikular moduko batekin pizten diren argitxoak begi ertzean.

www.nopuedocreer.com

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43

OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48



Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak

